

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**KULTURA – ARTEKOTASUNA ETA
ARRAZISMOA EGUNGO ESKOLETAN
IRAKASLEEN AHOTIK**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Malcorra Rodrigo, Izaskun

ZUZENDARIA: Larraza Arnanz, Saioa

2022/23 ikasturtea

LABURPENA

Egungo errealitate kultur-anitz honetan, arrazismoa bezalako jarrerak areagotzen ari dira gizartean zein eskoletan. Kontuan hartuta, aniztasun kultural handiagoa dagoela eskoletan, Gradu Amaierako Lan honetan Lehen Hezkuntzako irakasleek kulturartekotasunaren inguruan duten formakuntza eta jakinduria ezagutarazten da. Era berean, irakasle hauen aurre ideia eta bizipen ezberdinak aztertzen dira ikasle zein familia etorkinen inguruan. Horrez gain, ikasleen identitate pluralaren garrantziaz eztabaidatzen da, ikasle etorkinetan edota kultura ezberdin bat duten ikasleengan duen eragin positiboa azpimarratuz. Hau guztia gauzatzeko, irakasleen ahots ezberdinak erabiltzen dira egungo errealitatea erakusteko eta gaiarekiko kontzientzia pizteko.

RESUMEN

En la realidad actual, en esta multiculturalidad, actitudes como el racismo están aumentando tanto en la sociedad como en las escuelas. Teniendo en cuenta que existe una mayor diversidad cultural en las escuelas, en este Trabajo de Fin de Grado se dará a conocer la formación y el conocimiento del profesorado de Educación Primaria sobre la interculturalidad. Asimismo, se analizan diferentes prejuicios y vivencias de estos profesores en torno a los alumnos y familias inmigrantes. Además, se debate sobre la importancia de la identidad plural del alumnado, destacando su influencia positiva en el alumnado inmigrante o con una cultura diferente. Para llevar a cabo todo esto, se utilizan diferentes voces del profesorado para mostrar la realidad actual y concienciar sobre el tema.

ABSTRACT

In the current reality of multiculturalism, attitudes such as racism are increasing both in society and in schools. Taking into account that there is greater cultural diversity in schools, in this Final Degree Project we will examine the training and knowledge of Primary Education teachers about interculturality. It also analyses different prejudices and experiences of these teachers regarding immigrant pupils and families. In addition, the importance of the plural identity of pupils is discussed, highlighting its positive influence on immigrant pupils or pupils with a different culture. To do all this, different teachers' voices are used to show the current reality and raise awareness of the issue.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. MARKO TEORIKOA	4
2.1. Arrazakeriaren garapena	4
2.2. Familia eta eskola.....	6
2.3. Irakaslearen rola	9
2.4. Identitate pluralaren garrantzia.....	11
3. HELBURUAK	12
4. DATU BILKETA	13
4.1. Parte-hartzaileak	13
4.2. Elkarrizketen prozedura.....	13
5. EMAITZAK	15
5.1. Kultura-artekotasunaren inguruko formazioa	15
5.2. Ikasle iritsi berrien harrera.....	15
5.3. Bestelako kultura duten ikasleen egokitzapena	17
5.4. Irakasle-gaien praktikak eta aurreikuspenak	18
5.5. Baliabide pedagogikoak	20
5.6. Identitate plurala	21
5.7. Eskola segregazioa.....	23
5.8. Arrazakeriaren garapena	24
5.9. Irakasle gisa esperientziak edota erronkak.....	26
6. ONDORIOAK	27
7. BIBLIOGRAFIA	32
8. ERANSKINAK	34

1. SARRERA

Urteak pasa ahala, gizarteko errealitatea aldatzen joan da pausoz pauso. Duela hamarkada batzuk atzera eginez gero, gizartean beste errealitate bat aurkitzen zen. Baina, giza jokabideak, aurreiritziak, ideiak... errealitate berri honekin batera, nola joan dira aldatzen? Lan honetan, galdera honi lotuta, egun eskoletan dagoen errealitate bat aztertuko da, arrazakeriarena, hain zuzen ere. Horretarako, arrazakeria bere osotasunean aztertu eta eskolako testuinguruan nola agertzen den aipatuko da, irakaslearen aurreiritzi posibleak zein jarrera ezberdinak aztertuz eta gizarteko errealitatea azalduz.

Pil – pilean dagoen gaia da arrazakeria. Egia da egun ezagutzen ditugun arrazakeria kasu askok, duela hamarkada batzuekin alderatuz gero, itxuraz aldatu dutela, formaz. Baina horrek ez du esan nahi eraginik ez dutenik, kaltea handiagoa izan daiteke-eta ikusezinak diren ekintzekin. Lehen pertsonan arrazakeria sufritzen ez duen pertsona bat naiz ni, zuri izateak dakartzan pribilegioekin jaio naizena. Horrela, Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia da antzeko egoeran dauden ikastetxeetako figura garrantzitsuen ahotsa entzutea; irakaslearena, alegia.

Lehen Hezkuntzako Graduan, arrazakeria, kulturartekotasuna, hizkuntza ezberdinen trataera... bezalako gaiak landu ditugu, batzuetan sakontasun gehiagorekin eta beste batzuetan gutxiagorekin. Baina honek guztiak ez nau eragin gaia aukeratzeko orduan, "Arrazakeria eskolan" gaia aukeratzearen arrazoi nagusia gizartean eta gehien bat eskoletan ikusi eta entzun ditudan jarrera arrazisten ondorioz sortu zen. Tamalez, praktikaldietan, udalekuetan begirale gisa, solasaldietan lagun, familia zein ezezagunekin, jokabide arrazistak eta komentarioak entzun ditut, jakina nik neuk ere nire aurreiritziak ditudala, erabakietan baldintzatzen dutenak. Beraz, gai hau aukeratzean nire buruan ditudan eskema guztiak hautsi eta berriak eraikitzen hasi naiz, aurrean dugun errealitate bat ezagutzeko helburuarekin.

Lehen Hezkuntzako irakasleak aztertzeko arrazoia nahiko erraza da azaltzen, baina, horrek ez du esan nahi ez denik garrantzitsua. Haur Hezkuntzako etapan arrazakeria bezalako jarrerak ez dira ohikoak, haurra normalean oraindik ez duelako jarrera arrazista bat bereganatzen, baina, Lehen Hezkuntzako etapara salto egitean aurreiritziak eta komentario arrazistak has daitezke, beraz, adin egokia da hori geldiarazten ahalegintzeko. Ondorioz, Lehen Hezkuntzako irakasleen figura ezagutzea da lan honen alderdi garrantzitsua.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Arrazakeriaren garapena

Arrazakeria diskriminazio mota bat da, non arraza ezaugarriengatik egituratzen den, hau da, gizabanako edota talde bati egotzitako arraza atxikipenen ondorioz, sortutako bereizketa bat da (Restrepo, 2008). Arrazakeria bera, modu ezberdinetan islatzen da egunerokotasunean, hori dela eta, arrazakeria fenomeno konplexu bat bezala aurkezten du Terrenek (2002). Elementu ezberdinak aurkitzen dira, modu isolatu zein konbinatu batean agertzen direnak, esaterako xenofobia bezalako sentimenduak, estereotipoak, aurreiritzietatik eratorritako jarrerak, segregazioa edota indarkeria.

Hala ere, arrazakeria diskriminazio mota bat bezala aurkeztu arren, aurreiritzi eta diskriminazioaren arteko ezberdintasuna kontuan izan behar da. Hurrenez hurren, bata norberaren baitan dagoen uste edo epai osoa da, eta bestea, publikoki ematen den ekintza bat. Segatok (2017) aipatzen duen moduan, soilik bigarrena izango litzateke legearen aurrean prozesagarria. Baina intimitatean eraikitzen diren aurreiritzi horiek, pentsaeran finkatzen direnak, diskriminazioa publikoki gauzatzea eragiten dutenak dira, azkenean desoreka hori naturala balitz bezala onartuz (Segato, 2017).

Horrez gain, arrazakeria askotan diskriminazio ezberdinekin lotu izan da, hau da, arraza diskriminazioa klase, hizkuntza edota diskriminazio geografikoarekin elkartu izan da, gizarteak aldagai ezberdinak dituelako beregain hartuta, beraz, jendeak gehienetan zapalkuntza arrazoi ezberdinengatik gauzatzen du (Restrepo, 2008), nahiz eta azken finean, guztia multzo berean sar daitekeen.

Kontuan hartu behar da arrazakeria mota ezberdinak daudela. Segatok (2017) gizartean gehien errepikatzen diren jarrera arrazistak azaltzen ditu. Batetik, arrazakeria axiologikoa, balio eta sinesmen esplizituen multzo baten bitartez ematen dira, hauek negatiboak edota positiboak izan daitezke. Talde etniko edota azal kolorearen arabera izan ohi dira balio eta sinesmen hauek. Bestetik, arrazakeria politikoa, talde politikoak sortzeko oinarri bezala balio du eta hauek, arrazializatuak diren pertsonen aurka joan ohi dira. Adibide gisa, *Kuklux-Klan* Estatu Batuetan, edota Australiako inmigrazioaren aurkako taldeak, *Australian National Action*. Iberoamerikan, esaterako, horrelako mugimendu haundirik ez da ematen, baina *skinhead* edota talde neo-naziak ageri dira, gehienetan internet bezalako plataformak erabiliz. Beste arrazakeria mota bat arrazakeria emotiboa da, beste arraza bateko pertsonetik beldurra edota gorrotoa izatea. Segatok (2017) adibide bezala jartzen du igogailuan txuria ez den pertsona batekin egotean sortzen den beldurra dela arrazakeria

emotiboa. Eta azkenik, arrazakeria automatikoa, kulturalki ezarria dagoen eta naturalizat jotzen den jokabidea da, talde arrazializatuak pertsonak balio berezia jasaten dute. Arrazakeria mota hau sinesmen sakon eta sustraituen parte da. Adibidez gisa, irakasleak hasieratik argi izatea ikasle beltz bat ez dela adimentsua, eta ondorioz, behar duen arreta ez eskaintzea.

Hauek dira, egun gehien ematen diren jokabideak, baina esan den bezala, autore batzuek aipatzen dute egun ezagutzen dugun arrazakeria, arrazakeria “berria” dela. Arrazakeria modernoa Estatu Batuetatik Europara hedatu zela esan izan da (Javaloy, 1994). Ildo horretan, Van Dijk-ek (2005) arrazakeria “berria” “tradizionalarekin” alderatzen du. Berak dio garai batean esklabotasuna, segregazioa ikusgarria, *Apartheid*, lintxamenduak... ematen zirela, ikusgarriak oso gizarte osoan. Baina, aurreko hau guztia alde batera utzi zenean, arrazakeria “berriari” lekua egin zitzaion. Barkerrek (1981, apud Van Dijk, 2005) esan zuenez, arrazakeria errespetagarria eta demokratikoa izatera igaro da, eta horrela, hasiera batetik arrazismoa denik ere ukatzen da. Ikuspegi horren baitan, talde arrazializatuak ez dira gutxiago, soilik ezberdinak.

Ematen diren jarrera arrazistak, kalean emateaz gain, komunikabideetan ere ematen direla aipatzen du Van Dijk-ek (1993, apud Van Dijk, 2005). Jokabide hauek guztiak, eguneroko elkarrizketetan, artikuluetan, prentsan, legeetan... zabaldu eta baieztatzen dira, hitz “soil” batzuk bezala, arrazakeria “zaharrenekin” alderatuz gero. Baina, honek guztiak eragin berbera du, hots, taldeak baztertzen eta alboratzen ditu. Are gehiago, Van Dijk-ek (2005) dio min gehiago egin dezaketela, gizarteak “naturalizat” edota “normalizat” ikusten dituelako. Hala ere, egun ematen den arrazakeria ez da honelakoa bakarrik, garai batean egunerokoan ikusten ziren egoera bortitz horiek ere gaur egun ageri dira.

Aipatutakoaz gain, Segatok (2017) arrazismo estrukturala eta instituzionala ezberdintzen ditu, eta hauek biak gizartean nola erakusten diren azaltzen du. Arrazismo estrukturala arraza eta klasea bateratzen duten balio zein praktika ezberdinak dira, non pertsona arrazializatuak autoritate eta ospe gutxiko lan postuetan jartzen diren, eta gutxien ordaintzen diren lanbideetan. Aldiz, arrazismo instituzionala, desabantailak erreproduzitzen dituzten praktika instituzionalak dira, arrazializatuak diren pertsonen edota kolektiboen eraginez. Arrazismo hau baztertze mekanismo legal bat izan daiteke, baina inola ere ez etikoa.

Hala ere, Osuna eta del Olmok (2019) azaltzen duten moduan, jokabide arrazistak gure gizartean nola ageri diren ulertzeko *iceberg* bat irudikatzea da hoberena. Zati ikusgarriak (*iceberg*-aren zatirik txikiena), irainak, erasoak... ageri dira. Aldiz, ur azpian dagoen zatian

(zatirik handiena) botereak eta pribilegioak daude. Hauek biek, botereak eta pribilegioak, gehiengoari eragiten diote, boterean dagoen taldeari. Osuna eta del Olmok (2019) "pribilegio ikusezina" bezala izendatzen dute. Segatok (2017) honekin guztiarekin bat egiten duen ideia bat plazaratzen du, finean adierazi nahi duena da zapaldua den gauza bakoitzak irabazten ateratzen den beste gauza bat sortzen duela, hots, "Toda exclusión es la otra cara del privilegio" (Segato, 2017: 47).

Jerezek (2018) ere honen inguruan hausnartzen du. Berak dio pribilegioak ematen direla pertsona batek abantailak dituen beste pertsona baten aurrean, eta hauek onartu partez, naturalizat hartzen direla, azkenean biktimaren desabantailak azpimarratuz. Hau guztia, arrazismo pribilegiatua bezala izendatzen du. Azkenean, biztanleriaren zati batek, hasiera batetik, esan bezala, abantailak ditu, eta hau guztia, hezkuntza sisteman islatzen da, estereotipo eta etnizitateaz baliatuz.

Azken puntu honetan, hezkuntza sistema aipatuta, sistemak eta eskolak zer nolako harremana duten aztertzea egokia litzateke. Caicedok eta Castilok (2015) Michel Appleren (1986) hitzak azaltzen dituzte sistema eta hezkuntzaren arteko harreman zuzena azaltzeko. Beraiek diote, hezkuntza politika dela, beraz, Curriculumean ideologia bat sortu eta birsortzen dela, beti botere ekonomiko eta politikoa duten taldeena izanik. Azken finean, bakoitzaren jatorrizko ezagutza herrikoia alde batera utziz eta bazterketa bat emanez (Apple, 1986, apud Caicedo eta Castillo, 2015).

2.2. Familia eta eskola

Hezkuntza sistemaren parte hainbat pertsona talde dira, esaterako, familiak, haurrak, irakasleak... Hauek guztiak gizarteko jarrera ezberdinen erantzule dira, esaterako, jarrera arrazistena. Eskolaren oinarri handi bat dira familiak, hauek direlako hurren lehen sozializazioko partaideak, beraz, jarrera ezberdinen erakusle, aurrerago eskolan erreproduzitzen.

Lehenik eta behin, migratu duten familien esperientzia anitzen inguruan hitz egingo da, hauen egoera ezberdinen inguruan hausnartzekotan. Horrez gain, "autoktonoak" diren familien aurreiritzi zein jarrerak aztertuko dira, eta hauek hurrengan duten eragin zuzena. Azkenik, familia eta eskolaren arteko harremana ere ezagutaraziko da, honi lotuta, harreman horretako figura garrantzitsu bat kontuan hartuz, irakaslea.

Migratu duten familia bakoitzak esperientzia ezberdina bizi du hainbat faktore ezberdinengatik, esaterako, familia osaeragatik, karga emozionalagatik, akulturazio estresagatik... (Barquín, 2010). Familia hauen egitura, berezia izan ohi da besteekin alderatuz gero, banaketa bat edota berregituratze bat ematen delako. Prozesu honetan haurrak rol tradizionalen apurketa bat bizi izaten du, askotan, ama lanean dagoelako eta aita langabezia, edota haurra bera izatea gurasoei irakatsi behar dien pertsona, "hizkuntzarekin" trebeena haurra delako (Terrén eta Carrasco, 2007). Hau da, haur batentzat ohikoak ez diren prozesuak bizi ditu haurrak emozionalki gogorra den une batean.

Terrén eta Carrascok (2007) argi eta garbi azaltzen dute familia hauen bizitza zailtasunez josita dagoela, hasiera hasieratik, Smart eta Smartek (1995, apud Terrén eta Carrasco, 2007) izendatutako "estrés de la aculturación" delakoa bizi dutelako, galera sentazioa, desorientazioa, konpetentzia kultural baten falta, hizkuntza berria, gizarteko arauen ikasketa... Azken finean, familia askoren esfortzu guztia (jaioterria uztearena) beraien haurren etorkizunari begirakoa da, hau da, askok eta askok sakrifizio handia egin dute haurren hezkuntzagatik. Terrén eta Carrascoren (2007) elkarrizketatu batek azaldu zuen migrazio-proiektuaren arrakasta bere seme-alaben arrakasta hezkuntzan ematen zenean gauzatuko zela. Beraz, familia hauentzat guztientzat hezkuntza sistema oso garrantzitsua da.

Aipatutako "estrés de la aculturación" horretan, familia askok, gehienetan gurasoek, jarrera meritokratiko bat bereganatzen dute, askotan, nahi asimilazionista batekin batera (Terrén eta Carrasco, 2007). Eta nahi asimilazionista horretan beraien kulturaren bazterketa bat eman ohi da, familiek amankomunean izateko zerbait nahi dutelako, izan hizkuntza, erlijioa, elikadura... Beraz, oso barneratutako jarrera bat da familia askoren artean. Horrela, askotan balantzan jartzen dituzte jatorrizkoak diren beraien ama-hizkuntza, kultura, ohiturak... Seme-alabak babesteko helburuarekin, aukeraketa bat egiten duten bakoitzean beste zerbait uzten dute atzean, beren bizi proiektutik kanpo (Terrén eta Carrasco, 2007).

Atzerritik iritsitako familien egokitze-prozesua erraza ez izan arren, gizarteak berak ez du bidea xamurragoa egiten, are gutxiago ikastetxeko parte diren familia batzuek. Ikasle berrien etorrerarekin batera, immigranteen etiketa zabaltzen joaten da eskoletan, eta gehien bat familietan (azken hauetan ideia ezberdinak zabalduz). Hedabide ezberdinek zabaltzen eta finkatzen dituzten estereotipoen ondorioz (Segato, 2017), guraso atzerritarren umeei "gauza txarrak" egiten dituztela uste ohi da (Terrén eta Carrasco, 2007). Honi lotuta, zenbait gurasok jatorriaren arabera bereizketa sumatzen dute, hau da, jokabidea aldatu egiten dela haiekiko (Terrén eta Carrasco, 2007). Adibide gisa, marokoarren egoera azaltzen zuten, aita beltz batek

elkarrizketan aipatzen zuen marrokiarrek beraiek baino arazo gehiago izaten dituztela ,11-M eta 11-S – a bezalako gertakarien ostean areagotuak (Terrén eta Carrasco, 2007).

Amelia Barquínek (2010) ere hauetako ideia batzuekin bat egiten du, izan ere, etorkinen inguruan mesfidantza, beldur eta kezka ugari zabaldu direla dio. Hezkuntza kalitatea jaitsi dela, euskal kulturarekiko beraien jarrera ez dela egokia, ez direla ondo integratzen... Ideia horiek gizartean finkatuta dauden aldetik, umeengan ere ager daitezke. Bestalde, Barquínek (2010) segregazioaren inguruan ere mintzatzen du. Berak dio, Adela Cortinaren ideia hartuz, aporofobiaren (hau da, txiroekiko fobia) ondorioz guraso autoktono batzuk seme-alabak eskoletatik ateratzen dituztela, azkenean, auzoko eskolak eskola “guettoak” bihurtuz. Hortaz, segregazio horren eragile nagusiak familia autoktonoak dira. Nueva Yorken egin ziren elkarrizketa batzuetan, Simms eta Talberten eskutik (2019, apud Hernandez, 2020), guraso autoktono horiek aipatzen zuten ez daudela segregazioaren alde, baina beraiek bermatu nahi duten gauza bakarra dela beraien haurrak eskola hobereanean egotea. “Baina” horiek guztiek eragiten dute amaierako emaitza banatzailea; alegia, segregazioa.

Zentzu horretan, familien jarrera arrazistak beraien haurrengan txertatzen doaz poliki; erritmo azkarra ez izan arren, betirako sustraitzen direnak dira. Greathous eta bestek (2021) dioenez, hainbat ikerketak erakutsi dute haur asko ohartzen direla arraza ezaugarrien ezberdintasunez adin goiztiar batetik. Eta ohartzeaz gain, bazterketak ere ematen direla jolasetan. Esan bezala, honen guztiaren arrazoia etxea edota familia ere bada, bertako ingurugiroa arrazista izanez gero, haurrak bere lehentasunak arraza ezaugarrien arabera eraikiko dituelako (Terrén, 2002). Beraz, esan daiteke familiek, hezkuntza instituzioekin batera, lan garrantzitsua dutela ikasleen arten harreman orekatuak eratzeko orduan, errespetuan oinarritzen direnak, non ezberdintasunak zerbait positibo bezala aurkezten diren (Greathouse et al., 2021).

Gainera, hainbat autorek dioten bezala, garrantzitsua da eskolak bere barne planak ondo zehaztuta izatea ondorio txarrik ez izateko luzera begira. Hau da, ematen diren segregazio egoera horiek eta gizarte hautsi bat saihesteko, Hernandezek (2020) dio politika positiboak eraikitzen ez badira arraza-integratzearako edo integrazioa sozioekonomiko, segregazio handia eman daitekeela. Bazzacok (2008) ere honi egiten dio erreferentzia eskola mailan, are gehiago, aipatzen du eskola batean etorkinen kopurua handia izanez gero, plan zehatz batzuk eraiki behar direla, bazterketa saihesteko. Barquínek (2010) ere irakasle askoren nahia azpimarratzen du, alde zuzenetik harrera planak eraikitzeke eta ikasle etorri berriei jarraipen egoki bat egiteko, irakasleak inprobisazio lanetan ez jarduteko.

Dena dela, etorri berri den familiaren esperientzia, legeetatik kanpo, bestelakoa da, Terrén eta Carrascoren (2007) elkarrizketak kontuan hartuta. Nahiz eta familia batzuen helburua ez izan haurren hezkuntza, iritzi positibo bat eraiki izan dela eskolaratzearen inguruan, honek guztiak migrazio-proiektua luzaraztea eraginez, nahiz eta hasieran egonaldi labur bat egiteko nahia egon. Honi lotuta, harrera emozional baten eginkizuna ere egozten zaio eskolari, askotan hezkuntzarekin zerikusirik ez duten gaien inguruan hitz egiteko lekua delako. Arrazoi hau bera da askotan atzerritarrak diren familiak eskolako guraso elkartean sartzeko arrazoia izatea, etorri berriak diren familiei harrera egoki bat egiteko.

Hori jakinda ere, familiek ezberdintasun batzuk ere aurkitzen dituzte harrera gizarteko hezkuntza sistemaren inguruan. Elkarrizketatu batzuek diote autoritatea, diziplina eta errespetua oso ezberdin lantzen direla jatorrizko hezkuntza sistemarekin alderatuz gero. Honi lotzen diote Espainiako sistema oso lehiakorra eta estresagarria dela, beraz, hasierako prozesua zailtzen dutela diote (Terrén eta Carrasco, 2007). Hortaz, azpimarratu behar da hezkuntza sistemak, eta zehazki eskolek, dituzten mugak gizarte zatikatua eraikitzeo arriskua elikatzen dutela (Bazzaco, 2008).

2.3. Irakaslearen rola

Ikasturtea hasita haur asko heltzen dira eskoletara hezkuntza sisteman esperientzia ezberdinak izanik, esaterako, ikasle berantiar bat izatea edota jatorrizko herrian eskolatzea oso ezberdina izatea. Honek guztiak, ikasgela barruan, eta noski eskolan, talde heterogeneoak sortzea eragiten du (Barquín, 2010). Irakasleak honi guztiari aurre egin behar dio ikasgelaren kudeaketa egokia eginez, baina irakasleak honen aurrean prestatuta al daude? Nahikoa baliabide al dituzte? Edo jarrera arrazistak erreproduzitzen dira ikasgelan? Eta familiekiko harremana nolakoa da? Ikasle etorri berrien edota hemen jaio direnen identitate plurala lantzen al dute? Irakaslearen eginkizunak edota betebeharrak asko dira hezkuntza sisteman, eta gehien bat ikasgela barruan, beraz, irakasleak hartzen duen jokabidea garrantzitsua da (Barquín, 2009).

Hasteko eta behin, irakasleek etorri berri diren ikasleekiko duten jarreraren inguruan hitz egingo dugu. Barquínek (2010) adierazten du irakasle askorentzat ikasle berriak orokorrean zailtasun bat direla, bilatzen ez diren ikasleak direlako, zehazki eskola mailan entzuten den iritzi bat da. Honi guztiari gehitu behar zaio, aurretik aipatu bezala, hainbat familiengan eta irakasleengan mesfidantza eta beldurra sortu dela etorkinen inguruan. Sentipen horiek gizartean eta eskolan zabaldua daudenez, umeen eta familien harreraren eragiten dute, kaltea eginez hauen etorreran.

Hala ere, irakasle guztiek ez dute horrelako jokabidea izaten etorri berriak diren ikasleekin eta hauen familiekin. Badira, jakina, egoerarekin sentsibilizatuta dauden irakasleak. Horiek, maiz, ikasleen arteko aukeren desoreka gaindiezin bezala sumatzen dute, hasieran zehaztutako arrazismo instituzionala dela eta. Honen ondorioz, aurreiritzirik gabeko irakasle batek ere, egoerarekin guztiz sentsibilizatuta egon arren, bere ikasgelan diskriminazioa emango da, aurretik zehaztutako pribilegio batzuen ondorioz (Terrén, 2002).

Aniztasuna aberastasuna da, etorkinak eskolara etortzeak alderdi positiboa du eta ikasle guztiak batzen badira ikasgelako eta eskolako egoera guztiz aldatzen da, finean, gizarteko ehuneko bat aldatuz (Barquín, 2010). Barquínek (2010) dio irakasle asko ohartzen direla ikasle etorri berrien aurrean egokitu egin behar direla, neurri berriak hartuz, eta irakasle onaren zeregina horixe dela nabarmentzen du, zailtasunen aurrean bideak bilatzea. Argi dago irakasleak egunerokotasunean zailtasun ugari dituela, baina askotan, ikasle asko baztertzen dira bidean “zailtasun” bezala ikusten direlako. Are gehiago, honelako egoera urtero ia ikastetxe guztietan bizi da, beraz, arrazoi gehiago honen aurrean behar bezala jokatzeko, ikasle zein irakasle guztiek badaukatelako zer ikasi beste guztiengandik (Barquín, 2010).

Dena dela, irakasle askok familiekiko ere aurreiritziak dituzte, eskolan parte-hartzeari dagokionez. Argi dago gurasoen presentzia eskolan garrantzitsua dela, baina eskolako familia guztien parte hartzea nahikoa al da? Behar dena ote da? Askotan etorkinen familiei egozten zaie kritika hau, baina familia “autoktonoen” parte hartzea nahikoa al da? Terrén eta Carrascok (2007) aipatzen dute ikastetxetan parte hartzeko hainbat modu daudela, batzuk ikusgarriagoak eta beste batzuk, aldiz, ez hain ikusgarriak. Adibide gisa, AMPA, ikastaroak, batzarrak... aipatzen dituzte ikusgarri bezala, baina etxean ematen den motibazioa edota egiten den esfortzua ikusgaitz bezala sailkatzen dituzte. Etorkinen familiak lehenengo horretan zailtasun gehiago izaten dituztela aipatzen dute, gehien bat gaitasun komunikatiboetarako dagokienez. Familia eta eskolaren/irakaslearen artean komunikazioa ez da beti behar bezalakoa, eta gainera, familia asko dolu fasea jasaten ari dira. Eta irakasleek honi aurre egiteko baliabide falta sumatzen dute, behar bezala erantzuteko gehien bat (Barquín, 2010).

Esan bezala, baliabide faltak kezka sorrarazten du irakasle askoren artean, eta maiz uste da sentimendu xenofoboak direla etorkinen seme-alabak “onartzeko” gogo falta horren arrazoa. Halere, Barquínek (2010) dio bizi dituzten baldintza zailei egoki erantzuteko irakasleek duten baliabide falta dela arrazoirik handiena, eta noski, prestakuntza falta. Azken honekin lotuz, Riedemann eta Stefanik (2015) aipatu zuten arrazista ez den hezkuntza bat jasotzen lehenak irakasleak izan beharko lirakeela, hauek direlako eredu, ikasle askoren

eredu. Edonola ere, etorkinen eskolatzeak agerian uzten ditu gizarteko eta eskolako zenbait erronka (Barquín, 2010; Bazzaco, 2008), beraz, irakasle asko ohartzen dira egiten duten hori aldatu egin behar dela; finean, eskola mailako aldaketa bat eman behar dela bai metodologiari dagokionez zein antolaketari.

2.4. Identitate pluralaren garrantzia

Eskola askotan etorkinen seme-alabak ezberdin bezala kontsideratzen dituzte, zehazki ez dituzte talde/komunitate berean sartzen, batzuek alde batetik eta besteak beste aldetik, elkarketarik egin gabe (Barquín, 2009). Beraz, hau kontuan izanda ikus dezakegu identitatearen gaia erabakigarria dela ikasgeletan. Barquinek dio identitatea haurtzaroan eraikitzen hasten dela, beraz, irakaslea (eta familia) d(ir)ela haur horren ispilua. Hau kontuan izanda, irakasleak argi izan behar du, eskola inklusiboaren ildo jarraituz, haur bakoitza bakarra dela, norbanako bakoitzak bere ezaugarriak dituela eta eskolak bakoitza den bezala onartu behar duela (Barquín, 2009).

Hori horrela, irakasleak ikasleei bidea erraztu behar die, beraien identitate guztiak onartuz eta hauei lekua eginez, hau guztia partekatuz gero, gizarte kohesionatu bat eraikitzen da (Barquín, 2009). Barquinek (2015) aipatzen du kultura-aniztasunaren txertaketa ez dela irakaslearen eginkizunetan sartzen, aniztasun hori ikasleek beraiek dakarte, beraz, irakaslearen lana ikaslea antzematea da, zer diren erakutsiz eta garrantzia emanez, horretarako beraien denbora eta espazioa eman behar zaie behar bezala azaltzeko (Besalú, 2006, apud Barquín, 2015).

Garrantzitsua da oso, ikasle bakoitzaren kultur ezaugarriak kontuan hartzea, bai familia eta jatorrizko taldearen bizitza ikasgelan lantzea, eta irakaslearen eta ikaskideen artean modu positibo batean onartzea. Kultura bakoitzari, identitate bakoitzari lekua egiteko hainbat modu ezberdin aipatzen ditu Barquinek (2015), esaterako familiari argitu ama-hizkuntza ez dutela baztertu behar, guztiz kontrakoa, etxean ahalik eta gehien lantzea bultzatu behar dio irakasleak familiari. Bestalde, hizkuntza/kultura bakoitzari ikastetxean presentzia ematea, bai poemak bitartez, abestiak, kartelak... ikasleen ama-hizkuntzei leku bat emanez.

Aholku gisa, Barquinek (2009) dio eskolak ikaslearen kulturei, direnak direla, utzi behar diela eremua, are gehiago eta esan bezala, familiei beraien ama-hizkuntza ez baztertzeko hautua egin behar dutela. Hainbat ikerketek zehaztu dute ama-hizkuntza ondo landu eta modu egoki batean sustraituz gero, bigarren hizkuntzak ikasterako orduan erraztasun gehiago

egongo direla, nahiz eta irakasle askoren artean hizkuntza bakarra (eskolako hizkuntza) lantzea den helburu bakarra (Barquín, 2015).

3. HELBURUAK

GrAL honen helburu nagusiak dira irakaslearen ikuspuntua eta praktika ezagutzea eskolaren baitan antzeman ohi den arrazakeriarekiko. Gradu amaieran eta praktikaldien ostean, jardun profesionalean bete-betean murgildu aurretik, beharrezkoa ikusten dut irakasleen ikuspuntu ezberdinak aztertzea eta egungo errealitatea ezagutzea lehen pertsonan bizi dutenen bitartez.

Lehenik eta behin, irakasleek arrazakeriaren eta kulturartekotasunaren inguruko zein ideiak dituzten aztertzea dut helburu. Askotan ezkutuan izaten diren edo hausnarketa sakonik egin gabeko ideiak daude profesional horiengan, beraz, nire helburua hauen berri izatea da eta irakasle bakoitzak hausnartzeko momentu bat izatea. Errealitate ezberdina duten irakasleen berri izateko.

Aurrekoarekin lotura izan arren, sakontasun gehiago duen helburu bat da honako hau. Ikasle etorkinekiko edota guraso etorkinak dituzten ikasleekiko, eta noski, hauen familiekiko irakasleak dituzten aurreikuspenak eta bizipenak aztertzea dut xede. Ikasle baten atzean gehienetan familia bat dago, egoera ezberdinekin. Beraz, irakasleak bai ikasle, bai familiaren aurrean zer nolako esperientzia ezberdin bizi dituen, eta bertan dauden uste ezberdinak ezagutzea dut helburu.

Ideiak, aurreikuspenak eta bizipenak aztertzeaz gain, irakasleek ikasgela barruan eta ikastetxe mailan dituzten beharrak eta baliabideak aztertzea izango da nire hirugarren helburua. Hezkuntza sistematik bideratutako baliabideak zein baliabide pertsonalak ezagutzeko helburuarekin, errealitate ezberdinak aztertuko dira.

Azken helburuak hezkuntzarekin lotura zuzena duen arren, eskola eraikinetik kanpo gelditzen da. Azken batean, gizartea hezkuntza sisteman nola islatzen den aztertuko dugulako eta bestetik, gizartean dauden joera ezberdinak ikusi, betiere irakaslearen ikuspuntu batetik.

4. DATU BILKETA

4.1. Parte-hartzaileak

Guztira 5 irakaslek hartu dute parte elkarrizketetan, guztiak ere Lehen Hezkuntzan dabilzanak oraintxe lanean, E1 elkarrizketatua izan ezik. Elkarrizketak bi taldetan egin genituen, alde batetik, 3 irakasle gazteenak elkartu genituen, 24-25 urtekoak (E1, E2 eta E3), eta bestetik, gainerako biak (G4 eta E5) 60 eta 43 urtekoak, hurrenez hurren. Ondorengo taulan jaso dira parte-hartzaile bakoitzaren datu zehatzak:

Parte-hartzailea	Adina (urteak)	Sexua	Lan urteak	Lan egindako eskolak	Azken eskola	Sarea	Aniztasun kulturala
E1	25	E	1	Beasain	Beasain	Itunpeko kristaua	Ez.
E2	24	E	1	Lazkao	Lazkao	Itunpekoa (ikastola)	Bai.
E3	24	E	4/5 hilabete	Aoiz + ordezkapen ugari	Aoiz	Publikoa	Bai.
G4	60	G	36	Laudio, Gasteiz, Maeztu, Araia, Billabona, Ereñozu, Gabiri, Zerain eta Zegama	Zegama (30)	Publikoa	Ez.
E5	43	E	18	Lerein, Larraga, Tutera, Etxarri Aranatz eta Zegama	Zegama (4)	Publikoa	Ez.

4.2. Elkarrizketen prozedura

Elkarrizketak taldean egitea erabaki nuen, irakasleek aukera izan zezaten euren artean bizipenak eta iritziak trukatzeko, euren artean ideiak osatuz eta elkar elikatuz. Profil ezberdina duten pertsonak hartzea erabaki nuen. Izan ere, gaia konplexua eta era berean, delikatuarekin, lehenik eta behin nire inguruko hiru irakasle gazte elkarrizketatzea erabaki nuen, jardun profesionalean nolabait ere hasiberriak zirenak. Horrela, alde batetik, E1, E2 eta E3 irakasleak elkartu nituen. Espazio seguru bat eraikitzeke helburuarekin, elkarrizketa eremu lasai batean egin genuen, ahalik eta egoera lasaiena eta konfiantzazkoena eraikitzeke helburuarekin. Hiru

elkarrizketatuak lagun talde berdinekoak zirenez, atera ziren gaiak eta erantzunak oso mamitsuak izan ziren, euren lan esperientzia laburra izan arren. Lehenengo elkarrizketa honetan nahiz eta galdera ia guztiak galdetu, uste baino iraupen luzeagoa izan zuenez, galdera batzuk ekidin behar izan nituen.

Aldiz, bigarren elkarrizketa, G4 eta E5 irakasleei egindakoa, guztiz ezberdina izan zen. Egun, biak Zegamako eskola publikoko irakasleak dira, bata (G4) nire irakaslea izan zen eta besteak (E5) lau urte daramatza bertan. Biek esperientzia luzea dute irakaskuntzan, eta alderdi hori interesgarria zitzaidan, hasiberriekiko nolabaiteko aldea ote zuten alderatzeko aukera ematen zidalako. Elkarrizketa honetan ere konfidantzazko espazio bat eraiki nahi arren, denboraren traba izan genuen, irakasleetako batek klase zuelako jarraian eta hortaz, nahi baino arinago amaitu behar izan genuen. Horrela, galdera askotan ez zen aukerarik egon zehaztasunak sakonki komentatzeko.

Elkarrizketaren egiturari dagokionez, hasierako egitura zehatz bat izan arren, elkarrizketa bakoitzarekin aldaketa sotil batzuk egin ziren, hots, galdera batzuk saihestu edo ezabatu egin ziren aurrez azaldua zegoelako. Elkarrizketaren egitura, hala ere, sei zati nagusietan dago banatua: Informazio pertsonala, kulturartekotasunaren lanketa gela/eskola barruan, segregazioa eskolan, arrazakeriaren garapena, irakasle moduan izandako zailtasunak/erronkak/esperientziak eta azkenik, bestelako gauzak aipatzeko atala. Atal nagusi hauen barruan hainbat galdera edota azpiatal daude, esaterako kulturartekotasunaren lanketa gela/eskola barruan atalean, honetan, sei azpiatal ezberdin daude: Formazioa, harrera, egokitzapena, praktikak, baliabideak eta identitate plurala. Hala ere, eranskinetan (1. Eranskinetan) galdetegiaren egitura guztia ageri da, hasierako galdera guztiak zehaztuz.

Honen harira, emaitzen egituraketa galdetegiaren antzekoa dela aipatu behar da, baina azpiatalak atal nagusi bihurtu dira. Hau da, emaitzak honako atal hauetan banatzen dira nagusiki, formazioa, harrera, egokitzapena, praktika eta aurreikuspenak, baliabide pedagogikoak, identitate plurala, eskola segregazioa, arrazakeriaren garapena eta irakasle gisa izandako esperientziak eta erronkak. Emaitzen egitura, beraz, galdetegiaren estruktura jarraitzen egin da. Bi elkarrizketak grabatu egin ziren audio bidez, ondoren transkribapenak egin eta emaitzak aztertu ahal izateko. Material hori oso-osorik dago eskura 2. eranskinetan.

5. EMAITZAK

5.1. Kultura-artekotasunaren inguruko formazioa

Elkarrizketatuek jaso duten formazioari dagokionez, kontuan hartuta hiru irakaslek unibertsitateko esperientzia gertu dutela, argi geratzen da ikastaro/formakuntza/hitzaldi askorik ez dutela jaso. E1, E2 eta E3k unibertsitate garaian kulturartekotasunaren gaia landu izan arren, gehien bat hizkuntzaren trataerari dagozkionak landu zituzten. Bat egiten du G4k honekin, berak dio ez duela formakuntzarik jaso gai honen inguruan, baina eskolako irakasleren batek jaso izanez gero formakuntza hizkuntzarekin lotutakoak izango zirela.

Aipagarria da esperientzia gehien duten bi irakasleek ez dutela honen inguruko formakuntzarik edota ikastarorik jaso. Zehazki, G4ek dio eskola mailako egokitzapen bat izan zela “poliki-poliki hasi ginen ikasten, integrazio hitza txertatzen”, ikuspegia zabaltzen hasi zirela aitortzen du, autoikaskuntza bat eginez. E3k ere intuizioz lan egin zuela aipatzen du, hasiera batean. Teoria jakin arren, hasteko erramintak falta direla aipatzen du, une oro bilaketak egiten ibili zela dio.

E2k, hala ere, dio ikastola mailan formakuntzak jaso izan dituztela, baina ikuspegi ezberdin batetik, hau da, kulturartekotasunaren trataera nola egin daitekeen azaltzen diela baina “euskara eta gure kultura oinarritzat hartuta”, eta ez horrenbeste jatorrizko kultura horiekiko garapena kontuan hartuta. Honi guztiari, aurrerago ere, atal ezberdinetan erreferentzia egiten diote.

Formakuntzaren atalean, beraz, ikus daiteke elkarrizketatu gazteenak zein helduenak antzeko formakuntza bat jaso dutela, kulturartekotasuna lantzeko bat bera ere ez, baina hizkuntza aniztasunaren inguruko formakuntzak, unibertsitateko irakasgaiak... bai jaso izan dituztela.

5.2. Ikasle iritsi berrien harrera

Atzerritik iritsi berriak diren ikasleen harrerari dagokionez, E3, G4 eta E5ek esperientzia izan dute ikasle baten harrerari dagokionez. Zegamako ikastetxean harrera plan bat dagoela aipatzen du G4k, non agertzen diren hasiera batean eman beharreko pausoak: eskola erakutsi, ikasgela, tutorea eta irakasleak, ikaskideak, zerbitzuak... Ondoren, E5ek ikasgela barruan egin beharreko harrerari egiten dio erreferentzia. Ongi etorria egin ostean, ikasgela barruan arduradun bat jartzen duela aipatzen du, honen egin beharra ikasle berriarekin egotea da, patioan integratzeko, komunerako bidea erakusteko, oro har, ikaskideekin integratzeko. Hala ere, aipatzen du irakasle batek “zer moduz” galdera egin behar duela egunero, prozesua

ondo ote doan ikusteko. E3k ere hasiera batetik elkar ezagutzeari, konfiantza sustatzeari eta lagunak egiteari ematen dio garrantzia.

E1ek irakasle gisa ez bizi izan arren, praktika garaian harrera momentu bat bizi izan zuen. Eskola, ikaskideak aurretik, informatua izan zela aipatu du, baina hala ere, ikaslea etorri zen momentuan, ikaslea bera oso beldurtuta ikusi zuela dio. Horregatik, eskola mailako harrerak baztertzen ditu, prozesua “inbasiboa” dela aipatuz. E1ek ere E5en baliabide berdina aipatzen du, ikasgelan arduradun bat izatea “bide hortan laundu daiken ikasle bat ondón jarri”, eta are gehiago, ikastetxe mailan hizkuntza berdina duten ikasle batekin harremanetan jartzea, hizkuntza itzultzaile bezala, lotura bat egiteko. E1ek ondorioztatzen du harrera bat egin behar dela, baina beti ere, goxotasunetik. Baina praktikan, eta bere hitzetan erantzun eta baliabide falta sumatzen da, irakasleak erramintak dituela aipatu arren, politikoki zuzena den horretara zuzentzen da une oro.

E2k tutorearen betebeharrari egiten dio erreferentzia, “zubi lan hori” egin behar duela aipatuz, esaterako beste irakasleei aurkezteko orduan. Baina E1ek, bere gustuko harrera aipatu arren, tutorearen gain-kargaren inguruan hausnartzen du. Ikasgeletan egun dauden ratioekin, behar eta kasuistika ezberdin ugari daudela dio, eta tutoreak etorri berri den ikasle bati harrera egitean “mila behar uzteituzu alde batea”, tutorea ez dela iristen ondorioztatuz. E3k ere ez ezer egitearen sentsazioa aipatzen du: “...etzea iristen ezerta. Ta karo, denak erdizka uzten baituzu...”

Honen guztiaren jatorria errekurso ezari egozten diete E1, E2 eta E3k, baina, hala ere, E2k dauden errekursoei ere erreferentzia egiten die, hezkuntza sistemaren planteamendua aipatuz. Iritsi berria den ikaslea hasieratik seinalatua dagoela dio, hizkuntza ikas dezan Hizkuntza Indatze Programa (HIPI) jasotzen duela eta normalean ikasgelatik kanpo ateratzen dutela, beraz, berak dio ez dela inklusiboa bere horretan. G4 eta E5ek, aldiz, baliabideei dagokionez, nahikoa daudela aipatzen dute harrera egiterako orduan. Hala ere, herri mailan, Zegaman ematen den zerbitzu publikoari ere erreferentzia egiten diote, eskolaz kanpo euskara ikasteko beharra duten hurrek euskara saioak dituztelako astean bitan. Beraz, hori ere laguntzazkoa dela aipatzen dute.

Elkarrizketatu gazteen artean eta helduagoen artean, harrerari dagokionez, amankomunean dituzten iritzi batzuk ageri dira, baina hala ere, elkarrizketatu gazteenak dira zaintzari eta goxotasunari gehien erreferentzia egiten dietenak. Helduen artean, emakumezkoak erreferentzia egin arren zaintzari, ea ondo dagoen arduratzeari, ez dio besteek bezalako garrantzia ematen. Beraz, esan daiteke, ikaslearen alderdi emozionalari gehiago erreparatzen diotela gaur egungo ikasleek, agian unibertsitatean edota gizarte mailan emozioen lanketa eta hauen garrantzia nagusitzen ari delako.

Baliabideei dagokionez, bi elkarrizketatu helduenak ez dute sumatu baliabide faltarik, nahikoa daudela aipatuz. Aldiz, elkarrizketatu gazteek errekurtsio eza nabaritzen dute, bidean dauden zailtasunak, trabak... Honen arrazoietakoa bat esperientzia izan daiteke, geroz eta esperientzia gehiagorekin erraminta gehiago ikasten dira eta praktikan jarri, baina, hala ere, ikastetxearen errealitateari ere erreparatu daiteke. Elkarrizketatu helduenak herri txiki bateko irakasleak dira, zeinetan etorkinen kopurua ez da oso handia eta gainera herriak berak hizkuntza irakasteko baliabidea eskaintzen du, beraz, "nahikoa" baliabide daudela esaten dutenean, beraien errealitatean kokatu gaitezke. Beste elkarrizketatuek errealitate ezberdinak ikusi dituztenez, bai lanean zein praktikaldietan, agian horri guztiari egiten die erreferentzia.

5.3. Bestelako kultura duten ikasleen egokitzapena

E1, E2 eta E3k aipatzen dute beste kultura bat duten ikasleei eskatzen zaiela egokitzapena egiteko Euskal Herriko kultura abiapuntu harturik, 5.1 atalean aipatutakoaren ildotik. Oinarrizko gauzak daudela aipatzen dituzte zeinak ez diren aldatzen, Euskal Herrian egiten diren festak, ohiturak... hauek guztiak munduan bakarrak balira bezala lantzen direla diote, beste guztiak alde batera utziz. E2k, esaterako, garbi uzten du ikasgelako kultura-aniztasunari erreparatu behar diola irakasleak, eta bertan dauden kultura guztiak identifikatu, bakoitzari beharrezko presentzia eta balioa emateko. Bestalde, honetarako familiarekin harremana izatea oso garrantzitsua dela dio; zehazki, familiei transmititu beharreko lehen mezua beraien kultura eta ama-hizkuntza mantentzea izan beharko litzatekeela dio, eta euskara eta hemengo kultura ezagutzea ondoren. Familia askok desoreka ikusten dute horrelako egokitzapen gogorrekin, "familie eta ikastetxea kontrari balere bezala" (E2) "despropozio bat o kendu eiten zaie beaiena" (E1).

Egokitzapenean ere, harrera prozesuan bezala, hezkuntzaren planteamenduari egiten dio erreferentzia E1ek. Gizarteak atzera pausu bat egin behar duela dio, oinarrizko gauza horiek zalantzan jarritz, baina hala ere, irakasle gisa ikasturtearen planteamendua mugatzailea dela dio. Izan ere, berak dio irakasleak hezkuntzak finkatzen duen erritmoan jarraitu behar duela, eta ikasle berri bat "gaizki esanda, traba bat" (E1) izanez gero, egokitzapen hori haurrak egin behar duela hezkuntza sistemaren planteamendua jarraituz. Eskola bera egokitu beharko litzatekeenean ikaslearen behar eta ezaugarrietara. Baina ezinezkotzat ikusten du egokitzapen hori, lehenengo haurrak bere egokitzapen pertsonala egin beharko duela dio "eta geo ia hasiko da ibilbiden" (E1).

Egokitzapenaren atalean, G4k beste ikuspuntu bat azaltzen du. Berak lan egiten duen testuinguruan, ikasle etorri berriek eskolako egokitzapena oso ondo egiten dutela dio, "arin", herri txikia dela eta, erraztasunak nabaritzen ditu. Eskolako atetik lasai sartzen direnean

seinale ona dela nabarmentzen du, “behintzat eskolara etortzen direnean atean lasai sartzen dia” (G4).

Gazte eta helduen iritzien/erantzunen arteko ezberdintasuna nabaria da ikasleen egokitzapenari dagokionean. Gazteen ustez, egokitzapen prozesua zaila da, ikaslea eta familia hezkuntza sistemaren planteamendura egokitu behar direlako, kultura bat bestearengandik urruntzen delako, bata bestea baino garrantzitsuagoa bihurtuz.... Horrelako egoeren berri dute elkarrizketatu gazteenak, argi utziz lehenengo ikaslearen egokitzapen egokia egin behar dela, erritmoa errespetatuz, eta ondoren ondorengoak egin behar direla. Aldiz, elkarrizketatu helduak, G4ek zehazki, egokitzapena erraz egiten dela azpimarratzen du, lasai egiten dutela egokitzapena. Baina, argi utziz herri txikia denez erraztasunak ikusten dituela. Baina, gauza batek ez du bestea kentzen, hau da, herri txikia izan arren, ikasle etorri berri baten egokitzapena ez du zertan erraza izan behar, beraz, elkarrizketatu honen arrazoietako bat agian eskola horretan bizi izandako esperientzia positiboak izan daitezke.

5.4. Irakasle-gaien praktikak eta aurreikuspenak

Irakasle-gaien praktika garaietan ikasgeletan egin daitezkeen aurre lanketen inguruan mintzatzerakoan, E1, E2 eta E3k garbi adierazi dute aurre lanketa bat daukan edozer gauzak guztia errazten duela, ez soilik irakasleari, bai familia eta haurrari ere. Baina, hala ere, aipatzen dute familia edota egoera batzuetan muga bat egoten dela ezin dena igaro edota pertsonalki ezin dena gainditu, beraz, aurre lanketa bat eginda ere, kasu batzuk zailak direla aipatzen dute “konsziente izanda ez daukeula kriston boterea eztaiz ze egoera aldatzeko” (E1).

Honi guztiari lotuta, elkarrizketatuek irakaslea ikusten dute familien erreferente puntu zuzena, beraz, laguntzeko prest egon behar den figura moduan aipatzen dute. Hala ere, E3k aipatzen du ikasle etorri berria izan zuen momentuan, zuzendaritzan zein beste irakasleei laguntza eskatu ziela eta hauen ahotik honelako komentarioak atera zirela: “beti datoz komentario hoiekin”, etorkinen familiei erreferentzia eginez, eta erantzukizun guztia E3ren gain jartzen. Aldiz, E2k eskolaren aldetik babes handia sentitzen du, familiekin bilerak egiterakoan Pedagogo Terapeutikoaren laguntza izaten duela eta haurraren psikologoarekin harremanetan dagoela une oro.

Eskolaren babesa beharrezkotzat hartzen dute elkarrizketatuek, eta eskolaren aldetik harrera plan bat egotea ere azpimarratzen dute. E1ek azaltzen du harrera plan batek egoera guztiak kontuan hartu ez arren, oinarri bat eraikita egon behar dela. Ondoren dauden beharrei erantzun baina oinarri gisa eskolak eskaintzen duen plana izanik, “un plan de accion” (E1). Hala ere, harrera plana irakasleriaren mugimendu handia dagoen ikastetxetan beharrezkotzat jotzen dute, E3k adibidez, kultura-aniztasun handia dagoen ikastetxeetan finkotasun ezak,

ezegonkortasunak, geroz eta gehiago eragiten duela aipatzen du, ikasleen artean amorrua bezalako sentimenduak agerraraziz, hots, ikasle etorkin kopuru handia dagoen ikastetxetan, ikasle hauek direla amorrua bizi dutenak, huts egin dieten sentsazioa dutelako, irakasleen partetik, hori dio E3k.

E2k dio, atzerritik etorri diren familiek normalean ezegonkortasun handia izaten dutela, bai ekonomikoki, emozionalki, herriratzean... errutina egonkorrena eskola izatea iristen den puntura arte. Beraz, egoera horretan dauden ikasleek finkotasun eza sumatzen badute ikastetxetan, E1ek dio balioa kentzen diotela hezkuntzari, E3rekin bat eginez, frustrazio puntu batetik irakaslearekiko eta hezkuntzarekiko, "min batetik. Ez intentzio txar batetik,...babesleku bat izan partez ba..."(E1).

Hari beretik, finkotasunari garrantzia kendu gabe, ikastetxearen eta herriaren arteko harremana estua izan behar dela aipatzen dute bai E1, E2 eta E3k. Dokumentazio beharretan bideratzeko, gizarte hezitzaileekin... Familiak irakasleari informazioa eskatzerakoan, nora bideratu jakiteko bada ere, herriarekiko kokapen oinarrizko hori eskaintzea inportantea dela diote.

Elkarrizketatuen artean, errealitatean dituzten aurreikuspenak, atzerritik etorri berri edota guraso atzerritarrek dituzten ikasleekiko ezberdinak direla ikus daiteke, hau da, elkarrizketatu bakoitzak iritzi ezberdin bat du honen inguruan. Esaterako, G4 zein E5en kasuan, irakasle gisa ikasle guztiak berdintasun osoz hartzen dituztela aitortzen dute. Hizkuntza lan gehiago dela aipatu arren G4ek, E5ek dio irakaslearen funtzioa bete behar dela honen aurrean "Baino horretarako gaude, eta horretarako dauzkeu laguntza hoiek" (E5).

E1ek "pena haundiz" aitortzen du kulturarekiko, gurasoen jarrerarekiko, sinesmen ezberdinengatik... aurreiritzi batzuk eraikitzen direla, finean ikasleari eraginez. E2k, aldiz, aurreikuspenetan umearen adinak eragina duela dio, zailagoa omen hamar urteko haur bat egokitzea hiru urtekoa baino, beraz, hor umearekiko sortzen diren beldurrak aurreiritzi batzuk eraikitzea bideratzen duela dio. E3ren aurreikuspena pena-puntu batetik abiatzen da, "lehenengo momentun ahule bezela ikuset", berak dio ez direla pertsona gaixoak, laguntza behar izatekotan hor egon behar dela, baina une oro gehiegizko laguntza ematearen aurreikuspena sumatzen du bere buruan. Beraz, nolabait ere atzerritarren umeak babesgabe ikusi eta irakasleengan jarrera paternalistak ageri ohi direla ikus daiteke.

Familiarekin izandako hartu emanak ere haurrarekiko dagoen begirada aldatzen duela aipatzen dute bai E1ek eta E3k. Beldurra bezalako sentimenduak, kezka, zer egin ez jakitea bezalako egoeretan sentitu izan da E3. E1en iritziak, haur batengan aurreiritzi horiekin gerturatuz gero, nahiz eta ahoz hori ez transmititu, nahi edo ez nahi mezua haurrarengana iristen dela aitortzen du "la zeharka mezu hori badijo ume horrena" (E1). Hortaz, irakasleak

umearengan sortu duen aurreikuspena penazkoa eta ahultasunezkoa bada, zeharka horixe bera transmitituko dio berari ere. Pigmalion efektuarekin lotura zuzena izango luke horrek.

Gazteen eta helduen artean, ikasleekiko aurreikuspenei dagokionez, iritziei erreparatuz, ezberdintasun nagusi bat ageri da. Alde batetik, helduek diote ikasle guztiak berdina direla, guztiak jarrera berdina izaten dela. Bestetik, gazteek onartzen dute ikasle horrekiko, familiarekiko eta kulturarekiko aurreiritziek beraien jarreran aldaketak eragin ditzakeela. Kritikoki hitz egiten dute hiru elkarrizketatu hauek, egoeraz jabetzen dira eta honen arriskuaz, beraz, beraien jarreraz hausnartzen dute, zer nolako eragina izan dezaketen aztertzen dute, aldiz, helduek politikoki zuzena den erantzun bat ematen dute, guztiak berdina dira. Agian errealitatean gauzatzen den jarrera da bi hauena, baina elkarrizketan zehar emandako erantzunak erreparatuz, argi uzten dute, esandako erantzun hau politikoki zuzena dela.

5.5. Baliabide pedagogikoak

Baliabideei dagokionez, elkarrizketatutako irakasleen iritziz, hezkuntza sistematik traba edota betekizun asko daude. Beraz, nabarmentzen dute horiekin guztiak oso zaila egiten dela baliabideak eskatzea, eta ez soilik hezitzaile bat, E2k dio HIPI eta logopedak eskatzeko ere baldintza zehatz batzuk bete behar direla. Are gehiago, diote ikasgelako kultura-aniztasunari edota ikasle etorri berriari ahalik eta eremu onena emateko baliabideak ez direla ematen, soilik akademiko atzerapenen bat edota jarrera arazoak izanez gero, bere hitzetan “ez etorri berrie dalako eta laguntza behar dolako” (E2). Horrek agerian jartzen du irakasleen hitzetan iritsi berri izate hutsa ez dela bitartekoz indartzen, nahiz eta umearen egoerak hori eskatu.

Lehentasunak daudela aipatzen du E1ek, ikasle batzuei ematen zaie eta beste batzuei ezegonkortasun familiarraren ondorioz, laguntzak kendu edota ez zaizkiela eskaintzen. Zehazki, azken iritzi horren jatorria da E2ren ikastetxeko egoera batean gertatutakoaren ondorio.

Ikastetxeak dituen baliabideak edota laguntzak bai E1, E2 eta G4k barne antolamenduan moldatzen direla aipatzen dute, “txantxulo” (E1) txikiak eginez edota “dauden baliabideak aldan estrategikonak erabiltzen saiatzen” (G4). G4ren kasuan, irakasle gehiago gustura hartuko lituzkeela aitortzen du, umeenganako arreta zuzenagoa edo hobea izan zedin. Halere, E5ek dio dagoenarekin ere berehala jartzen dutela dena martxan, Zegama bezalako herri batean behintzat, bai.

Guztiak bat egiten dute esaten dutenean eskolaren barne gestioan egokitzen direla emandako baliabideak. Baina, hemen ere, harreraren atalean bezala, elkarrizketatu

helduenak, dagoenarekin nahikoa dela aitortzen dute, berriz, herriaren eta eskolaren tamaina txikiari erreferentzia eginez, errazagoa omen herri txiki batean guztia antolatzea. Ikasle kopuru txikiko eskoletan, edota herri txikietan erraztasunak egon daitezke, baina, irakasle kopurua txikiagoa izan ohi da, beraz, bi elkarrizketatu hauen benetako arrazoiketa eskola txikia delako izan daiteke, baina baita bizi izandako esperientziak edo beharrak bestelakoak izan direlako, gainontzeko elkarrizketatuekin alderatuz gero.

5.6. Identitate plurala

E1, E2 eta E3k behin baino gehiagotan mahai gainean jarri duten gaia izan da gure kultura eta beste kulturen arteko harremanarena. Hori guztia identitate pluralean presente dagoen problematika bezala aurkezten dute. Zehazki, E1ek dio gure kulturara egokitzen diren heinean, atzerriko gurasoak dituzten umeek beraien identitatea/kultura kentzen zaiela nabaritzen du. Nolabait, “hemen zare ta guain hau tokatzen da” (E1), eskolan horrelako esaldiak entzun izan dituela aipatzen du. Eta kasu horietan, G4k aitortzen du askotan ahaztu egiten dela bi kulturei presentzia egitea, etxeko jatorrizko kultura ere aintzat hartuta, haur horiek euskalduntzat hartzen dituztelako “hemen jaio direnez” (G4). E5ek ere aipatzen du beste kultura ahaztu egiten dela, autoktonoei bezalako trataera ematen zaielako. Eskola mailan diote ez dutela arreta berezirik ematen kultura ezberdinen arteko erlazioari eta garapenari. Ideia eta praktika horiek, asimilazioarekin lotura estua dutela nabarmendu beharra dago, ondorio negatiboak dakartzana ikaslearentzat maila ezberdinetan (emozionalki, linguistikoki, akademikoki, etab.). Coelhok (2006) dio, etorkin eta gutxiengoa diren familia askok, gehiengoa diren horien pausuak jarraitzeko beharra sentitzen dutela, eta hau guztia, garai batean hezkuntza programen bitartez bultzatu izan zen. Beraz, ildo beretik jarraituz, Barquinek (2006) aipatzen du, ezin dela integrazioaz hitz egin horrelako kasuetan, autoktonoei bezalako trataera emanez, hasieratik identitate bakar bat bezala euskalduna hautatuz, asimilazionismoa bezalako gertaerak ematen direla.

Hala ere, G4ek, eskolan identitate pluralari ematen zaion presentziaz galdetzean, aurreko erantzunari, zeharka bada ere, aipatzen du ez dela beharrezkoa lantzea ikasgeletan ikasleen kulturak, familia bakoitzak, norberaren etxean lantzen dutelako, hau da, lan hori, norberaren kultura mantentzearena eskolaz kanpo ematen dela aipatzen du. Beraz, gai honekiko bere iritzia zalantzazkoa da, alde batetik aitortzen duelako ikasleen kulturei ikasgeletan presentzia ematen gauza asko egin daitezkeela, baina, bestetik, etxe bakoitzean lantzen den gauza bat dela azpimarratzen du.

E3ren kasuan, ondorengo egoera ikusi ahal izan zuen. Bi haur hizketan ari ziren, arabieraz, irakasleak ez zuenez ulertzen honako hau esan zuen: “nik ez dizuet ulertzen ordun hitzein edo

euskeraz edo gazteleraz” (E3). E1ek dio gogorra izan behar dela une oro, eskola berri batera sartu, lagunak egiten ari zaren prozesuan, komunikatzen ari zaren bitartean... pertsona batekin hitz egitea lortu eta gainera hizkuntzaren kexa entzutea irakaslearen ahotik, “hitz egin euskeraz” esanez. Agerikoa da umeen jatorrizko hizkuntzarekiko iruzkin horiek ez dutela bat egiten kultura-artekotasunak gelan eduki beharko lukeen leku eta prestigioarekin.

Ilido beretik jarraituz, elkarrizketatuak argi utzi dute kulturartekotasunari dagokionez ez dutela formakuntza handirik jaso, baina hizkuntza trataerari dagokionez zerbait gehiago bai. E3ren kasuan, iraupen laburreko ordezkapen batean, ikasle etorri berri bat izan zuten egonaldia egiten ari zen ikastetxean. Bi eta bost urteko haurrak, ama hizkuntza irakasleen partetik ezezaguna zen, ez zekiten zein zen ere, txikiarekin keinu bidez komunikatzen ziren. Aitak ingelesez hitz egin zuenez, haurrarekin ingelesez hitz egin zuen, honek ulertu zuen baina irakaslearen tutoreak ez zekien ingelesez, beraz, hizkuntza honetako irakaslea sartzan zen batzuetan ikasgelara. Kasu honetan argi ikusten da hizkuntza-aniztasunaren tratamenduaren inguruko formakuntzak jaso izan arren, ekintza eskatzen den momentuan, erantzunak, baliabideak... ongi zer egin ere ez dakiela eskolako hizkuntza menperatzen ez duen haur batekin.

Identitate pluralaren lanketari leku askorik eman ez arren, elkarrizketatuek beharrezkoak diren puntu batzuk markatu dituzte identitate pluralari ikusgarritasun gehiago emateko helburuarekin. Alde batetik, E3, G4 eta E5ek argi dute ikasgelan irakasleak esaten duenarekin gauza asko egin daitezkeela, E5ek dio ingurune edota tutoretza bezalako ikasgaietan, lantzen diren gaiak eta egun bereziak erabiliz erraza dela kultura ezberdinen presentzia egitea, irakasleak beraiek protagonista bihurtuz, esaterako Ramadan garaian, Erdi Aroa lantzerakoan, Aro modernoa... Horrelako aukerez baliatzen da E5 kultura ezberdinei presentzia emateko.

Aldiz, E1 eta E2k beste ikuspuntu batetik bideratu dute ikusgarritasuna handiagotzeko prozesua. Beraien ustez, pausurik garrantzitsuena haurren ama-hizkuntza da, eta aldi berean, kultura egonkorak eta sendoak izatea. Honekin batera, komunikatzerakoan eroso sentiaraztea. Ama-hizkuntza alde batera utziz gero, beste hizkuntzen ikaskuntza kaltetzen duelako, eta azkenean, baita harremanak ere. Zentzu horretan, E2k gogorarazten du “harremanak bizitza direla”. Askotan, euskara eta euskal kulturaren lanketa inposizio batetik egiten dela aipatzen dute, beraz, euskararen transmisioa aldatzeko beharra ikusten dute, betebeharrak bat izatetik ateak zabalduko dizkien zerbait izatera igaro behar duela.

E1ek umeen etxeko kulturari garrantzia handia ematen dio hitz hauetan: “nortasune falta, sensazio hori euki daikie, beaiek e mila bizipen daukie, beste batzuk igual hemen jaiota baino baita badakarre hor memori bat ez? Ta horrei leku bat ein beharra zaio”. Gure ustez, bide

horretatik abiatuko litzateke identitate plurala, etxean jasotakoari norberak bere esperientziatik harrera-gizarteko kultura ere txertatzea.

Beraz, identitate pluralaren lanketari dagokionez, alde batetik ikus daiteke bai elkarrizketatu helduenak, zein gazteetako E3k, hau da, E5, G4 eta E3k ikasleen kultura ezberdinen lanketaren aldekoak direla, baina azaleko presentzia bat emanez. Agian praktikan funtzionatu izan dien baliabide bakarra izan da ariketetan eta azalpenetan adibideak ematea, baina, hala ere, honek ez du esan nahikoa denik ikasleen identitate plurala bermatzeko. Bai E1, zein E2, zerbait haratago doaz, ama hizkuntzari egiten diete erreferentzia, hau da, identitate pluralean hizkuntzari ematen diete garrantzia handia, agian unibertsitateko garaiko ikasketetan jasotako formakuntzari esker izan daiteke.

Beste aldetik, helduen eta gazteen artean nabaritzen den ezberdintasunik handiena kultura asimilazioaren problematikan dago. Gazteenak asimilazionismoaren arriskua ezagutzen dute eta beraien diskurtsoan presente dute, agian, eta esan bezala, unibertsitatean ikasitakoagatik edota bestelako sentsibilizazio bat dutelako, baino, aldiz, helduek kultura asimilazioa gauzatzeko ekintzak bultzatzen dituzte, kontzienteki ez bada ere, kultura bakar bati egiten dietelako lekua, etorri berriei zuzenean “euskalduntzat” hartzen, ondorioz, bertako kultura nagusiari indarra emanez.

5.7. Eskola segregazioa

Eskola segregazioa gaur egun Euskal Herrian agerikoa den problematika bat da. Gehienetan, Barquinek (2017) azaldu bezala, ikastetxe publikoetan ematen da eskola segregazioa, eta aldi berean, hauek dira, hezkuntza publikoa, erantzuna ematen dutenak ikasle etorkinen aurrean.

Elkarrizketatuei eskola segregazioaren inguruan galdetzerakoan bi ildo hartu dira kontuan, alde batetik, honen jatorria non dagoen, zerk edo nork sorrarazten dituen horrelako egoerak gauzatzea, eta bestetik, zein den honen aurrean izan beharreko jarrera edo zein diren egin beharreko aldaketak.

Gurasoen erabakiek, haurrak eskola batean sartu bai edo ez, zerikusi handia dutela aitortu dute elkarrizketatuek, hala ere, gizartean jartzen dute fokoa, arazoaren erroa. E1ek dio gizarteak berak aurreiritzi asko dituela eraikita, beraz, hori guztia ikastetxeen aukeraketan islatzen direla, arrazakeria emanez.

G4ren ustez, segregazioari ateak edota bideak zabaltzen dizkiona ikastetxe bat baino gehiago dituen herriak/hiriak dira, eta E3k ere hori adierazten du, aukera dagoen herrietan segregazio kasuak errazago ematen direla. G4k argi du gizartean dagoela jatorria, maila

sozioekonomikoak diktatzen duela guztia. Nahiz eta, kaleetan egiten diren galdetegietan eta inkestetan gizartea integratzeko prest dagoela azaldu, G4k dio gizartean ez direla gauzatzen emaitza horiek.

Gurasoen azalean jarriz, edo kalean entzuntakoarekin, arrazoiak ezberdinak aipatu dituzte G4 eta E5ek. Familien aukeraketak justifikatzeko oso ohikoak diren hainbat arrazoiak batzuk honako hauek direla aipatu dituzte: delinkuentzia tasa altua, drogen kontsumoa, bazterketa “hemengo” haurren artean, “hemengo” lagunik ez eta euskararen maila baxua eskola zentro batzuetan.

Hausnarketa kolektiborik ematen ez bada, E1ek dio behin eta berriz errepikatuko den egoera baten aurrean aurkituko garela, eta are gehiago, nabarmendu ere, gehiago nabarmenduko dela. Hori dela eta, erabakiak kolektiboki hartzearen aldekoa da E1, indibidualki hartuz gero horrelako egoeretan aldaketa ez delako sumatuko. E1ek honekin guztiarekin, familien erabakiari egiten dio erreferentzia eskolen aukeraketa momentuan. Eskola segregazioa eman ez dadin, lagun taldeek edota, auzoak, erabakiak kontzienteki hartu behar dituztela aitortzen du, horrela, sare publikoko eskoletan izena emanez gero, esaterako, segregazio egoerak saihestuko direla ondorioztatzen du, erabaki kolektiboari aldeko apustua eginez.

Eskola segregazioaren inguruan, elkarrizketatuen artean iritzi nahiko antzekoak ematen direla nabaritzen da, agian, gizartean urte luzez erreproduzitzen ari den gertaera bat delako, eta, izan daiteke helduenak diren elkarrizketatuak gazte garaian eta guraso bezala bizi izan zituzten egoerak eta esperientziak, egun elkarrizketatu gazteenak unibertsitatean ikasi eta irakasle gisa berriro bizitzen ari direla, hau da, garai batean hasi zen problematika handituz joan da, beraz, garai bateko gurasoen kezka eta erabakiak eskoletan nabaritzen hasi dira eta, esan bezala, problematika hori unibertsitatean lantzen da. Ondorioz, esan daiteke bai elkarrizketatu gazteenak zein helduenak, eskola segregazioa ikuspuntu ezberdinetik bizi izan arren, ondorio berdinetara iristen direla.

5.8. Arrazakeriaren garapena

Urteak pasa ahala, marko teorikoaren atalean ikusi bezala, arrazakeriak bilakaera bat izan du. Beraz, ikastetxe mailan ere aldaketa horiek guztiak eman direla ondorioztatu daiteke. Ondorioz, atal honetan, irakasleen ikuspuntutik, haurrak noiz edo zergatik bihurtzen diren arrazista galdetu zaie.

Umeak esponja bat direla dio G4k, eskolatik kanpo, gurasoen hitzak, kalean, lagunak... horiek guztiek haurrak kutsatzen dituztela diote E1 eta G4k. Komentario batzuk inozentziatik

edo ezjakintasunetik esan arren, intenzionalitate batekin, iraintzeko helburuarekin esaten badira, jarrera arrazista bat dela dio E1ek. Ideia horrekin bat egiten dute bai E2k eta baita E3k ere.

Argi du E1ek denok garela arrazistak, beraz, gizartea dela haurra kutsatzearen erruduna. Haurra hortik kanpo dago, maltzurkeriatik kanpo dago, baina gizarteak gauza bakoitzari ematen dioenean balore bat, guztia kaltetzen du, adibide gisa honako hau dio, azal koloreari gizartean ematen zaion baliotik abiatuta: “eta beste mundu baten begi kolorek izango bazien? Horri guztiri guk eman diou balore hori, ordun umek hori dana, es ajeno a eso,” (E1). Azal koloreari eman izan zaion balorea gizarteak berak eman diola dio.

Gizartean zabalduko mezuek, bideo jokuek, horrelako jarrerak areagoatzen dituztela aipatzen du E5ek, “vamos a matar al negro” bezalako esaldiak ohikoak bihurtuz. “Moro zahar hori” bezalako esaldiak ere entzun izan ditu G4k. Gehien bat liskar momentuetan agertzen direla azpimarratzen du, normalean ikastetxeko giroa ez dela horrelakoa, behintzat bere aurrean.

Arrazakeriaren lanketari dagokionez, E2 eta E1ek aipatzen dute zaila dela guztia lantzea, eta gainera sakontasunez, garrantzia handia daukaten gaiak daudela pil-pilean eta aurrean tokatuz gero latzen direla, baina bestela ez asko. Alegia, iruzkin edota eraso arrazista espliziturik egon ezean, irakasleen ustez ez da aurrelanketarik egiten. Bestalde, E3k aipatzen du arrazakeria kasuak, ahozko irainak esaterako, beste ustez, beste irain bat bezala lantzen dela, ez dela arrazakeriaren kontrako lanketa berezirik egiten.

Gainera, E1ek dio onartu behar dugula ez daudela “super irakaslek” (E1) eta norberak egin beharreko lanketa bat izan behar dela, baliabideak egonez gero bidea erraztuz. Hala ere, E1ek jokabide arriskutsu bat bezala ikusten du Eusko Jaurlaritzak protokoloen bat argitaratzea eta irakasleak soilik irakurri eta ikasgelan marrazki bat egitea. Honelako irtenbideak, “moda” bat izango balira bezala ulertzen ditu E1ek, gaiari beharrezkoa zaion sakontasuna ukatzen dutenak, neurri batean.

G4k arrazakeriaren inguruko problematika, berriz ere, gizarteari egozten dio. Ikastetxetik kanpo, Zegama herriaren kasuan (eta beste herri batzuetan), talde txiki asko daudela nabari du, integrazioa falta dela dio. Elkarbizitza ona dela aipatzen du, baina hortik haratago ez dagoela aurrera pausurik. Berak dio askotan entzun izan duela besteari errua botatzen “eske elkartzen die plazan eta ez die gukin integratzen. Baino beste bertsioa entzuten dezu eta esaten due eske elkartzen die plazan eta ez die gukin integratzen, edo ez digute esaten, eta gu ez gara atrebizten” (G4). Horrek agerian jartzen du atzerritarren eta autoktonoen arteko harreman eta elkar ezagutza falta, “besteak” eta “gu” dikotomia horren ondorio izan daitekeena (Barquin, 2010).

Horrela, elkarrizketatuen hitzetan, gizarteak elkarbizitza onari ematen dio lehentasuna, elkarren arteko errespetua bilatuz, baina elkar ezagutzan eta kohesio sozialean urratsak falta direlakoan daude. G4ren ustez, esaterako, ederra izango litzateke herri osoa elkarrekin egotea, denak integratuta, baina “utopia” delakoan dago.

“Gizarteko tema guzti hauek bai, heltzen diogu gaiari eta danak ilusio haundikin, gorantz joaten da, gero iristen da momentu bat topea iristen dana eta gainea ustet momentu hontan tope hortan garela, guazten gure arten errespetatzea eta bale. Baina integrazioa errespetotik haratago dijo, errespetatu bai baino integrazioa beste gauza bat da” (G4).

Arrazakeria kasuak areagotzearen erantzukizuna, bai gazte zein helduek, gizarteari egozten diote. Eskola segregazioarekin gertatzen den bezala, gizarte mailako problematika bat denek, iritzi orokor bat eraikitzen da honen inguruan, non adinaren ezberdintasunak ez duen eragin handirik egiten.

5.9. Irakasle gisa esperientziak edota erronkak

Azken atal honetan, elkarrizketatu batzuen esperientzia edota erronka ezberdinak azalduko dira, iritziaz gain bizipenei ere presentzia emateko asmoz. Alde batetik, E1en esperientzia dugu, itunpeko eskola kristau batean. Berak dio eskolan kultura-aniztasun askorik ez zegoela, baina zerbaitek harritu egin zuela, ez kopuru txikiarengatik, aldiz, etorkinen profila ezberdina zelako. Esaterako, Japoniako ikasleak zeuden, hau da, ikasle etorkinen jatorria oso ezberdina zen eskola publikoekin alderatuz gero. Harrigarria iruditzen zitzaion eskolan beste kulturekiko errespetua lantzea, eskola horretan ez zegoenean ia kultura-aniztasunik. Bere ustez, eskola mailan mezu indartsu bat bidaltzen zen horrelako ekintzak eginez, bere buruari galdera hau egiten dio “liburu baten ikasi behar det nik hoi? nola erakutsi behar diot ume honei errespetue ez baldin badauke bere ondon...?” (E1).

E2ren esperientzia bere gelan kokatzen da. Behin baino gehiagoetan ume batek besteari “kaka kolorea” duela esaten diola aipatu du. Bere ustez, eta gurasoekin hitz egin eta gero argi dauka gurasoak ez direla izan mezu horien jatorria (egoeraren larritasunaz jabe dira gurasoak), eskolako irakaslea are eta gutxiago, beraz, gizarteari egozten dio errua, sei urte dituen haur batek azkar xurgatzen dituela gizarteko mezuak. “Kaka kolorea” iraina behin eta berriz errepikatu izan den komentario bat dela aipatu du, baina haurrak haratago doan jarrera arrazista bat duela aitortzen du irakasleak, ez ukitu nahi ez izateraino, esaterako ileko txirikordak ukitzerakoan *que asco* bezalako komentarioak dituela. Elkarrizketatuak, honen aurrean, ipuin bat irakurri zuen, non, koloretako pertsonak ageri ziren (urdina eta gorria) , arrazismoaren gaia lantzeko helburuarekin hizketaldi bat suertatu zen liburuaren ostean. Haurrak (kasu honetan iraina jaso zuen haurrak) guztien aurrean esan zuen “kaka kolorea”

zuela esan ziela berari, elkarrizketatuak orduan azal kolore ezberdinen inguruan hitz egin zuela aipatu du. Aurrerago, hala ere, ikasgelan komentario berdina agertu zela esan du, eta bere erantzuna hau izan zela: “ta ordun esan nion guk ordun zer daukeu botaka kolorea? (E2)”. Elkarrizketatuaren helburua ez zen beste kolore bat ematea, baizik eta konnotazio txar bat ematea. Hortik aurrera ez omen da errepikatu jarrera hori

Azken esperientzia E3rena da, Aoizeko eskolan familia batekin izandako hartu eman bateko bizipena aipatzen du. Bere ikasle baten senide bat laguntza bila gerturatu zitzaion, ez irakasle batek eman dezaken laguntza jasotzeko helburuarekin, baizik eta, babes bila, konplize/lagun baten bila. Berak dio besoak zabaldu zizkiola, hori dela irakasle baten bete beharra, ikaslearen familia ere babestea, baina ez zuela jakin non zegoen muga, beraz, profesional bezala jakin egin behar dela hori guztia mozten eta beste alderdi batetik bideratzen, irakasle bezala horrelako hartu eman pertsonalak gain hartzen dutelako. Hala ere, erraminta faltari ere egozten dio honen arrazoia, agian kasu batzuetan segurtasun eza nabariz.

6. ONDORIOAK

Gradu Amaierako Lan honetan, hainbat ikuspuntu aurkeztu dira elkarrizketatutako irakasleen ahotik. Horietako bakoitzak esperientzia, ideia, bizipen eta sinesmen ezberdinak agertu ditu eta horrek hainbat ondorio sortzea eragin du.

Lanaren hasieran lau helburu ezberdin zehaztu dira. Behin emaitza guztien interpretazioa egin ostean helburu hauek bete diren edo ez aztertuko da. Lehenik eta behin, zehaztutako helburuetako bat irakasleen ideiak aztertzea zen, zehazki, arrazakeriaren eta kulturartekotasunaren inguruan. Argi dago elkarrizketatu guztiek izan dutela beraien ideien inguruan hausnartzeko espazioa zein denbora, eta bakoitzak, modu inkontziente batean zein kontziente batean, bere iritzia plazaratzeko momentua izan dute. Beraz, lehen helburua bete dela ondoriozta daiteke, elkarrizketatu bakoitzaren ideiak ezagutu eta sakontzeko aukera egon delako.

Bigarren helburuan ere, behar zen hori lortu dela esan daiteke, irakasleen aurreikuspenak eta bizipenak ezagutzea eta hauek aztertzea, ikasle eta familia etorkinei dagokionez. Elkarrizketatu batzuekin, gazteekin zehazki, helburu hau sakontasun gehiagorekin bete da, beraien buruaz kritikotasunez hitz egin dutelako, hau da, politikoki zuzenak diren esaldiak saihesten ahalegindu dira, nahiz eta batzuetan diskurtsoetan oso agerikoak izan. Hala ere, elkarrizketatu helduenak, politikoki zuzenagoak izan diren iritzi gehiago izan dituzte, agian

errealitate ezberdin batean lan egiten dutelako. Beraz, azken hauen benetako aurreideiak bistaratzea falta dela esan daiteke, nahiz eta zeharka beraien benetako usteak ageri.

Hirugarrenik, irakasleak ikasgela eta ikastetxe mailan zituen behar eta baliabideak aztertzea zen xedea. Baliabideei dagokienez, gazteenak hezkuntza sistemaren baliabide faltari egin diote kritika gehien bat. Eta baliabide pertsonalei dagokionez, ez dituzte baliabide zehatzik eman egoera batzuei aurre egiteko, hau da, harrera eta egokitzapen prozesuan azaleko azalpenak eman dituzte, beraz, zehaztasun falta hori sumatu da elkarrizketatuen artean. Elkarrizketatu helduek, aldiz, baliabideei dagokionez, ez dute ezer faltan sumatu, nahikoa dutela aipatu dute, kritikotasun falta sumatzen da. Lan egiten duten eskolan zein herrian espazio seguru eta eroso bat dutela nabaritzen da, zeinetan ez dagoen aldaketa handirik, beti ere, baliabide nahikoa daudela aitortzen dutelako edota herri mailan babesa sentitzen dutelako. Ondorioz, elkarrizketatu guztien partetik, baliabide pertsonalen falta sumatzen da, eta aipatu badira ere, harrera planetan edota eskola gehienetan ageri diren jarraitu beharreko pausuak aurkeztu dituzte baliabide pertsonal gisa.

Azken helburuari dagokionez, gizartea hezkuntza sisteman nola islatzen den aztertzea, bete betean lortu dela esan daiteke. Elkarrizketatu guztiak gizarteko joera ezberdinak azaldu dituzte egoera ezberdinetan, bai eskola segregazioaren inguruan hitz egitean, identitate pluralaren gaian sakontzean, arrazakeriaren garapenean murgiltzean... Elkarrizketatuek, irakasle gisa, gizarteko eragile ezberdinen, izan komunikabideak, udaletxeak, familia, lagunak... jarrerak azaldu dituzte, beti ere, ikasleari nola eragiten dioten azalduz, eta era berean, eskolan eta irakasleei zer nolako eragiten dieten azpimarratuz.

Orain emaitzetan agertutako alderdi esanguratsuenak argituko dira. Hasteko eta behin, elkarrizketak aztertuta, argi ikusten da irakasleen formakuntza kultura-artekotasunari dagokionez exkaxa dela, hizkuntzaren trataeraren inguruko formakuntza jaso dutela aipatu duten arren. Hezkuntza sistemak aukerarik ematen du honen inguruan formatzeko? Norberak bere kabuz lantzeko moduko zerbait al da? Riedemann eta Stefonik (2015) argi esan zuten, hezkuntza ez arrazista bat jaso beharko luketen lehen pertsonak irakasleak izan beharko liratekeela. Honek guztiak hausnarketarako bidea zabalduko beharko luke irakasle guztien artean, erraminta egokiak aplikatuko lirateke ikasgeletan, harrera egokia eta goxoa egingo litzateke. Baina tamalez, egungo errealitatea utopia horretatik oso urrun dago. Eta elkarrizketatuek hala erakutsi dute. Urtebeteko esperientzia izan edo hogeita hamaseikoa, arrazakeriaren inguruko, kultura-aniztasunaren inguruko formakuntzarik ez da aipatu ere egin. Horixe jarri dute agerian E2 eta G4 irakasleek, esaterako. Egia da aipatu dutela hizkuntza-aniztasunaren trataera nola egin landu izan dutela, bai unibertsitatean bai eskoletako formakuntzetan. Baina arrazakeriari aurre egiteko, hizkuntzaren trataera nola egin jakitea

nahikoa ote da? Barquinen (2010) hitzak oinarritzat hartuz, ikasle etorkinen etorrerari beldurra kentzeko, ezjakintasunean ez bizitzeko, irakaslea formatu egin behar da, errealitatean daukagun egoera bat delako, eta irakaslearen erantzun egokia funtsezkoa da honelako kasuetan. Beraz, agerikoa da arrazakeriaren kontrako hezkuntzak formakuntza esplizitua eskatzen duela (Coelho, 2016).

Ateratako beste ondorio bat da elkarrizketatuen adinean zentratzen da, nahiz eta adina ez izan erantzun askoren ezberdintasunen arrazoi nagusia, argi ikusten dira ikasle etorkinen edota familia etorkina duten ikasleen gaiak ateratzen direnean edota baliabideei dagokionez iritziak ezberdinak direla, edota bi multzotan banatu daitezkeela. Hiru elkarrizketatu gazteenek (E1, E2, E3) gai honen inguruan lasai hausnartzen dute, argi utziz guztiok garela arrazista, gizarte arrazista batean bizi garen bitartean, jarrera arrazistak erreproduzitzen jarraitzen dugulako. Aurreiritziak eta sinesmen ezberdinak dituztela aitortzen dute, baina ez al da aitortza lehen pausua arrazakeriari aurre egiteko? Norbanako bakoitzak onartzen badu arrazistak garela, ekintza bakoitza aztertu eta aldatzeko aukera ematen du, baina mundu "ideal" batean biziz gero eta errealitatean zaren hori ukatuz gero, zer gertatu daiteke? Elkarrizketatu helduenek (G4, E5) ikasle guztiak berdinak direla esaten dute, berdin-berdin tratatuak direla. Eskola egokitzapenean ere berdin, eskolan egokitzapena oso ondo egiten dutela. Baina hau benetan ematen diren egoerak al dira? Azken urteotan, norbanakoa politikoki zuzen jokatzearen hautua egiten ari da, guztia ederra da, ez dago arazorik, ez dago diskriminaziorik, berdintasunean oinarritutako gizarte batean bizi gara. Baina, tamalez azken hau ez da gure egungo errealitatea, inoiz ez da ezagutu horrelako errealiterik. Beraz, bi irakasle hauen erantzun perfektuen atzean, aurreiritziak badaudela esatera ausartzen gara, nahiz eta beraien ahoetatik ez atera.

Baliabideak izan dira irakasleen ahoetan eta pentsamenduetan maiz agertu den hitza. Argi dago, baliabide eza sentipen orokortua dela elkarrizketatutako irakasleen artean. Irakasleen beharrak areagotzen ari dira, hezkuntza berrikuntzekin, ratio handiekin, lan pertsonalarekin.... Baina, kasu honetan alderantzizko proportzionaltasun bat ematen da, beharrak gora doazen heinean, baliabideek behera egiten dute. Eta noski, baliabide batzuk pertsonalak dira, esaterako formakuntza ezberdinetatik ateratako materiala, teknikak, izaera... Baina beste asko, garrantzitsuenak direnak, hezkuntza sistemak ematen ditu. Denek aitortu dute baliabideak eskasak direla dagoen errealitateari aurre egiteko. Eta zentzu horretan, esaldi hauxe guztiz esanguratsua izan da: "hor kultura-aniztasunei erantzuteko baliabidek ez dituzte ematen" (E2). Eta horretan elkarrizketatuak arrazoia duela iruditzen zait. HIPI-ak daude, bai baina baldintza askorekin eta ez guztientzat. Egun itzultzailearen figura hizkuntza berdina hitz egiten duten ikasleek betetzen dute, eskolan horrelakoak daudenean. Alde batetik positiboa da ikasle etorri berriak konplizeak dituelako, komunikatzeko norbait duelako, baina beste

aldetik, zergatik egin behar du haur batek itzultzaile lana une oro, hutsuneak hezkuntza sistemarenak berarenak direnean? Ez al da eskolaren eginkizuna haur eta familia etorri berriari beharrezko baliabideak ematea? Edo hobeto esanda, hezkuntza sistemak ez al du egokitu behar eta aldaketarik eman behar horien guztien aurrean? Tamalez, baliabide duinak eta nahikoak lortzeko bide luzea dago oraindik aurretik, kolektiboki aurre egin behar zaiona, ahalik eta pausu eraginkorrenak eginez.

Askotan entzun izan da, hezkuntza gizartearen isla dela, hau da, gizartean ematen diren jokabide edota ekintza ezberdinak eskola mailan erreproduzitu egiten direla. Adibide gisa, Michel Appleren (1986) hitzak ditugu; hezkuntza eta sistemaren arteko harreman estua honela arrazoitzen du, hezkuntza politika dela esanez, Curriculumean botere ekonomikoa eta politikoa duen taldeak ideologia bat sortu eta birsortzen delako. Hari berdinetik jarraituz, beraz, esan dezakegu Curriculumarekin soilik hainbat jokabide ezberdin erreproduzitzen direla. Baina gizarteko jokabideak, eskolan eragina dutenak eta arrazistak direnak, ez ahal doaz Curriculumetik haratago? Elkarrizketatu guztiek hitz egin dute gizartearen eraginaz, gehienak jokabide arrazisten jatorria hemen dagoela adieraziz. Baina elkarrizketatu batek, gizarteari beste egiteko bat falta zaiola dio, integrazioarena, benetako integrazioa. Baina integrazio horretan eskola zein irakasle ezberdinek, kultura-asimilazioa derrigortzen dute, ustezko integrazio bat eginez, hau da, jatorrizko kultura kendu eta bertakoa ezarri, euskaldun eredugarri bihurtuz. Integraziotik haratago, inklusioa bermatu behar da eskoletan zein gizartean, baina, hala ere, kasu horretan prest egongo ginateke euskaldun gisa ikusteko beste kultura edota sinesmenak dituzten pertsonak?

Puntu honetan ere, politikoki zuzenak diren jokaera asko aipatu ditzakegu, integrazioa guztion ahotan dagoen hitza delako, baina errealitatean gauzatzen ez dena. Elkarri errua botaz gabiltza une oro, honek ez du hau egiten, ez dira elkartzen plazan, beti beraien jatorri berdina duten jendearekin ibiltzen dira... Horrelako esaldiak askotan entzuten dira, gehienbat herriko plazetan edo tabernetan, eta askotan erasotutak sentitzen diren momentuan ateratzen dituzte horrelako adibideak. Esaterako, Euskal Herrira etorri gero, sozializatzen, herrian integratzen eta hizkuntza irakastearen eginkizuna noren esku geratzen da? Herritarrengan? Gizarte inklusibo bat eraikitzeko helbururik ba ahal dago?

Honen ostean beste ondorio nagusi bat ere aipa daiteke. Litekeena da Euskal Herriko kultura eta hizkuntzarekiko arrisku moduan ikustea iritsi berriak. Izan ere, jende askoren ustez, etorkinen etorrerak gure identitatea kaltetu dezake: beraiek dira euskara gutxitzearen errudunak, ohituren desagerepenaren arduradunak... Baina hau benetan horrela al da? Esan dezakegu, hizkuntza eta kulturaren erantzukizuna guztiok dugula. Zilegi al da etorkinei eskatzea euskara ikasi dezaten, autoktono asko hori egiteko gai ere izan ez direnean?

(Barquin, 2010). Gure hizkuntza eta kultura bizirik mantentzea nahi badugu, gizartean dagoen joera hori aldatu beharko da, elkar lanean eta kolektiboki, gauza asko sortuz eta berpiztuz.

Azken ondorio gisa, eta aurrekoarekin lotura eginez, eskoletan ikasleen identitate pluralari lekua egin beharko litzaiokeela agerikoa da. Eskoletan guztientzat dago lekua, beraz, ikasle bakoitzaren barruan identitate bat baino gehiago izateko lekua ere badago. Kasu honetan, irakaslea izan behar da bigarren edota hirugarren identitate horri espazioa, presentzia eta balioa ematearen arduraduna, ikasgelan momentuak emanez, komentarioen bitartez edota kartelen bitartez leku bat emanez, edota soilik, ikasleari nahi duen moduan azaltzeko aukera emanez. Ikasleen identitateak zaindu eta babestu egin behar dira, bakoitzak bere nortasuna ongi eraiki dezan. Uste baino garrantzia gehiago du identitate pluralak, ikasle batek, nahiz eta Euskal Herrian jaio, bere familiak bizitako guztia du bere gainean, memoria bat dago bertan, beraz, ikasleak nahi duen punturaino, irakasleak euskaraz eta euskal kulturaz gain, bere lekua eman behar dio.

Amaiera emanez, aurreko guztiari Tomas Calvoren (2003) hitzak txertatuko dizkiogu, itzaropena mantentzen laguntzeko, gizarte hobea eraikitzeko helburuarekin: “Elkarrizketa, tolerantzia, desberdinarekiko errespetua irakatsi eta praktikatuz beharko dira..., gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpondu behar dira eta bakea eta justizia maitatzen irakatsi behar da (Calvo, 2003; 245)”. Hala ere, honi guztiari kolektiboki egin behar zaio aurre, arrazakeria jasaten duten pertsona bakoitzari bere lekua eskainiz, ahotsa emanez, horrela eraikiko dugu hezkuntza ez-arrazista bat, horrelako ekintzek emango dituzte aldaketak. Baina, jakina, horretarako ezer baino lehen irakasleak eurak dira hezkuntza ez-arrazistan formakuntza esplizitua jaso behar dutenak, ondoren ikasitako hori ikasgeletan martxan jarri ahal izateko, haur kalteturik ez izateko, errespetuan oinarritzen den gizarte bat eraikiz.

7. BIBLIOGRAFIA

- Barquín, A. (2009). ¿De dónde son los hijos de los inmigrantes? La construcción de la identidad y la escuela. *EDUCAR*, (44), 81-96.
- Barquín, A. (2017). Euskara, generoa, klasea eta jatorria eskolan. Zenbait gogoeta. *Jakin*, 221-222, 107-130.
- Barquín, A. (2010). Etorkinen seme-alabak eskolan: zer aldatzen ari da? *Hik Hasi*, (143), 29-32.
- Barquín, A. (2006). Kulturartekotasuna eskolan. *Jakingarriak*, 58, 34-43.
- Barquín, A. (2015). ¿Qué debe hacer la escuela con las culturas familiares del alumnado inmigrante? *EDUCAR*, (44), 443-464.
- Bazzaco, E. (2008). La inmigración en España: racismo institucional y racismo social. *Papeles*, (103), 75-84.
- Caicedo, J.A. eta Castillo, E. (2015). El racismo en la escuela se llama el lápiz “color piel”. *Hexágono Pedagógico*, (6), 142-151. Hemendik berreskuratua (2023/03/29): [El-racismo-en-la-escuela-se-llama-el-lapiz-color-piel-Racism-at-school-pencil-is-called-skin-color.pdf \(researchgate.net\)](#)
- Calvo, T. (2003). *La escuela ante la inmigración y el racismo. Orientaciones de Educación Intercultural*. Popular.
- Coelho, E. (2006). Kulturartekotasuna eskolan. *Jakingarriak*, 58, 44-57.
- Coelho, E. (2016). *Eskola kulturantzunetan ikastea eta irakastea*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Greathouse Amador, L., Preciado Lloyd, P. eta De la Fuente Laudo, A. (2021). El racismo y los niños: reflexiones para una sociedad más justa. *Criminalidad*, (63), 99-113. Hemendik berreskuratua (2023/03/28): <https://doi.org/10.47741/17943108.319>
- Hernández, R. (2020). Segregación y/o racismo en la escuela. ¿ “Elección” de centro educativo por las familias? *Profesorado. Revista de currículum y formación del profesorado*, (24), 199-223. Hemendik berreskuratua (20/03/2023): <https://doi.org/10.30827/profesorado.v24i3.15363>
- Javaloy, F. (1994). EL nuevo rostro del racismo. *Anales de psicología*, 10(1), 19-28. <https://revistas.um.es/analesps/article/view/29391>

- Jerez, A. E. (2018). El racismo privilegiado en las aulas. *Para el aula*, (26), 30-31.
- Osuna, C. eta del Olmo, M (2019). El racismo oculto. Sobre la complicidad involuntaria en el mecanismo racista. *Convives*, (25), 16-23. Hemendik berreskuratua (eman data): [El racismo oculto. Sobre la complicidad involuntaria en el mecanismo racista | DIGITAL.CSIC](#)
- Restrepo, E. (2008). *Racismo y discriminación*. Hemendik berreskuratua (2023/03/29): [Discriminación y racismo en la cotidianidad; una problemática de todos \(ram-wan.net\)](#)
- Riedemann, A. eta Stefoni, C. (2015). Sobre el racismo, su negación, y las consecuencias para una educación antirracista en la enseñanza secundaria chilena. *Polis*, (14), 191-216. Hemendik berreskuratua (2023/03/29) <https://dx.doi.org/10.4067/S0718-65682015000300010>
- Segato, R. (2017). Racismo, discriminación y acciones afirmativas: herramientas conceptuales. In Campoalegre, R. eta Bidaseca, K. (ed.), *Más allá del decenio de los pueblos afrodescendientes* (43 – 63. or.) Clacso.
- Terrén, E. eta Carrasco, C. (2007). Familia, escuela e inmigración. *Migraciones*, (22), 9-46.
- Terrén, E. (2002). El racismo y la escuela: clima, estructura y estrategias de representación. *Migraciones*, (12), 81-102.
- Van Dijk, T. (2005). Nuevos racismo y noticias: un enfoque discursivo. In Nash, M., Tello, R. eta Benach, N. (ed.), *Inmigración, género y espacios urbanos. Los retos de la diversidad* (33-55- or.) Edicions Bellaterra.

8. ERANSKINAK

8.1. ERANSKINA 1

ELKARRIZKETAREN EGITURA

1. Informazio pertsonala

- Adina
- Zenbait urtez egin duzu lan irakasle gisa?
- Zein eskola sareetan egiten duzu lan? Publikoan, itunpekoan,...)
- Lan egiten duzun eskola non kokatzen da? Aniztasun kultural asko dagoela esango zenuke?
- Aniztasun kultural asko dagoen eskolaren batean egin duzu lan?

2. Kulturartekotasunaren lanketa gela/eskola barruan

2.1. Formazioa

- Kulturartekotasunaren inguruko formazioa, ikasketa edo hitzaldirik jaso izan dituzue? Esaterako, unibertsitatean, edota ikastetxeko formakuntza batean? Zure ustez, nahikoa izan al da hori zure egungo lanari erantzuteko?
- Eta formakuntza/hitzaldi horiek lagungarriak izan direla esango zenukete? Zergatik?

2.2. Harrera

- Atzerritarren seme alabaren bat sartzen da zuen ikasgelan, posible da gaztelera jakitea (kasurik onenean), baina gerta daiteke Euskal Herriko bi hizkuntza ofizialetako bat bera ere ez jakitea. Zer nolako harrera egiten duzue/egingo zenukete zuek irakasle gisa horrelako ezaugarriak dituen ikasle bati?
- Zuen ustez, ikasgeletan/eskoletan ikasleari behar bezalako harrera egiten zaio? Hau da, behar den denbora/arreta/baliabideak eskaintzen zaizkio haurrari? Gainerako umeeekin lantzen al da ikasle berriaren iritsiera? Nola?
- Zein hutsune ikusten dituzue eskola mailan ikasle atzerritarren edo atzerritarren haurren harreraren momentuan?

2.3. Egokitzapena: estres de aculturación

- Harreraren inguruan hitz egin dugu, baina zuen ustez, atzerritarren haurrek egokitzapen on bat izaten dutela esango zenukete? Zergatik?
- Zure ustez zeintzuk dira ikasleek egokitzapen horretan izan ohi dituzten zailtasun nagusiak?

- Haur eta familia askok, “estres de aculturación” (azalpena eman) bezala ezagutzen den egoera bat bizitzen dute. Hori guztia, ikasgelan islatzen da? Zer nolako eragina izan dezake ikaslearen egunerokotasunean? Ikasgelako giroan ere suma daiteke?

2.4. Praktikak: etorkinen haurrekiko zer aurreikuspen, zer lanketa, zer sentipen?

- Atzerritik etorri berri den, edota atzerritarren seme/alaba baten haurrekiko zer nolako aurreikuspenak dituzue? Aurrelanketarik ba al da eskola mailan, edo maiz inprobisatu beharra izaten da?
- Zuen aurreikuspenak, errealitatean, ikasle batetik bestera asko aldatzen dira, hots, jatorriaren arabera aldaketa asko ematen dira?
- Atzerritarren hurrek, zuentzat, zer erronka dakartzate? Lanketa berezirik eskatzen al dute, zertan? Edota taldean besteen moduan tratatuak dira?
- Zehazki, zer lanketa egiten duzue ikasle iritsi berriarekin, gainontzeko ikasleekin, familiekin,... Eskolatik sistematikotasunez bideratzen al da hori, edota irakasle bakoitzak bere esku dagoena egiten du?
- Zer nolako sentimenduak izan dituzue egoera horietan? Zein izan dira gehien nagusitu direnak? Beste sentimendu negatiborik ageri zaizkizue haurrekiko/familiarekiko? Zure ustez zein indargune izan ohi dituzte familia iritsi berriek?

2.5. Nahikoa baliabide?

- Momentu horretan nahikoa baliabide izan dituzuela esango zenukete? Zergatik?
- Eskolaren aldetik, babesaren sentitu duzue, behar izan duzuen momentuetan? Zergatik? Eskolako irakasleen artean koordinaziorik ba al da ikasle iritsi berrien beharrei erantzuteko? Hala bada, zehaztu zenezake zer eta nola?
- Hezkuntza sistemak, nahikoa baliabide ematen dituela esango zenukete? Zergatik?

2.6. Identitate pluralaren lanketa (kokatu): ume atzerritarrak edo atzerritarren haurrak? Egiten al da?

- Identitate pluralaren azalpena (kokatzeko).
- Zuen ustez, haur batek identitate plural bat lortzen al dute? Edo soilik bakarra? Zergatik?
- Hori guztia ikasgelan erakustea, azaltzea, baliagarria izan daitekeela esango zenukete? Zergatik? Nola landu liteke gela barruan? Egiten al duzu antzekorik?
- Zuen ustez, ikaslea identitate pluralarekin babestuagoa sentituko da? Zergatik?
- Kasu ezberdinak aipatuko ditut. Aiton-amonak atzerritik etorriak, baina gurasoak eta haurra hemen jaioak. Gurasoak atzerritik etorriak, baina haurra hemen jaioa. Eta azkena, gurasoak eta haurrak atzerritik etorriak. Ume horiek guztiak (familiak barne), zein dira ume atzerritarrak? Zein dira atzerritarren haurrak? Zergatik?

- Baina hemen heziak eta haziak badira, noiz arte dira ume atzerritarrak? Zuen ustez, noiz ematen da aldaketa hori?

3. Segregazioa eskolan

- Egungo errealitatean, hiriburu askotan, eskola askotan segregazioa ematen ari da. Honen inguruan, zure ustez zein da hor gakoa (zergatik jarraitzen du segregazioak, konpon liteke, etab.)?
- Honi aurre egiteko, hezkuntza sisteman eman behar da aldaketa edota herritarron artean aldatu beharreko jarrera kontu bat da?
- Eskola segregazioak ikasleei eragiten diela esango zenuke? Zertan/nola? Zer ikasleri eragiten die?

4. Arrazakeriaren garapena

- Noiz eta nola bihurtzen dela esango zenuke ume bat arrazista?
- Aurreko galderari erreferentzia eginez, familiek dituzten aurreiritzi ezberdinak umeengan nabari dira? Zein kasutan esango zenukete? Zer egin beharko luke eskolak horren aurrean, edo soilik irakaslearen bete behar bat da? Eskolak familiak ere hezi behar al ditu?
- Kulturartekotasuna lantzeko hainbat programa atera dira, jarduera,... Baina, ikasgeletan arrazakeriaren kontrako lanketa zuzen bat egiten al duzue? Hau da, ikasgeletan arrazakeria zer den azaldu, sentsibilizazio jarduerak,... egiten al dira?

5. Irakasle moduan, zailtasunak/erronkak/esperientziak

- Irakasle gisa, zuen lan urteetan, zailtasunik, erronkarik edota esperientzia berezirik bizi izaten duzue?

6. Bestelakoak

- Amaitzeko, zer gustatuko litzaizueke gehitzea honi guztiari?
- Aholkuren bat edo emango zenioke etorkizuneko irakasleei?
- Ondorio nagusiren bat nabarmentzekotan, zer esango zenuke?

8.2. ERANSKINA 2

1. ELKARRIZKETA. Parte-hartzaileak: E1, E2, E3 irakasleak.

- **I:** Lehenengo banan banan bakoitzan adina, hasiko gea hemendik, adina...
- **E1:** Bale, nik 25 urte ditut, 26 eingo ditut aurrean

- **I: Eta zenbait urtez, zure lan esperientzie gutxi gora behera?**
- **E1:** Nik esango nuke, hasi nintzela, guaindala bi urte edo zien, urritik ekain arte eon nintzen, ordun ikasturte bat baino ordezkapenak eite.
- **I: Eta esperientzi hori publikon edo itunpeko...?**
- **E1:** Itunpeko ikastetxe baten.
- **I: Eta eskola nun kokatzen da? Herrie edo?**
- **E1:** Herrin izena?
- **I: Bai bai**
- **E1:** Beasain.
- **I: Beasainen, bale. Eta bertan esango zenuke aniztasun kultural asko daola? Edo...**
- **E1:** Ez, enuke esango. Gainea horrek harritu ziten nei, ni ohituta beste eskola batetik ez? Zegaman igual egie da ez daukeula hainbesteko aniztasune gu txikik ginenen, baino bertan gehien bat harritu ziten ez batez etzeolako, baizik eta perfile diferente, ezberdinez halako. Ba igual Japoniarrak eta hola. Ta bestetan igual, ikusteituzu marrokiarrak eta. Kristau eskola bat zan baita, horrek e baldintzatzen do.
- **I: Aniztasun kulturala baita ezberdine ordun.**
- **E1:** Bai, perfile da ezberdine.
- **I: Bale, eskerrik asko. Zure adine?**
- **E2:** Nik 25 eingo ditut.
- **I: Eta zenbait denboraz ein dezu lan?**
- **E2:** Aurten, ikasturte hontan, azaro bukaeran hasi nintzen eta guain arte.
- **I: Perfekto. Eta zure eskola sarea itunpekoa, publikoa...?**
- **E2:** Ikastola bat da.
- **I: Ikastola bat da, bale. Eta nun kokatzen da eskola?**
- **E2:** Lazkaon.
- **I: Eta bertan aniztasun kultural asko daola esango zenuke?**
- **E2:** Bai, bai haundie.
- **I: Bale, eskerrik asko. Eta zure adine?**
- **E3:** Nik 25 urte ein behar ditut, eta irakasle bezela hola oson lau hilabete terdi eingo nitun, eta denak izan die eskola ezberdinetan. Gehien eon naizen eskola bi hilabete izan die jarraien, Nafarroko herri txiki baten eta publikoa.
- **I: Eta bertan aniztasun kultural asko?**
- **E3:** Bai, haundie. Bueno nei kasu hontan tokau zitzaiten A eredun. Ordun aniztasun haundie, bertako iñor ez eta danak oso leku ezberdinetatik. Bai jun etorrie oso haundie zan, hilabete baten bi jun zien, hiru sartu zien, eta hola.

- **I: Bale, perfekto. Eskerrik asko. Bale, bueno ikusiko zenuen, baino bost ataletan banauta dao elkarrizketa. Eta lehenik eta behin izango da hitzeitea kulturartekotasunen inguruan jaso dezuen formazio inguruan. Ez dakit unibertsitate bertan edo unibertsitate kanpo jaso dezuen formazio, hitzaldin bat jaso dezue? Edo badakizue zerbait?**
- **E1:** Nik uste det gaie landu izan deula unibertsitate, baino ez hola ikasgai bat ustet ez genukela ez?
- **E3:** Ez, aniztasuna aldetik....
- **E2:** Gizarte eta kultura igual, arlo hortan sartu ta igual aniztasunaren trataerai beidare.
- **E1:** Bai, hoida. Baino pixkat hor, ba aniztasuna, ba....
- **E2:** Osotasunen
- **E3:** Teorikoki.
- **E1:** Ni bai goatze naiz hirugarren mailan, ez, bigarren mailan disziplinarreko lana ein genula, eta zala atzerriko haur baten harrera nola eingo genun, horren ingurukoa. Ordun, etzan izan ikasgai bat como tal, baino bai lan hori aurrea eamateko ba informazioa eta beidau beharra izan genun eta hor bai landu genula, baino gehio igual hizkuntzan trataera eta.
- **I: Bale**
- **E1:** Eta gero nik masterren ikasgai bat neuken horren inguruan, ordun hor bai konkretugo o sakonago landu genula. Baino bestela ez.
- **I: Ordun formakuntzaik, ikastaroik ikastetxeren aldetik edo ezerrez ezta?**
- **E3, E2:** Ez.
- **I: Eta nahikoa, bueno karo, unibertsitate ikasitako hori nahikoa da lanea sartu eta egoerai aurre eiteko? Daon egoerai aurre eiteko?**
- **E3:** Lehenengo momentun ez behintzet.
- **I: Ezerrez ez?**
- **E3:** Nik ustet teoria bai, bueno ulertzen dezula zenbaiteaino bueno, esplikatzen dizuena edo entzutezun kasuk ba karreraren zehar e ikusteituzun kasuk, behin errealitate zarella oso desberdinek die, ta bakoitzek, eske oso desberdine da, ordun ez dauzkezu erramientak hasteko, pixkat intuizioz ein behar dezu ta momentun bilatzen.
- **I: Probatzea dala ez?**
- **E3:** Eta ikastetxek ba planen bat baldin bauke, ba horta jo. Baino baten batek edo askok eztue eukitzen, ordun...
- **I: Ia bai, bai.**
- **E1:** Geo ni bai goatzen naiz, hezkuntza berezin ein genula, etorri zien, bueno baita lan bat ein beharra genuken, eta elkarte ezberdinekin. Eta elkarte horik zien kultura batekin

lotutakok o ez dakit, egoera konkretu bat. Ordun, ba hor baita igual landu zan gaie, baino ez dakit gehio praktikakin lotuta, gainea. Ordun igual gertugo ta dana.

- **I: Joe beitu.**

- **E2:** Eta gero nik dauketen sensazioa, eta nik ikastolan bai euki ditugun formakuntzak edo gehio da, kultura-aniztasun hori baino gure kulturatik beitu. Gurea nola uztartu edo landu, baino beste kultura batzuk dauzkien ume hoiekin. Ez dakit nola esan, bai da igual kulturartekotasun tratera hori, baino pixkat euskara eta gure kultura oinarritzat hartuta, bestea ez zapaldu, baino beste saiau erakusten, ez dakit, pixkat hortik.

- **I: Bai, gehien bat presentzi gehio daukela hemengo, gure kulturak ez?**

- **E2:** Bai, hoida, hemengoa.

- **I: Bale, bale. Ba guain, gehien bat zuen formakuntza alde batea utziz, sartuko gea ikasle hauen harrera prozesue nola eiten da. Bizi izan dezuena edo uste dezuena lasai esan eta ikusten badezue eztaukezuela zer esanik esan lasai. Hemen, kasuistika bat izan daike, seme alaba bat, atzerritarren seme-alaba bat sartzea zuen ikasgela ta posible da jakitea gaztelera kasuik onenen, baino gertau daike baita ez euskera ez gaztelera jakitea, ordun zuek nolako harrera eingo zenioke haur horri, pixkat inprobisauz guain. Zer nolako harrera eingo zenioke haur horri. Ikasgelan zerbait berezie eingo zenuke, eskola mailan baita zabaldu, edo modu pertsonal baten landuko zenuen guztie?**

- **E1:** la...

- **E3:** Nik nire esperientzin, eskola mailan itea zaile izaten da. Eskola oso txikie dan kasun harrera haundigo bat iten zaio edo zabalago bat ite zaio danan arten. Baino nik euki deten kasun, izan da ikasle bat etorri eta zuzendaritzatik edo bueno irakasle klaustrotik jaso, zuk in behar diozun harrera. Eta harrera ein aldan bezala, lehenik eta behin, ezer hasi aurretik, bea ezagutzen, ikaslekin pixkat monitore lana eiten, monitore baino, elkar ezagutzeko jolasak, kanpoa irten konfiantza jolasak ein, bai konfiantza sustau, launek ezagutzeko aukera iriki, ta askoz gehiore. Familikin elkartu baldin badaike ondo, ta ezin badezu ba ez da ulertzen... Ta hizkuntza aldetik, ba... gehienetan /pfff/ ezta eoten aukeraik, bueno aukera badao itzultzaile bat lortzekoa, baino oso zaile izaten da ta oso kontautakok eoten die, ta eskatzen dan garaien ezta iristen eta tokatzen bazaizu Afganistanetik etorri dan ikasle bat oso zaila eiten da komunikatzea. Bakarrik keinuz, etorri etorri ta besok zabaltzea tokatzen da, besteik ez.

- **I: Bai hoida.**

- **E3:** Nire kasu hori.

- **E2:** Bai nik ez det bizitzan hola momentun osa nik bai aurten adibidez ni sartu nintzenen zeon hasi berri bat zeon ikasle bat, baino ia hasita zeon. Ordun bueno nik gazteleraz badaki, ordun normalen hitzeiten diot gazteleraz eta euskeraz nik bik iten

dizkiot. Karo bestela ez dolako ikasi behar eta egie da asko ai dala ikasten eta irikitzen zentzu hortan. Nik ein beharko banu hasieratik neie igual etzait iruitzen ikastetxe mailan ein beharreko zeoze, ez dakit pixkat iruitze zaitelako osa ia hasi berrie da pertsona batentzako danan aurren igual askoz hotzagoa, ordun nik ingurune goxogo baten, gelan edo tokau daiken bezela. Bai, nik ustet, tutorea tokauko balitz, nik ustet tutorek ein beharko lukela zubi lan hori ba beste irakaslek aurkezteakon, beste gelata, bai berak daukela landu beharra ez? Laundu beharra baita, irikitze hortan. Baino, baino hoi etzait tokau, ez dakit.

- **I: Bai, lasai eskerrik asko.**
- **E1:** Neie etzait tokau ez dakit balio don, baino justo praktikatan neonen, azkeneko urten eskolan, justo Zeamakon ikasle bat etorri zan ta harrera ein zitzaion, osa momentu hortan kointziditu non, eta ikusi non nola eiten zuen prozesu hoi ta bai, jute zien egokitzen gela, informatzen zein zetorren, nundik, ez? Eta geo akordatzen naiz, bera sartzeko momentue eta jo nei pixkat gorra intziten, ze bea zeon erabat beldurtuta, ta ez dakit ez, aurkeztu zan gela txiki baten, eta bueno ba hola izantzan. Nei bai iruitze zait igual idealena, ez dakit harrera bat eskola mailan ez, hoi netzat oso inbasioboa izango zan beretzat, baino bai igual eskola konsziente izatea ba ikasle berri bat datorrela, karo ez dakit eskola eskala handikotan oso ohikoa izangoa baita, ordun ez dakit nola landu, baino bai ta gero eskola barrun ze baliabide daren ikusi, beste ikasle bat baldin badao herrialde berdinekoa igual, izan daike lotura bat hizkuntza itzultzaile, ez dakit batzutan eoten da beste batzutan ez, kasu onenen bai, baino askotan ez. Gero hoi, ba goxotasun hoi harrera baino goxotasunetik, berare oso eroso sentitzea, ta gero ba ez dakit, gela baita ikustea, ze erantzun daukien, ze ikasle mota, ba igual ba bide hortan laundu daiken ikasle bat ondoren jarri, ba hor nik ustet irakaslek, tutorek badauzkela estrategia batzuk ume hori eroso sentiarazteko baino nik ez det bizi hola irakasle bezela ordun ez dakit.
- **I: Karo ta bai egie da aipau dituzuela baliabidek, zuek uste dezue, gaur egun behar dan eskolatan ematen diela, bai irakaslek estrategik ditu, baino lan karga haundie da, ordun ezta bakarrik ume hori, ume gehio die, ordun ta zuek uste dezue behar dan denbora eta arreta eskeintzen zaiela ume hoiei eta irakaslei laguntza baita, ume hoiei laguntzeko?**
- **E3,E2:** Ez ez ez.
- **E1:** Nire jartzen naiz kasuik idealenen, eta nei ze gustauko litzaiaken ez? Ume bat ondo sentitzea ta eske ikusita daukezula talde bat, auskalo ganea zenbait ikaslekoa, segun ta ze eskolatan eta ikasle horin barrun mila behar, mila kasuistika, beste batei erantzuteko mila behar uzteituzu alde batea, ordun hor hortan iristea....

- **E2:** Ta geo gañea, nei iruitze zait hezkuntzan planteauta daon modun askotan igual /em/ egokitze hori askotan dala pixkat seinalatzen dola guaindik gehio.
- **E1:** Bai
- **E2:** Ze klaro gure kultura egokitzeko moduk zeana da gure hizkuntza ikastea, pixkat hizkuntza hezkuntzan euskera da, normalen D eredun behintzet. Ordun ikastetxen euskara ikasi dezan errekurtsua da HIPI batek, edo behintzet gelatik normalen atera eta ia hor prozesue bera jarrita daon, ezarrita daon modun, etzait iruitzen oso inklusiboa danik, ordun, baino aldi beren, tutorek ez dauke beste moduik.
- **E1:** Ez da iristen.
- **E2:** Ordun, osea, jarrita daon modun, moduik egokina hoi da, baino eindaie kontra ez? Ez dakit...
- **E1:** Tutorea ez da iristen.
- **E3:** Ez da iristen ez. Ez ta gañea kontuatzan zea batei ai baldin bazea arreta hoi eskeintzen ba hobeto sentitzeko edo eztaiz zer, seitun daukezula beste bat, urruti geitu zaizuna, eta etzea iristen ezerta. Ta karo denak erdizka uzten baituzu, azkenen daukezun sensazioa ezta zeoze iten aizeanik e.
- **I:** **Bueno eskerrik asko, guain egie da zuk aipau dezula harrera esan deu, baino gero baita egokitzapenez askotan, harrera bai dala garrantzitsue, baino gero aurrera jarraitzen do guztik, eta zuen ustez, zuek ikaslen, osa hau da, ikasle hauek etortzen die edo bai izan daie etorri berri diela honutza, edo beraien...kasu asko dare. Momentu hortan ikaslea eoten da “estres de aculturación” ez dakit ezagutzen dezuen.**
- **E1,E3,E2:** Ez.
- **I:** **Estres de aculturación, bueno hemen jarri ditut hitz batzuk zuek ulertzeko. Galera sentsazioa, azkenen posible da beraiek beste herrialde, herri batetik etortzea, desorientazioa, konpetentzia kultural falta, hizkuntza berrie da, gizarteko arauak ikasi beharra daukie. Ordun momentu hortan daon ume bat, nola, hau da, nola egokitu hori guztie ikasgela baten. Azkenen daukezu ikasle bat holako ba “estres de aculturacion” deitzen zaion horrekin, eta hori ikasgelan nola landu? Hau da, nola eingo zenioken eske ez dakit nola esan, hau da, gauza bat da harrera baino bestea ia da...**
- **E3:** Asentatze hori.
- **I:** **Bai hoi da.**
- **E3:** Nik ustet zaile dala, ze eiten dana da E2k esan don bezela, gure kulturatik jun geroz da ba gure ohiturak, gure hizkuntza, gure kultura hartze horta juten geala gehio ordun normala da zuzenen beste kultura baten, beste kultura batea iritsi ta hori sartzea.

- **E2:** Nik ustet hor garrantzitsue dala gure, azkenen gure ikastetxetan adibidez, ikasturtea dau oinarrituta gure kulturaren ez? Gure festak, gure... Ordun nik ustet hor garrantzitsue dala baita gure festa hoiek aipatzen ditugunenean, hitzeitan deunen ohitura hoietaz hitzeitan deunen ez hitzeitea zerbait bakarria balitz bezela ez? Adibidez nik bizi izan non, gabonak aiau ta Olentzero dator, baino etxe guztitan ez dator Olentzero. Ordun gelan, justo ni nao lehenengo mailan, sei urteko umekin, bua olentzero bizi due, baino danak ez due, danan etxea ez da juten, ordun hor hitzein etxe guztita ez dator Olentzero. Guaindala gutxi Ramadama izan da, hori beste batzuk ospatu due, bueno ba horire hitzein ez? Ez dakit nik ustet garrantzitsue dala irakaslek kontutan izatea ba bere gelan ze kultura-aniztasun dauken, ze kultura ezberdin daren gela hortan, ume bakoitzak etxetik hori nola bizi don, hori familian harremana izatea oso inportantea da hortako, nahiz eta errealitatean ez dan errea. Ta hoi hortik zaindu. Ta geo baita oso argi utziz hasteko familian osa nik ustet gure kulturaren ikaste hori honea ekartze hori ez da zerbait ordezkatzailerik, ez do esan nahi bere kultura, osea alderantziz, adibidez euskeran ikaskuntza izan behar da gehigarri, lehenengo beraien ama-hizkuntza eta gero euskera, kulturatan berdina, beraien ohiturak izan behar die lehenengok ta gero hemen ikasiko dituen bestek, ez?
- **E3:** Aberasteko puntu bat, ez beaiena kentzeko.
- **E2:** Ordun hori familian transmitu, familian hori umek jasotzen, ze askotan igual hor ikusten due bestela, nolabait bi...
- **E1:** Despropozio bat o kendu eiten zaie beaiena.
- **E2:** Bai hoi da, bai eta...
- **E3:** Bai okerragoa zein...
- **E2:** Eta familia eta ikastetxea kontrara edo balere bezela. Eta ez da hola, ordun.
- **E1:** Bai ta nik ustet hor hausnarketak egin beharra daukeula guk e bai e, ze askotan ez die ezta planteatzen osea, ba hemen ezta euskeran eune da ta danok ezta egin behar duen ze beti egin da, jo ta beste guztin lekue nola? Osa ta hori... Ta ezpadeu iten ze pasatzen da o beste batzuk eiten badue baita ez dakit dare gauza batzuk oso oinarritzok hemen daukeunak egin beharra dare ta hor jo ba igual gu pausu bat atzea dauku egin beharra ta beste batzuei lekue utzi. Ta hori ia eun berezitan, baino euneroko martxan nik ustet, ikasle hauekin planteamendua ia nola daon jarrita, nola daren klasek ba nola daukezun planteatuta ikasturtea. Hori ia oso mugatzailea da. Azkenen irakaslek bere erritmekin jarraitu beharra dauke, ta horri aurre eiteko ba gaizki esanda traba bat jartzen badie, ba hor ezin do ta *se supone* eske haurra egokitu beharra do, planteamendu hortan esatet e, haurra egokitu behar da martxa hortan baino eske inposiblea da, lehenengo guzti hori do ta geo ia hasiko da ibilbidean ez? Ordun

nik ustet planteamendue berare ia oso mugatzailea dala, prozesu honekin. Ez datorrela bat.

- **I: Bai egie da askotan ee aipatzen dala, ta gero igual ikutuko deu, baino zuk esan dezu azkenen traba edo zailasun bezela aipatzen dala irakasle askok baita ee harrera azkenen, esan bezela prozesue da, berez nahi bezela osa ein behar badezu, osa harrera on bat, denbora behar do, eta eskeini behar zaio haur horri behar dan, behar dan babesa eta hori guztie. Baino bai egie da hor daukeula koska haundi bat. Ta, baa guain salto eingo deu aurreikuspeneta, hau da, zuek ee atzerritik etorri berri dan edo atzerritarren seme alaba baten ee hurrekiko zer nolako aurreikuspena daukezue? Asko aldatzen da /eee/ lasai erantzun, eremu seguru bat da, asko aldatzen da zuen aurreikuspenak /ee/ esateako adibidez Zegamako /eemm/ gurasok ditun seme-alaba bat eta guaintxe etorri berri baten, Marruekosetik etorri berri da ume baten, hau da, aurreikuspenak aldau eiten die**
- **E1:** Aber nik ustet asko sentituta, nik netaz hitzeingoet, baietz. Hor eon daizke aurreiritzi bantzuk, ia kulturakiko /eee/, jarrera batzuk ikuste baituzu baita /eee/ gurasongandik e hor e zure loturak ein daizkezu ez? Ia ba kultura horin atzen ba ba zenbait sinismen dauzkeulako ta ia eztitugula konprobau *por que* ez gea askoz gehio harremandu ez? Ordun nik baietz esango nuke, pena haundiz baino bai.
- **E2:** Ta nik ustet, bai ta ni ados nao, ta nik ustet halare, aurreikuspen horitan e zea gehio daukela /emmm/ eztaiz nola esan, baldintzatzen dola baita umen adinek, osea igual ume hori etorri berrie dana, baldin bada hiru urtekoa igual eztauke hainbesteko, baino baldin bada hamar urtekoa ba gehio ez? Azkenen e bere prozesue ibilaldi, ibilbidea *digamos*, luzegoa da /ee/ ordun eta in behar don egokitzapenare bortitzagoa da /ee/ hiru urteko batek in behar dona baino, nik ustet hor adinek e asko baldintzatzen dola.
- **E3:** Azkenen da zuk irakasle bezela pentsatzen dezu berekiko eta esaten dezu ostras honekin eta beste guztikin dena iteko o ez naiz iristen, o zure burugan jartzen dezun presioare bada, ze azkenen zuk nahi dezu ume hori ondo sartzea edo baita ez gehiegizko babesa ematea segun ze kasutan, ta beste batzutan bai behar dola babesa, baino nei iruitze zait ni hasten naiz, nire kasun, ni hasten naiz ia aurreiritzi batzugin, igual gehigizko kasu hortan, lehenengo momentun, gela alde bateago utzita, bueno nei pasa zaitena. E behin bakarrik izan da, gehiegizko kasu hartan /ee/ ikasle berri dan ikasle horrengan, ee ta geo kontuau igual bere eskatzen aizaitela ez iteko igual hainbesteko kaso hori edo eta nire aurreiritzie da de laguntza behar don puntu hori, laguntza, ta ezto behar laguntza, etorri da honutza x situaziokatik, e gurasok etorri dielako, bizitza hobego baten bila o igual hobeto zeren baino lan aldaketa eske ez dakit, baino nere joera da ikustea e ai gaixoa e lagundu ein behar diot. Ta ez da gaixoa,

ez dakit, ez da pertsona bat /ee/ ahule, baino lehenengo momentun ahule bezela ikustet, eta nire aurreiritzie hori da, geo /pff/ lan karga etortze zaizuna ta ba bakoitzak eamaten dona da, baino lehenengo puntu hori bai batzutan, pena puntu hori, baino /pff/ eztakit.

- **E2:** Ta gero nik ustet, beldur hori osea esanaet, azkenen zuk ikustezulako zailagoa dalako egokitzea hamar urte dauzkenen hiru dauzkenen baino, baita da hezkuntza planteauta daon modukatik, haur hezkuntza askoz libregoa da, askoz askatasun gehio dao, erritmok gehio errespetatzen die ordun ee ez dao ezta preokupazio. Lehen Hezkuntzan ikastetxe batzutan hola da, ordun seguro nau holako ikastetxetan errezagoa izangoala baita egokitzea holako ume batentzako, nahiz eta berdin berdin eukikoitun zailtasunek edozein oztopo ta kontutan euki behar dan, baino geroz eta /ee/ ez? Ez dakit...
- **E1 eta E3:** Bai bai.
- **E1:** Ta gero aurreiritzik baita, osa ni guain pentsatzen jartzen naiz ta generok baita eragine euki daikela /ee/ adin gehiotan jartzen aйнаiz, Haur Hezkuntzan ez det hainbeste kontrolatzen. Edo ijiton kasun, ba neska baldin bada edo mutile baldin bada ee ia igual aurreiritzi batzuk lotu daizkezu, gero familikiko, geo pentsamendu hoiek bat e nahi o ez nahi, zuk osa nik, ustet inoiz ez naizela zuzendu pentsamendu horikin, hitz desegoki batekin ume batengan. Baino nik ia aurreiritzi hoiek baldin badauzket nire burun eta beldur horik ee bere familikiko o ez dakit ez? Ia zeharka mezu hori badijo ume horrena, eta nik ustet hori pasatzen dala, ba lehen esan deuna, ba hor e lanketa ein beharra dau guzti hortatik.
- **I: Bai hoida, ta aipau dezue askotan familikoki baita, esan det ikaslea baita baino horren atzen dao famili bat x kasu ta familikoki baita aurreiritzik oso presente eoten diela edo bai irakaslen arten, gure burun eta ahotik aterabe baino.**
- **E3:** Bai, ta gañea harremanen bat eon dan familikin bai edo ez asko aldatzen da baita. Harremana ona izan bada ba ume horrekiko daukezun ee begirada desberdine da, gurasokin ez baldin badezu ee sensazio ona euki o gaizki e hartu eman txarra euki baldin badezu, e gero igual beldurrekin zare e gelan ikasle horrek e eingo don zerbait etxea iristea. Dana etxetik pasatzen da, ordun gero eskolako ikaslek bata bestekiko hasarrek etxea iristen dienen ta irakaslena datozenen kontu eske edo arrazoi baten zea ba azkenen /pff/ pertsonak gea ta ni e ondoko batekin beldurtzen naizen bezala, ba guraso batekin edo ikasle batekin e bai pasa leike beldurre sartzea, o kezka o eztakizula ze ein. Ta askotan eztakizun hortan, izan leike edo eztakizula laguntza eskatzen zuzendaritzan, o eztaukiela ezta o ez daukezu denboraik ee esateko nik laguntza behar det nire gelan honekin, baino ez dao beste pertsona bat sartu leikenik

nik bildur hori dauketelako edo oztopo hori dauketelako. Ordun gelditzen da dana ba
ola.

- **I: Bai irakaslentzako ta irakaslen sentimenduk ez dakit...**
- **E3:** Zu gelditzen zea ezin dezula horri aurre ein eta laguntza eskatzen badezure ezin dezula lortu, ordun bai umeekeiko, bai umentzako ta kasu hortan irakaslentzako, nahiko gorra izatea, iruitzezat.
- **I: Azkenen hor, e atzerritarren haurrek edo zuen ustez, lanketa bat eiten bada, bai irakaslek familikin o haurrekin edo, ikasgelakin eta eskola mailan baita, lanketa ez hurre presente eonda e, aurretik einda, zuek uste dezue e horrek erreztuko lukela bidea gero etortzen daneako edo ikusiko zenuen lanketa bat inda, edo aurre lanketa bat inda askoz erosogoa izango zala bidea...**
- **E2:** Bai bai
- **E1:** Bai, nik ustet baietz.
- **E2:** Nik ustet edozein gauzakin bezela esan nahi det, edozein e ...
- **E3:** Gutxinaka hasten dan zerbait...
- **E2:** Aurre lanketa bat dauken edozerk gero errezten do.
- **E1:** Gero hor azkenen baita, nahiz ta aurre lanketa bat osa zuk intentzio bat euki, azkenen pertsonakin lan eiten deunez, ba igual gero topatzen dezu famili bat o egoera bat ba zuke puntu batearte e eragin daikezuna, ta zuke igual indar bat daukezu osa ez dakit ez? Ta nik ustet horire onartu behar dala, ein behar deula esfortzu bat hori aurretik lantzeko eta dana, eske errezago juteko irakaslentzat, familintzat, haurrantzat, danantzat. Baino bueno konsziente izanda e ez daukeula kriston boterea eztaiz ze egoera aldatzeko, osea eta oso kasu zailekin e topo ein daikeula.
- **E3:** Bai, baita jakin ein behar e lanen aigeanen, bai haurrekin e lanketa hori eunerokotasunen zuzena daukeu, baino geo e segun ze famili datorren edo pasatzen da edo nire esperientzitik pasa zait e familiko kide bat gerturatzea, ba igual ez irakasle naizen puntutik, e pixkat /mm/ laguntza bila edo, beste apoio baten bila, ez bere semekatik, bere burukatik ia. Nola zu azkenen famili baten sartzen zea, ta ikasle horren egoera hortan, ama gerturatzen bazaizu o aita gertuatze bazaizu, karo eskuk zabaldu behar dizkiozu, ze bere umea daukezu ta beti prest eon behar zea, baino jakin ein behar dezu baita ze puntuarte esan behar dezun e puf hau ia ezin det, ta moztu ein behar det ze e zuk profesional bezela ez dauzkezu erramintak horri aurre eiteko ta igual esan daikiozu beai gauza bat ba lagun arten esango zeniona, baino eskolan...
- **E2:** Jakin daizkezu baino ez dagozkitzu.
- **E3:** Hori da, jakin bazu mozten ze puntutaino bai ta ez. Umei kalte eingo dion, ez dion eraingo, puntu hoiek ia zaile da osea nun daon barrera hori.

- **I: Egie da familia askok e eskola babes osea igual batzutan irakaslek, baino normalen eskola hartzen due emozionalki babesa emango.**
- **E3:** Bai eta bada puntu baten eskola apoio puntu hoi, bai familikok...
- **E1:** Bai eta guke badaukeu puntu bat arte ardura bat, baino bueno...
- **I: Baina, adibidez, zure kasun e justu zuk bizi izan dezulako esan dezu, e momentu horretan osea zuri hartu zizun momentu horretan pertsonalki, holakotan eskolan aldetik babes bat bazeon edo familia horrei e harrera babes emozional hori emateko bazeon...**
- **E3:** Bai, baino kuestioa da ni eon nintzen gela zan irakasle asko pasatako gela bat, ta behine etzeukien norbait finkoa, ta ni izan nintzen bi hilabete finkona eon zan pertsona. Ordun e gustora eote hortan edo pertsona jarraien ikuste hortan gehio gertuatze zien, ba laguntza eske o herrin ia herri mailan maila ekonomi bajuko familik zien, laguntzak nola eskau zeizkien, beaien papeleok, eskolaz nola aldau, /pfff/, dana. Eskolan, azkenen zu zea e erreferente puntu zuzena, ordun zu zea bertakoa, ta zu zea lagundu daikeiozun bakarra, ordun zalantza danak, papeleo danak e danak zuregana juten da. Baita familiko arazok badarere eskolan bukatzen due, e umea gaizki dao x pasazaiolako familin, ta azkenen zuk eiten badezu amakin o atekin o dana dalakokin bilera bat umetaz hitzeiteko, azkenen bukatzen do e amagan, o attegan hitzeiten, ta karo osea hor aiatze zea momentu horta ta esaten dezu aiama, ta guain? Ta karo igual eskatzen dezu laguntza zuzendaritzan o beste irakaslei ta esaten dizue bai beti datoz kontu hoiekin edo zu sartu ba nahi dezun kontuaino. Eztao e laguntza puntu bat edo /pff/ ez dakit.
- **E2:** Nik adibidez ez det hola bizi izan, osa nik bizi izan det, dauzket familia batzuk, bereziki batekin bilera dexente ein ditut e baita die hegoamerikarra da ama, nahiko famili... Baina nik adibidez beti PT-kin eiten ditut bilerak, e harremanetan gare bere psikologokin, esan naet nik bai sentitzen detela ikastetxan babesa alde hortatik, ni bai sentitzen naiz babestuta zentzu hortan, ordun nik ez det hola bizi. Eta ama horrekin harremana eunero dauket, ba da ume bat ba bai dauzkela e jarrera arazok ta, baino...
- **E3:** Ikastetxan arabera asko aldatzen da.
- **E2:** Bai hoi da, ikastetxan baitan ta gero karo hor baita finkotasuna asko eiten do.
- **E3:** Karo zu baldin bazea pertsona bat iritsi berrie danare e ez dakizu ezta eztakit.
- **I: Asko aldatzen do horrek.**
- **E2:** Bai dana.
- **E1:** Asko baldintzatzen do finkotasunek. Eskolako zein daon zuzendaritza taldeen,
- **E3:** Bai ta kulturartekotasunen bateze, e osea geroz ta ikasle etorkin gehio, e ni kontuau naiz eraiten diena pertsona finko bat ez eukitzea, e aldatzen dijon irakasle bat ikusten badue, burun gelditzen zaiena edo bueno, danoi geldituko litzaigukena bueno

hau etortzen da baijo, hau etortzen da baijo, hau etortzen da baijo, /pff/ gure hola gabiltz, eskola batetik bestea eskola batetik bestea. Ta dana izango balitz bezela /pfff/ finkotasun ezer gabe, ta ordun amorru puntu hortatik, ezengonkortasun baten dare eunero.

- **E1:** Gogorra izan behar do hori e.
- **E2:** Nik ustet holako familitan normalen, aber ez dauke osea ez da orokorra, edo igual aurreiritzi bat da e baino egie da normalen ezegonkortasun asko eoten dala zentzu askotan, ekonomikoki hartuta karo kanpotik, nahiko ezengonkorra izaten da, emozionalki pentsa e beraien herrialdea utzi due, hor bai beraiek, bai gurasok e, gero...
- **E3:** Famili gabe etortzen die asko.
- **E2:** Herriratze hori, ezegonkorra da oso. Ba normalen, eskola bai da egonkorrena dan eremue. Eta ume asko dare, beraien errutina egonkor eta osasuntsuna eskolan daukien, orduen karo ba zuk esaten dezuna eukitzea erreferente bat ikasturte guztin zehar beaiekin eongo dana, e .
- **E1:** Bai nik ustet garrantzitsue dala.
- **E3:** Bai eta askotan entzuten da komentarioa ikasle heldugotan e, bost seigarren mailan, osea zerbait esan da bueno zu hau esaten ai zea baino zu jun eingo zea, ta beste bat etorriko da ta beste gauza bat esango digu.
- **I: Dinamika harrapauta daula ez?**
- **E3:** Eta /pfff/ gogorra da.
- **E1:** Balioa kentzen die bai hezkuntzan ta bai danai, baino frustrazio puntu batetik biziko due dana, min batetik. Ez intetzio txar batetik, *esa sensacion de abandono*, babesleku bat izan partez ba...
- **E3:** *Hombre* eta dare kultura baten beaien etxen e bolatxo baten ta eskolan beste bolatxo, bueno beste bolatxo, baino beste zea baten ta geo finko ezerrez. Beaiek e eztakie ez etxen pff lanakiko, egonkortasunik normalean segun ze familitan, etorkinetan ez da eoten orokorren, gero ba klaro badare famili batzuk oso egonkortuta darenak hemen, bizitza osoa hemen jarraituko duenak e. Baino askok ez dakie o etxe hontan jarraituko duen, o beize beaien herrialdea bueltauko dien edo ze intetzio daukien, ordun...hortan, umek hori jasotzen do. Eta eskolan e hori ikusten bada, irakaslen jun etorrie zaile izaten da.
- **I: Bai, bai dala karga. Bai ta geo eskolan babesba ta baldin badaukezu, ba kasu hortan dena errexago izan daikela. Baino baldin bada egoera kaotiko hori...**
- **E2:** Ez, osea nik baita, justo bizi izan deulako, bueno lehenengo mailako beste gela baten ikasle baten, osea kontutan osea dana eztao zure esku, ta zuk in daikezu ikastetxe bezela, o irakasle bezela e konkretuki zure esku daon guztie, baino gero familik e hor e osea ein in behar do, e ikaslek errumaniarrak zien, honutza etorri zien

ba ez dakit duela pare bat urte, baino zeren etzekiela jun behar zien bai edo ez, umea etzuen ekartzen eskola eun pila batetan, gero igual ekartzen zuen gero igual guain jun ein behartzen, aurreko asten bapatea enteau ginen azkeneko eune zala ordun agur bat prestatzen, hor e ia ostiralen bukau zon, guain enterau gea guaindik hemen dare, ze medikun zai dare juteko, ekainen jungo diela, osea hor e zuk ein dezakezu ba aldezun guztie o aldezun ondona, baino karo osea hor familikin eon beharren dao, azkenen.

- **E3:** Eta egoera hoi eztao egonkorteik ez baldin bada dana /pff/ lasaitzen, estres momentu, estresen bizitzea denbora guztin, konstante batem. Bai familik bai beaiek, ta gu irakasle aldetik ba baita.
- **I: Karo azkenen hoi dana ikasgela trasladatzen dala guztie.**
- **E1:** Nik hor esan nahi non, e azkenen nik ustet oso baldintzauta daola finkotasunena, baino baita eskolak ze planteamendu dauken lehen esan deuna, harrera planak ta hoi dana. Aber ta dokumentuk die ta hoik azkenen berritu ein behar diela, egoera guztik ez dituztela abarkatzen, baino jo definituta baldin badauke behintzet *como un plan de acción* edozein egoera edo etortzen dala, ta zuzendaritzatik esatea bueno ba beitu zuk honekin baino hau gure ardura izangoa, hor babes hori eon beharko litzeke. Ez dakit.
- **E3:** Askotan dao papela ta zuk ezin dezu ezta etorri berri zean irakasle bezela e papel horta sartu edo harrera plan horta akzeditu ze eztizue eman eskolak eztitu erraminta danak aurkezten etortzen zeanen, aparte e puf...
- **E1:** Keba, ta paperak e askotan, nik ustet baita oso erokorrak ez? Ta ze egoera? Ta nik hor ustet ikusi ein behar dala ze behar daren ta horiei erantzun, ta ez paper horrek esaten dona ze, baino bai eskola bezela behintzet joe ba.
- **E3:** Protokolo bat.
- **E1:** Bai zuzendaritza dau ta erantzun ein behar zaio, ta hor babestu, gehio irakasle berri bat baldin bada osea. O ikastetxe haundi bat baldin bada paralelak edo...
- **E3:** Harrera klaustro finko batek eitea edo...
- **E2:** Baldin badie ikastetxe batzuk prezisamente oso irakaslego ezegonkorra daukienak eta mugimendu asko daukienak ba gehio, bereziki beharko lueke eon.
- **E3, E1:** Hori da.
- **E1:** Ta gero beste gauza batzuk. Ta aber ezta *por hechar balones fuera, por que* erantzun ein behar zaio baino ez dakit ze dokumentazio behar duela joe ba hor udaletxe batek e ba teknikarik o eztat.
- **E2:** O gizarte zerbitzuk.
- **E1:** Bai hor badare beste zea batzuk e ba ardura beraiena dana ta egie da hor joe etortzen zaizkzunen egoera berri baten
- **E3:** Galduta.

- **E1:** Horri erantzun ein behar zaio, baino hor zuk biderau daikezu, ba beitu hori eztao nire esku, ezta nire eskumenekoa ordun nik ezin dizut ondo informau, ba hemen honea jun, ta hor herri mailan eon beharko litzekela ba ez dakit.
- **E3:** Eskola ta herri mailan eon beharko litzeke lotura bat e bai gizarte hezitzailekin ta guztikin lotura bat eta ni herri hontako irakaslea banaiz ba nire herriko gauzak ezautuko ditut, baino karo jute banaiz e Aguraina ez det ezagutzen herri hortan daon baliabide pertsonalik, ordun e gizarte zerbitzuak biderau behar baldin badezu, ba igual zuzendaritzak biderau beharko luke zuzenen em kontaktu hori ez dakit ze puntutaino eskola guztitan daon o....
- **E1:** Bai nike eztakit nola daon hoi guztie e, baino jakin ein beharko litzeke.
- **E2:** Nire kasun oso ezberdine da, egie da justo ikastolan horrekin ein non ikastetxe batek dauken herri nortasunen ez? Hor, ta horrek danak dena errazten do.
- **I: Horrek errazten do dena, bai prozesu guztie.**
- **E3:** Bai ta papeleo kontu guztie, finkatze puntu hori dagokionai eman ez e eskola.
- **I: Bai behintzet erantzun bat izatea, biderau honutza ta hor erantzungo dizue, lagunduko dizue.**
- **E3:** Eskolak euki erantzune emateko gaitasuna, jun horrutza, horrutza, hemen eingo dizue oso ondo, baino lotura hori herrikin bai.
- **I: Ta guain igual herritik hezkuntza sisteman baita, beti esaten da hezkuntza sistemak nahikoa baliabide ematen ditu edo denak trabak die hezkuntza sisteman aldetik? Harreran, egokitzapen prozesutan....**
- **E1:** Ez dakit...
- **I: Nola ikusten dezue baliabide aldetik, /el pues ez dakit...**
- **E3:** Pertsona bat bialtzeko garaien nik euki deten esperentzien, ni eon naizen ikastetxetan e hiru aldiz eskau da e PT bat, edo ez PT bat ez hezitzaile bat, e ta ratioa e ume bat momentu hortik aste beteta bazijolako, ratioa etzan iristen, ta behin e etzien ematen baliabide hori, hezitzaile hori.
- **E2:** Hezitzaile bat emateko, e osea ez dizue ematen hola ta hola, ez.
- **E3:** Ta nahi ta aurkeztu kasu bat benetan beharko lokenare, /pff/ zaile izaten da, ta gehio dijo numero aldetik.
- **E2:** Baino ez hezitzailea bakarrik, HIPI-e, logopeda. Adibidez, HIPI-e euskera errefortzue e ematen da bi urtez, e etorri berrie dan ikasle bati. Baino ume hori balin bada famili etorkin bnatekoa baino hemen jaio bada ez dagokio. E osea esan naet badare gauza batzuk hezkuntzan, bueno trabak edo dauzkie e rekesito asko, ordun ez da erraza.
- **E3:** Mugatuk die.

- **E2:** Ta nik askotan ustet, e ba baliabide pertsonalak emateako garaian ezartzen die zenbait irizpide ez? Eskatzen dienak ta zuk geo errealitateen igual irizpide hoiak ez dituzte betetzen baino behar dituzu beste bi esku, baino behar dituzu beste bi esku, eske etzea iristen.
- **E3:** Irizpideak oso oso extremok die baliabide pertsonalak lortzeko. Normalean ta dana izaten da eo e grabedade haurran e behar berezie dauken haurran grabedaden mailan arabera.
- **E2:** Karo hasteko haurra mapan barrun sartuta eon behar da.
- **E3:** Karo hori da.
- **E2:** Gero euki behar ditu.
- **E3:** Eskolan ratioa zenbatekoa da, ikasgelakoa zenbatekoa da, zenbat e zea bezela, zuzendaritza talde bezela zenbait dauden ta zenbaitek eingo luken hezitzaile lan hori, eske dana hartzen da kontun. Ta orduak ez due ematen.
- **E2:** Ta hor kultura-aniztasunei erantzuteko baliabideak ez dituzte ematen. Osea esanaet emangoizue, etorkine baldin bada o beste kultura batekoa baldin bada, baino baldin badauke edo atzerapenen bat akademiko, edo jarrera arazok baldin abduzke, zentzu hortan, ez etorri berrie dalako eta laguntza behar dolako.
- **E1:** Bai ta nik ustet hor lehentasunek darella, bueno lehentasunek ez ez dare baino emate zaiela batzui ta hor batzuk gehitu daizkela *en tierra de nadie*, osea ta segun zein zean ta gero gainea ikusten badue segun ze egoera dala, zu re familin, adibidez zuk lehen aipau dezuna errumaniarra e hoi ba igual familie dabilera ez dakit ze, ba esatezu igual beste batei egokituko diot, nik ustet horire gertatzen dala. Ustet beharrak e, lehentasunek beste batei ematen diozu, ez dakit e.
- **E2:** Bueno eta nik behintzet, ta nik hola bizi det aurten e osea ematen dituzten baliabide pertsonal hoiak ia zure ikastetxen barne gestion moldatzen dituzu. Osea nik adibidez dauzket 24 ikasle, ez dauket hezitzailek, ez dauket PT-eik, baino nire gelan beharko genituzke lau osea, ordun nire mailan bi edo hiru pertsona ibiltzen die beste gelatan baino askotan nereana etortzen die, e edo e behar det momentu hortan ze bat batek aldein ein dit, ba telefonoa hartu etorri hau, zu baita gestionatzen saiatzen zea.
- **E1:** Bai eta hezkuntzak limitaziok jartzen dizkizu ta egie da gero zuk eskola mailan erantzunen txantxulo batzuk ein daizkezula, askatasun bat badaukezula. NI goatze naiz lanen eon nintzen hoi ite zala, osea eta e etortzen zienen hezitzailea ta ba nahiz eta ikasle batzuk ba berez ez egokitu, ba joe ikusten zalako segun ze behar zeola, erantzun ein behar zitzaion ordun beaiekin jartzen zan, baino osa....
- **E3:** Bai karo, baino hor pertsona bat, bueno zuzendaritza bat edo eon behar da.
- **E1:** Baino hor hezkuntzak ez dizu ematen eta ordun hoi ba ein behar da *como* ba hezitzailea bere ordutegie banandu alamuz, ta geo baldinbadaukezu ba baliabideak o

espazio bat. Ez dala inklusiboa edo ez, beste batzutan behar da baita beaiek seguru sentitzeko, baino batzutan e ez dao, eta eske /pff/ ez dakit, nik ustet.

- **I: Eta guain lehen ez dakit pixkat aipau dezu baita, bueno kultura ezberdinek karo, hasieran aipau dezu hemengo kultura, ta gero beraiek etxen daukien kultura edo ez dakit, entzun dezuen identitate plurala? Bueno hitzek berak esaten dona...**
- **E1, E3:** Bai.
- **I: Azkenen identitate ezberdinek izatea hurrek. Zuek uste dezue ikastetxetan identitate plurala lantzen dala, edo ikasle /mm/ ez dakit, ez da landu, baizik eta umek identitate plurala izaten uzten zaie?**
- **E1:** Bueno, nik ustet, e bueno ez dakit e, lehen esan deun horrekin igual gure kultura egokitze hortan igual bai batzutan badao identitatea kendu edo ez? Eta egokitu gurea. Egokitu gurea ze hau da gurea, ondo dao zurea baino guain hemen zare ta guain hau tokatzen da. Osa, nik ustet hori bai ematen dala. Gero bai ba, eske netzat baita eiten da, ba hoi e ba oso ondo dao eun espezial bat eitea, kultura ez dakit ze, baino gero eunerokotasunen beste hori da, ba hemen zare ta ordun, ba euskeraz, joder ta hor nun dao bere identitatea? Nik ustet hor kendu eiten zaiela.
- **I: Askotan, kasu asko ematen die, esateako, e ume bat hemen jaio dana, baino bere gurasok Japoniakok die. Karo ume horri jende askok esango die ez tala hemengoa, eta hautza juten da ta ezta hangoa, ordun geatzen die *en tierra de nadie*, zuk esan dezun bezela, ta karo zuen ustez holako kasutan, identitate plural hori hemengoa zea baino baita hangoa, azkenen bi dituzu, etxen daukezu bat, zu zea bat, esan nahi det ez dskit zuek uste dezue holako, horrei presentzie ematea, edo gelan lantzea...**
- **E3:** Landu baino zuk irakasle bezela esaten dezunakin presentzie eman daikezu edo ez. Edo jarduera bat iteako garaien eta adibidek emateko garaien zenbaiteaino irikitze zean o zenbaiteainko adibidek emateituzun, baino geo egun puntualak eoten die kultura-aniztasune lantzeko ta gehienetan edo festak, hizkuntzak, euskararen eguna, ze beste hizkuntzaik ezta ospatzen.
- **E2:** Nik hor dauket, osea, ni euskaldune naiz, ta harro nao, ta nahi det Euskal Herrik eta euskerak aurrea jarraitzea, baino hezkuntza mailan oso gaizki ai gea eiten euskeran lanketa hori, ze gero gure errealitatea geroz eta gehio etorkin gehio dare, geroz eta kultura eta hizkuntza gehio dare gure ikastetxetan eta euskara orokorren dau behartuta, e inposau eiten da nolabait, eta ume asko dare retxazotik ez? Eta ordun iruitzen zat, nik guaindik ez dakit nola ein daikein, eta ez dakit norbait asmau don formula benetan nola eindaiken esanez euskera landu ta gure kultura ez galtzeko, ze jo azkenen oso garrantzitsue da gure hizkuntza minoritarioa daukeu, kultura oso txikie daukeu eta oso garrantzitsue da hori babestetuta eon behar da, hoi landu behar da

baino aldi beren pff ez dakit nola ein daikain bestek benetan ez zapalduz eta pff ez dakit iruitzen zait zaile dala.

- **E3:** Hor ein beharko litzeke, edo bide bat izan daikela, eztaikit nola baino erakustea euskerak ikastek aukerak haunditu, abanikoa haunditu eiteizu, bai zurea ondo jakitek, bai bestenak, bai hemengoa hemen bizi zeanez, aukera irikitzen dizkizu, baino eske eiten behar da.
- **E2:** Baino zuk hola planteatzen dezu, familiri ta esaten diezu azkenen eta egie da ba azkenen arrakasta sozialai beida garrantzitsue da, edozeinetako, hezkuntza 16 urte arte derrigorrezko euskeraz da, behar da, da zerbait aberasgarrie da, planteau berez ola planteatzen dezu, baino gero umekin zaile da.
- **E3:** Nik planteamendue bai, baino normalen inposaketa bat eiten da.
- **E1:** Baino beti, euskeraz, euskeraz, ta da *como a ver* eske gañea hola *rechazo* bat besteik ez dezu garau behar haur horrengan. Nik ez dakit e, baino lehentasune lehenengo ume horrekin komunikatzea, bea eroso sentitzea eta hori lortu behar baldin badeu bere hizkuntzan hitzeiten, kasu onenen gazteleraz, bestela eske, beste egoeratan ez dakit nola eingo litzekeen, ze horire planteau ein behar da ez? Segun ze pertsona eskolan eukitzea, ez dakit. Baino eta gero ia, ba bai noski baietz gurea babestu behar deu, eta gero berai aukerak emateko, etorkizun oparo bat emateko hemen nahi bado gelditu, ba baliabidek eman behar zaizkio, ta hor ulertarazi behar zaio ikasi ein behar dola, baino berea ezin zaio ukau, osa hor beak eta nik ustet hor ikusi bi ume txiki hitzeiten bat gazteleraz ta bestea euskeraz, ta komunikatzen ai die, ta halare irakaslea atzetik jun eta euskeraz. Joe komunikatzen ai die, jo ta ikasten ai die elkarrengatik, bai bat gazteleraz ta bestea euskeraz. Ba utzi aukera hori, joe ez dakit. Egie da formula oso zaile dala.
- **E3:** Asko entzuten da baita, igual marrokiarrez ai badie bi ume nola guk ez dieun ulertzen askotan e esaten zaie, nik ez dizut ulertzen, bueno nei etzat pasa e, nik ez dizuet ulertzen ordun hitzein edo euskeraz edo gazteleraz. Zuen hizkuntzan txutxumutxuka ez, ta igual jangela ordun da holako momentutan moztu eiten zaie beaien ama-hizkuntza hori. Nei pasa zait aste bete eon naizen eskola baten, iritsi zala ume bat ta ez genikiun ze hizkuntza hitzeiten zon, bagenekin gurasok zetozeela Afganistanetik, attek inglesa ulertzen zon ta amak bakarrik beaien hizkuntza. Ta ikasle bat zan 2 urtekoa, ta bestea 5 urteko gelan. Ta beaien bin arten komunikatzen zien, karo bi urteko neska txikie guaindik hizkuntza gabe, ulertzeko lain bai baino keinuz, baino 5 urtekok hizkuntza bat zeuken baino ez genekigun zein. Erderaz eiten genion ta etzon ulertzen, ez dakit ingleseaz saiauko naiz, *ya que* bere attek inglesa dakinez, karo ta inglesare bere irakaslek etzekien, ordun ingleseko irakaslena jun ginen, ingleseko irakaslekin ume horri, gela barrua sartu zan, jolasen ingleseaz ein genizkion

galderak, eta ia erantzuten hasi zan. Ordun zerbait eiten hasi zan, eta ostiraleako bukau zon ingelesez hitz batzuk esaten behintzet. Ta esaten gendun ta guain, horrekin noa zoatz baita, lehenengo maila batea dijo e buff ez gaztelera, ez euskera, ez ezer, ta gero gure esanez euskera beharrezkoa dala, bai, baino lehenengo komunikazioa da, ta ez badiou ematen komunikazioi garrantzie ematen lehenengoi? Karo eta askotan esaten da lehenengo komunikazioa da euskeraz hola ta hola. Ta hori ez da.

-
- **E1:** Ta lehenengon zuk esaten zenuna baita, hitzein genula kasu bat zenukela baita zeukela hizkuntza nahasketa, ta garrantzitsue dala...
- **E2:** Bai dauket ikasle bat guraso marrokiarrak diela. Umek ez do hitzeiten gelan, euskeraz ez da gai hitzeiteko, ta gaztelera e ez dauke hizkuntza aberats bat, ta marrokiarrez ez dakit. Gurasok euki nitunen urtarrilen, ama etorri zan, amak ez daki gaztelera eta anaiekin etorri zan, anaie dau DBH, ta anaie itzultzaile bezela. Ta guaindala gutxi, umek ez dakizki zenbakik, hizkik, guaindik, ikasturten ez do aurreapenik eman zentzu hortan. Gurasoi bilera bat eskau nien, ta atte etorri zan lehenengo aldiz, gertuau nintzen ta erderaz zekin, ordun esan non bale, ba bilera bat eskau nion beakin ta emaztekin, bik etortzeko. Ordun etorri zien eta bueno konturau nintzen, nik urtarrileko bileran transmititu nien etzuen nahi izan ondo ulertu edo etzun ondo jaso, bueno besteikbe, ta nik esaten non ume honek behar dona da lehenengo bere ama-hizkuntza ondo ikasi, bueno nik behintzet ikasi non, hizkuntza baten ikaskuntza iceberg baten irudi bat da, icerberg baten kanpokoia ikusten dezu, baino azpin daona, sustraiek askoz haundigok die. Ordun zuk zure ama-hizkuntza ikasten dezunen, beko hori, oinarri hoi ondo errotzen bada ta sendoa baldin bada geroa ikasiko dituzun, nahiz eta izan guztiz hizkuntza ezberdin bat, hori hor dao, morfologia, sintaxia, esaldik egituratzea, nahiz eta izan euskera ta inglesa, ez daukiela zerikusik, ama-hizkuntza hor dao. Ordun esan nien garrantzitsue da oso bere ama-hizkuntza ondo ikasi dezala, zenbakik, hizkik, karo arabez ikasi dezela, eta karo hori geo azkenen zuk iten dezuna da itzulpen bat, transmisio bat da. Eta batzutan hasten da idazten da ta kopiaketa hasten da eiten eta eskubitik ezkerrea hasten zait, osea ez dauke egitura bat, ba zure hizkuntzan hola da, euskeran hola da, baino ez dauke ezer errotuta, daukena da nahasmena. Horrek, nik esaten nion, bateze kaltzen do harremanetan, ez da gai harremantzeko, ordun? Eta harremanak bizitza da.
- **E1:** Nik ustet hor, ikuspuntu hortatik, ezinbestekoa dala ama-hizkuntzai lekue ematea, hori oztopatzen badiou, beste ikaskuntza ia oztopatzen ai geala, ordun hori potentzialidade bat da eta eutsi ein behar zaio eta karo ez ukau. Osa ez dakit, ez dizut esaten klasek marrokiarrez emateko, ze ez dauzkeu baliabidek ezta. Eske ez dakit ez dan irikita ez garen figura bat jartzea hezkuntzatik pertsona marrokiar batzuk ekartzeko

eskola, eske ez ditugula planteatzen gauzak, edo herriko norbait, ez dakit ez? Baino hoi ezin zaio ukau.

- **I: Azkenen, zuek uste dezue identitate plural hori, presentzie horrek babestu ingo diola ume horrei ez**
- **E2:** Bai bai.
- **E1:** Bai, nik ustet baita umek euki daikiela sensazio bat, ez dakit e, nortasune falta, sensazio hori euki daikie, beaiek e mila bizipen dauzkie, beste batzuk igual hemen jaiota baino baita badakarre hor memori bat ez? Ta horrei leku bat ein beharra zaio.
- **E2:** Bueno guk beti komentatzen deu ez? Ni jungo banintz guain bizitzea betiako Txina, nik euskeraz hitzeingo nuke nire bizi guztin, nire etxen, jungo banintz senidekin euskeraz hitzeingo nuke, seme-alabak eukiko banitu euskera erakutsiko nieke, nik hori ez nuke baztertuko, bai hangoa ikasi ta egokitu, ba azkenen bizitzan eiten badezu, behar dezu egokitu, baino zuk zure ez dezu utzi behar, ordun ezin diozu ume batei berea kendu.
- **E3:** Adibidez, hemen gertatzen dana askotan da, komentarioa, bai pasatzen da ume bat erderaz ai bada ta euskera oso barnerauta dauken o guraso o ikasle batengandik, aizu erderaz ez ein, ein euskeraz, holako komentariok azkenen etorri edan pertsona bati kalte ein behar die, jo eske esango due ze nire hizkuntza zer da txarragoa? Nahi o ez nahi komentario batzuk dare, aizu euskeraz ein, aizu ein hola, aizu aizu....
- **E1:** Bai ta berez jartzen zea pentsatzen ta, nik ustet ohituta garelako umetatik hoi entzutea baino ostra eske kriston kargantea izan behar do eun guztin pertsona bat eukitzea, jartze zea egoera berri baten, eztezu inor ezautzen, behintzet ia kostatzen danak, *según* ze pertsonalitatekin, jendea ezautzea, irikitzea, lortzen dezu laun bat, lortzen dezu komunikatzea, ta derrepente etortze zaizu bat, bi metrokoa, haundigo bat ta jo ostra nahikoa eiten due.
- **E2:** Bai ta nei pasa zait, esan erderaz ta nik laundukoizut baino isilik, beldurre ez?
- **E3:** Itxi.
- **I: Guain segregazion ingurun pixkat aipatzeko gainetik, e gaur egungo errealitaten, eta hiriburu askotan, segregazioa ematen da eta zuek nun, karo oso errexa da galdera, baino zuek ze ingo zenuen, edo zeba jarraitzen do? Adibidez familik “autoktono” deitzen zaien hoiek zer nolako eragine daukie eskola segregatuk sortzeko, zuek uste dezue eragiten dola bai hemengo familik, gero baita hezkuntzatik...**
- **E3:** Kumulo bat.
- **I: Bai, faktore asko darella, ez?**
- **E3:** Bai, baino bai dala igual hemengo gurasongandik e faktore garrantzitsu bat nik nire alaba aukerau eingoet jungoala horrutza, hauek ai badie horrutza juten nik ez det nahi

nire alaba semea honutza jutea. Nik ustet hori gurason aldetik, ni gero guraso izango banintz aukera eukiko bano ba planteatzeko gauza bat izan behar do, azkenen nik ez badiot beste norbaiti esan behar aizu zeba eztezu eamaten zure umea honea, ta gure lana ezta besten, igual bai bultzau beharko litzeke ba ezta it ba, asko bultzatzen gaitue nahi duenen telekomunikaziotatetik edo beste batzukatik, edo ze partiduta jun edo ze zea jun, ze eskolata jun baita nik ustet herrin baita e biderau ein beharko litzekela pixkat....

- **E2:** Hor lege berrie sartu da pixkat ez? Guain lege berrikin hori aldauko da.
- **E1:** Hor gizarte mailan ia, nik ustet dauzkeun aurreiritzikin ta osea esan naet ez balitz hori eongo ba igual igualko liguke gure seme alabak edozein ikaslekin eotea, baino hor ia badatozte zea batzuk...
- **E3:** Bizipen.
- **E1:** Bai arrazakeri puntu bat, bai badao.
- **E2:** Eta hori eskolan, seme-alabantzako eskola bat aukeratzen deun bezela, taberna batea sartu bai edo ez, e segun ze barriotan bizi...
- **E1:** Danen, baino hor badao, ta gaur eun mantentzen da, eta nik ustet azkenen hori da pixkanaka elikatzen aigean zerbait eta hor ezpada eiten hausnarketa kolektibo bat e ba behin da berriz perpetuako deun egoera bat da eta geroz eta gehio nabarmenduko dana. Ez dakit nik adibidez, nire tutoren semea beak gatazka potente bat euki zon, eak eskola publiko baten inguruan, osea ez publiko o publiko, baino bai aukerau zon publikoa zalako, baino aukerau zon metodologikatik, Antzuolako eskola. Horren inguruan tesie ein da, hausnarketa potentek einda eta semea euki eta bere neskakin noa eraman e erabikitzeke momentun, karo beraien herrin ikastola, eskola kristaue ta bi publiko, eta karo neska eskola kristaua jundako, eta bera esanez *que no que no que no*, oso garbi. Azkenen erabaki zuen bin arten, egoera nun zan egokina, publikon arten e, ta hoi e izanda pertsona bat landu edana, danoi datozkigu gure mamuk, ta bakoitzei lasaiago sentiarazten dio aukerau zuen batea eamatea, ta kuadrilan komentau ta kuadrilako gehienak e kristau eskola eamanda, ta nola atrebetzi zea eskola horta matrikulatzea zure semea? Esan zion ijito guztikin? Ta erantzun zion "bakizu ze nire semea haundie eiten danen ijito guztikin ibilikoa ta zure semeei harrapauko dio" (parrez). Jo baino ez dakit, pentsamendu hortatik ez? Nire semea eingo da hauen laun, ta joe konbibentzi hortatik, ta bakit idealana dana ez?, baino hasi beharra gare hortan ez?
- **E2:** Jo eta gero guraso askon zea da euskera e, osea ez bakarrik ijitok edo zer dien, e ba hori ikastetxe hontan juten dien ehuneko eztaikit zer atzerritarrak die eta hemen euskaldunek...Ta hor hartzen die, beize, gure kulturatan bila.
- **E3:** Euskaldunen arteko segregazio horire bada. Guk jotzen deulako.

- **E1:** Baino hor buelta eman behar zaio. Geroz ta nabarigoa da, ta geroz eta gehioa goatz.
- **E3:** Baino egie da igual puntu hortan ez bazare hausnarketa hoiak eitea zaile dala.
- **E2:** Eta halare, guraso zeanen oso zaile da, beldurrek.
- **E1:** Nei baita, beldurre emateit, baino joe eske esatet indibidualki hartzen badezu erabakie ba aldaketa oso gutxi emangoa, baino kolektiboki hartzen badezu joe ba buelta haundie eman daikezu horrei ez? Baino karo batek bakarrik emate bado eztoa inoa, baino kuadrila batek erabakitzen bado gure seme-alaba guztik honea jun behar die, ostra ba 15 ume sartzen zaizkizu eta hor ia moitzen da.
- **E3:** Aukera daon herritan /pfff/.
- **E1:** Baino hor ustet, lehen esaten genua, aldaketa ez da bakarrik eskola mailan eske ia da gizartea bera...
- **E2:** Baino gero horrei erantzune emateko modue, esan nahi det, guain planteau udan legeare horrei erantzuteko planteau da, baino etzait iruitzen modu egokin planteau danik. Hasteko umen ehuneko zenbait egoera zaurgarrin eon behar dienak, egoera zaugarrin daren edo ez erabakitzeke irizpideke die, etxen netflix daukezu? Zenbat kotxe daukezu etxen? Telebista dauketezu? Karo, zuk hola egoera zaugarrie zeri deitzen diou? Ekonomikoki? Telebista bat euki edo bost euki ez tizu adierazten ekonomikoki hobeto edo okerrago zaren, eta emozionala nun gelditzen da? Ta egoera egonkortasun hori? Horri guztiri erantzutekore pentsa, hezkuntza sistematik goitik atera dan lege bat hola planteau baldin bada, zein da modue ez?
- **E1:** Egoera zaurgarrin daren pertsonak ia seinalau iteituzu, ta eaiek gañea ez tuakie eskumenik aukeratzeko.
- **E2:** Ez bestek e ez, ze aldi beren zuk aukerau dezakezu, baino ez bazea sartzen egoera zaurgarrin daren ehuneko hoitan, baldin badare 80, ta 50 plaza badare, ba zuri bideratzen zaitu ez takit noa.
- **E1:** Ia baino beraiek ia *se supone* zaugarrikok.
- **E2:** Zaugarri *se supone* gorde iten zaiela plaza. Baino da igual, ez da zaugarrie izan bai edo ez, ez da moduik egokina,
- **E1:** Nik ustet aldaketa ein behar dala...danok.
- **E3:** Lege batek ez do asmauko, ez bada oso globala.
- **I:** **Ba e azkenekoz, bueno azken bi puntuk ikutzeko, galdera bat da zuen ustez ume bat noiz bihurtzen da arrazista? Hau da, karo guain hitzein deu familik aurreiritzik ditu, gizartek aurreiritzik ditu, ordun haur bat noiz bihurtzen da?**
- **E3:** Ze situaziotan o adinetan?
- **I:** **Ghien bat situazioa.**

- **E1:** Nik esango nuke pentsamendu hori kutsatzen hasten zaizkionen, gizartetik, gurason komentariotik, lagunek baita. Ze ume batek, (Izena 2) kasue, umetan nik neuken panpina beltz bat eta ikusi zola eta buelta emate ziola, zikine zeolako esate zolako. Ez nuke esango (Izena 2) aldetik jarrera arrazista bat daonik. Ze hor (Izena 2) ez do ikusi beste azal kolore bateko pertsonaik, ordun nik ustet komentario batzuk darella inozentzik ezjakintasunetik, baino gero bai ia irain bat baldin bada edo intentzionalidade batetik esaten bada komentarioa, ba ikusi dezulako telebistan ba batei eztaikit zer deitzea ba horrei gaizki sentitzea eraingo diola, ba hor nik ustet jarrera arrazista bat daola. Hori ia bai daola gizartek kutsatzen donen pentsamendue. Baino gero hor haur batek eiten bado komentarioa, ba aztertu ein beharko litzateke egoera bakoitza ez? Ez dakit e, eske nei hausnarketa hori etorri zait, hor (Izena 2) jarrera arrazista da? Jo eske nik enuke esango, nik ustet dala ez dolako ikusi, ez dolako errealitate hori ikusi.
- **E2:** Jo, nire etxen adibidez, nire anaie txikie zanen, ba eztaik 4 urtekin, Salouen, parken jolasten meriendatzen, eta ume beltz bat parken. Berak hemen ez zitun ikusi ume beltzak, ta ze ein zon bere bokailoa eman zion, ta amak esan zion ze (Izena 3)? Eske gosea zeuken. Eta (Izena 3) etzon hitzein ume horrekin, karo berak ume beltzak ikusi ditu telebistan Unicefeko anuntzian, ordun (Izena 2) kasue bezela, nik ustet ezuala jarrera arrazista bat, osea zuk ikusi dezuna erreproduzitu. Aurten nik bai bizi izan det ikastolan, gelan dauket ume bat beltza dana, eta ume batek behin baino gehiotan, nei haurren eonda etzait tokau, baino kaka kolorea daukela esan dio. Gurasok iritsi zaien informazio hori, baino ta sinisten diet beraiek etxen inungo momentutan ez dituztela holako komentariok bota, ta sei urte dauzke ume horrek. Ordun, eta ikastolan, bere ingurunen ez nuke esango daukenik, nik hor argi ikusten det gizartea dala kutsauta daun hori.
- **E3:** Eta garaiz hasten da.
- **E2:** Adibidez nik eztaikit nundik datorren hori, eta da zerbait errepikau izan dana, kaka kolorena bat, baino ez ikutu nahi izatea, ilea adibidez, trentzakin dauzke ta trentzak ikutu badiozko *ya que asco* esaten hasten da. Ez dakit berak barrun dauken arrazoia, baino bai die jarrera.
- **E3:** Ta ez dauke zertan etxen komentario bat jaso.
- **E2:** Bai ta nik gurasokin hitzein eta gurasok karo ardurauta, ze ia jarrera e larrik die, egoera larri bat da, sei urteko ume batentzat gehio. Nik ustet gizartetik...
- **E1:** Bai eta hor min bat emateko, iraintzeko puntu batetik. Ze bestela iraintzeko esango zion tonto, baino ikusi do berak esaten dionak mine ematen diola, o kolorea lotzen bado eztaikit zerekin eragin eingo diola, nunbaiten ikusi dolako.

- **E2:** Eta nik hor moztu non, ez det uste erantzun pedagogiko egokina danik, ta geroa etzan errepikau. Ipuin bat irakurri genun, koloretakon pertsonak zien, gorrie eta urdine, pixkat arrazismon inguruan, bukau gendunen pixkat horren inguruan hitzeiten ez, ta beak esan zon eske nei kaka kolorea dauketela esaten diate, ta ordun nik ba azaldu kolorek, hitzein gendun ta beste behin, hortik gutxia honek kaka kolorea dauketela esan ziten, ta ordun esan nion guk ordun zer daukeu botaka kolorea? Ze karo, guke azal kolorea? Ez da azal kolorea, azal kolore ezberdinek dare, txerri kolorea deitzen deu guk, ez dakit gehio gustatzen zaigu. Ta botakana esan non ez kolore bat emateko bakarrik, baizik eta konotazio txar hori emateko, zure burui, eta hola moztu ein zan. Ez dakit hola ein behar non bai edo ez, baino bueno horrek e hausnartzea eman ziola.
- **E1:** Karo, ze beak etzon esan txokolate kolorea.
- **E2:** Hoi da, konotazio txarra zeon.
- **E3:** Eta gaur egun gauza oso ohiko bat da, hau da, errealitatea aldau ein dala, ordun iraintzea iristea ba pff gizarten jarrerak errepikatzen die.
- **I: Gizarten islada bat.**
- **E1:** Ez nuke esango ume bat arrazista jaio danik, ume bat jaiotzen da. Jo eske unin e esaten ziguten, eta beste mundu baten begi kolorek izango bazien? Horri guztiri guk eman diou balore hori, ordun umek hori dana, ez *ajeno a eso*, ba kutsatzen hasten dan momentutik, ez dakit noiz dan. Eske karo txiki txikitatik jasotzen dituzten estimuluk e hain ezberdinek die
- **I: Bai bai karo, kasu bakoitza ezberdine da. Ordun karo batzuk leheno hasiko die, ba pena bat da baino famili askotan komentariok entzungo die, beste batzuk pixkat berandugo komunikabidetan.**
- **E1:** Bai, bai, eta gero nik ustet danok daukeula komentario batzuk, eta nahi o ez nahi arrazistak gea. Eta ematen do intentzio on batetik eiten diteula, baino intentzio horren atzen jarrera arrazista bat dao.
- **E3:** Bai nik esan deten lehengo puntu hori jarrera arrazista bat da, ze momentutik ai zait pena ematen pertsona hori? Etorri berrie dan pertsona bat ahulagoa ikusten det, baliabidek ez dauzke, hori ia jarrera arrazista da, nahi ta zure intentzio honanakin ein.
- **E1:** Ta nik hoi, eongo die familik zoritxarrez oso komentario arrazistak dituztenak, ba holako mundu baten garelako. Baino beste asko eiten diteu kontuau be, intentzio txarrik gabe berez, baino igual aigea mezu bat transmitzen ume horrei ganea umek dena jasotzen do, osa guk igual ba gure azalpenetik badauzkeu bizipen batzuk eta arrazoitzen deu, baino beai esaten badiou zerbait beste erabatea jasotzen do umek.
- **E2:** Beltza esan partez, beltzarana esaten deun momentutik. Aber zeba da beltzarana? Beltza da eta listo, jo...
- **E1:** Hoi da, umek ia momentu hori ulertu eiten do, ordun danok gea ez dakit.

- **I: Eta bueno, gustau zait, lehen aipau dezu liburu batekin landu zenuela arrazakerie. Zuen ustez gelatan lantzen da arrazakerie, esan nahi det azalpena eman ez zer dan benetan, jendek ze bizi don azalduz, edo kulturartekotasuna. Gauza da zerbait politte bezela saltzen dala, egun bat ospauz, hortik aurrea ia ezta juten. Zuen ustez lantzen da arrazakerie da hau, diskriminazioa da hau...Edo pixkat gainerik.**
- **E2:** Beitu nik esango nizuke hainbesteko gauza darelako lantzeko garrantzi handie daukienak, batez ere lantzen dituzula tokatzen bazaizu, ba esan nahi det batez ere gai potentek ez? Ba heriotza bat izan daiken bezela, edo adopzioa, edo... Osea gelan tokatzen zaizun momentutik, edo errealitate hori ikutzen dan momentutik gehio sakontzen dezu zure gelan, nik euki deten esperientzien.
- **E1:** Ta nik ustet hori onartu beharra daukeula. Azkenen guztie ikutzea eta gehien bat sakontasunez ba ez gea iritsiko inoiz. Eta berez baita nik ustet logikoa dala entonon tokatzen bazaizu, ba gela baten tokatzen bada ba behar bat dao gela hortan ta behar horrei erantzun behar zaio, ordun lanketa potente bat ein behar zaio. Baina nik ustet hor peligrosoa dala moda bat jarraitzeatik, hezkuntzak exijitzen digula, ta gaur eun arrazakerie lantzea garrantzitsue dalako, baino lantzea Eusko Jaurlaritzak protokolo bat jarri dolako eta hori irakurtzea edo marrazki batzuk eitea eta listo. Nik ustet hoi peligrosoa dala. Ni bai goatze naiz, lanen eon nintzenen, gai hau, egun berezik eta ba postuero batetik lantzen zien, gainera jarrera arrazistekin, esate zuen jantzi tradizionalak ta bestek ta, topikotan eroitze zeala beti, baino gero baita azalan kolorekin ta, karo eskolan dana baita zan de *color de rosa*, koloretako beste plastidekorrak ekarri zitun ba marroia, beigea,... hola ta ume guztiri erakusten beitu hauek die azalak... Jo ze ostia aigea, lehengon esan nizun hemen aigea lantzen errespetue beste kulturakiko, beste pertsonakiko, eta eskola hontan ez dao ezta bat, ta liburu baten ikasi behar det nik hoi? Osea nola erakutsi behar diot ume honei errespetue ez baldin badauke bere ondoren, osa ia hor ai zea kriston mezu potentea transmititzen. Ta zea modan jarri dielako, ta Mirentxuko eskaparaten darelako, ba jo hola erakustea errealitatea.
- **I: Bai ta eskolan dare burbuja baten, eta gero eskolatik ateratzen die eta daon errealitatea ezberdine da ezta?**
- **E1:** Eta gero hori pasatzen da, aiatzen die ezta ze urteta, eta dare eskola hontatik hauek, ezta ze eskolako hauek, denak elkartzen die eta denak seinalauta, zatituta, eta beste kultura batekok e bai.
- **E3:** Komentarion bat arrazista baldin bada gelan e, gehienera beste irain bat bezela tratau izan da, hori ez esan. Batek esaten badio hijoputa o marikon esaten daan bezelaxe iraintzeko, puto marroki o ezta kit zer esan beste irain bat bezela, irain puntu

hori lantzen da baino fondoaino enaiz sartu. Iraine baldin badao momentun hor lantzen da.

- **E1:** Hor norberak dauke ein beharra lanketa holako kasutan erantzun egoki bat emateko.
- **E2:** Nik ustet hor bai daila garrantzitsue dana baliabidek eotea eta existitzea, ba zu seguru asko beste entorno baten ez dezu lantzen ain sakon, zure errealitateen ez dalako tokatzen, baino tokauko balitz eukitzea, eta erabiltzea.
- **I: Bizik eotea baliabide hoiek.**
- **E2:** Eta hori irakaslen baitan dao.
- **I: Geo baita gaiekiko daukezun sentsibilizazioa ezta?**
- **E1:** Azkenen zorionez edo zoritxarrez pertsonak eiten deu hezkuntzan, askotan zorionez, pertsona zorigarrik tokatzen die biden, baino beste batzutan txarrak tokau daizke. Zorionez pentsau nahi det.
- **E3:** Egie da, gai asko darella tokatzen diela hola, ta geo nire bizitzen ez dakizkitenak erantzune, genero berdintasune... Guk pertsona bezela normal ezta erantzuten nire egunerokotasunen, ba pentsa gelan tokatzen baldin bazaizkizu?
- **E1:** Baino hor nik ustet baita onartu, eske ez gea super irakaslek, onartu eta laguntza eskau. Eta entorno ona eukitzea baita laguntza eskatzeko, ze askotan igual baita zare, ni bateze lanen neonen, lehenengo urtea mila gatazka daukezu hortaz aparte, pertsonalak, baino ez bazea eroso sentitzen, ezta duda bat galdetzeko...baino bat ondoren baldin badaukezu jakin hemen naola, eozein egoeratan hemen nao.
- **E2:** Desahogatzeko baldin badare.
- **E1:** Horrek asko lasaitzen do egie esan.
- **E3:** Nire esperientzien, nahiko eskola ikutut ditut, ehun batekok, hiru eunekok, aste betekok, normalea irakasle aldetik eta klaustro aldetik nahiko babes sentitu det, launtzeko prest eon die. Posible da tokatzea ezezkoa baino normalea oso esperientzi ona eukiet irakaslekin, eta normalen oso iririk izaten die, aber behar dan bezala, izan beharko luken bezela, bai baino tokatzen da borden bat edo baino normalea esan nahi det, nik ustet nahiko kontzientziauta daon jendea dabilela eskolatan.
- **E1:** Espero det baietz.
- **I: Ez dakit, amaitzeko zerbait esatea gustauko litzaizueken, edo besteik gabe.**
- **E2, E1:** Jo ba eskerrik asko.
- **E1:** Hausnartzekore balio izan do.
- **E3:** Oso gai potentek die, baino eskerrak holako espaziok daren.
- **I: Bai bai, eskerrik asko esandako guztikatik.**

2. ELKARRIZKETA: parte-hartzaileak G4 eta E5 irakasleak.

- **I: Lehenik eta behin zuen adine eta zenbait urtez ein dezuen gutxi gora behera lan irakaskuntzan.**
- **G4:** Nik 60 urte dauzket, 61 egin behar ditut eta irakaskuntzan hola buruz buruz ez nuke jakingo esaten, baino nik ustet 24 urtez geo lanen naula, orduan ba pentsa 36 bat urte. Eta gainera 30 hemen Zegaman.
- **I: Zein eskola saretan?**
- **G4:** Beti eskola publikon, ordezkapenak berezik Araban ein nitun, ba egon nintzen Laudion, Gasteizen, Maeztun, Araian bost urte egon nintzen eta gero ia Gipuzkoa, Billabona, Ereñozun, Gabiri, Zerain eta gero ia Zegama.
- **I: Oso ondo.**
- **E5:** Nik dauzkat 43 urte, 44 urte laister. Eta bueno, nik uste dut 18 urte egon naiz 12 urte Etxarri Aranatzen publikoan ere, eta trasladoa eskatu nun Zegama, eta Zegaman egon naiz 4 urtez. Behin oposaketak aprobatuta, zure plaza ematen dotzunian Leriñen, han egon nintzen bi urte, eta praktikak ein nituan Larragan. Orduan kalkulatuta hamazortzi urte, eta beti ibili izan naiz Nafarrun. Araba oposaketak aprobau nituan euskara irakasle bezela ta han ibil nintzen, bateze Iruñako zonalden, baina tokau jat Tuteraraino jutea. Larragan praktikak, Lerinen definitibua ta gero ia Etxarri. Ta gero ia hona.
- **I: Zuek lan ein dezuen eskolatan, aniztasun kultural asko eon dala esango zenukete?**
- **G4:** Beida hasiera hasieran, lanen hasi nintzenen gogoratzen det, Gasteizen eon nintzen eskola baten han bazegoen hartan arabiarrek zeuden bereziki, alde zaharreko eskola bat zen, marrokiarrak bazeuden. Karo ai naiz esaten orain dala 36 bat urte. Aniztasuna hor esaten dut, arabiarrek, marrokiarrak. Geroxeogo, egon naizen eskoletan ere antzekoa, eta gaur egun konparauta lehenauko aniztasunekin, arabiarra egoten jarraitzen dute, baina gaur egun, lehen ez bezela, hegoamerikarrak etorri dia eta ekialdeko herrialdetakoak, errumaniarrak etab. Eta hor aniztasun kulturala handiagoa dala iruitzen zait niri behintzat.
- **E5:** Bai leku gehiagotik etortzen dia orain. Nei Naparru, bai tokau jat gehien bat ijitanok, han ijitano gehiau edo. Han marrokiarrak eta gutxiago, han aniztasun kulturalean ijitanok, ta geo hasi zien sudamerikanok. Baino gero ia azkeneko urtetan ia marrokiarrak etortzen, gehien bat herribehera aldea, Lerinen eta. Etxarrin e ez hainbeste, Etxarrin bazeuden e, baino Iruñan e bai.
- **G4:** Oso kuriooa da, Araban e hori gertatzen zan, hegoamerikarrak e eongo zien, baino ekialdekok etzeuden, orain bai gehio daudela. Eta noski, zeuden arabiarrek izango zien marrokiarrak eta inguru hortakoak, gaur egun...

- **E5:** Pakistandik eta etorrita.
- **G4:** Gaur egun zabalago.
- **I: Bale guain zuek kulturartekotasunen inguruan formazio eskolan aldetik edo ikastaron bat, unibertsitateen edo unibertsitateetarako kanpo jaso dezuen.**
- **G4:** Egia esan nik ez, nik ez dut formakuntzarik jaso. Egin geana da, neurri batean eskolak poliki poliki egokitu egin ziren garai baten, ez dakit zu goaiko zein izaskun, baino eskolan lehenago egiten zituen, gaur egun horako ekintzak gutxiago egin dituzte, baino eztaiki goazten zein gimnasioa etortzen ziren eta bakoitzak herrialde bakoitzeko topagune bat egiten genuen, janariak, erropak. Batez ere izan genuen irakasle bat, Nekane, kulturartekotasune asko bultzatu zuen eskolan, eta horako topaketa bat egiten genuen eta egia esan oso politte zan, zan hasiera hasieran, Zegamara marrokiarrak eta hogeita bat urte edo hola etorriko zela lehenengo pentsa, eta orduan poliki poliki hasi ginen ikasten, integrazio hitza txertatzen. Formakuntza berezirik ez, nik uste dut hasi ginela zabaltzen, ikuspegi ezberdinetara zabaltzen.
- **E5:** Gu ere, ni ere antzera. Nik e ez dut formakuntza hola bat ez dut jaso, baino bai itxen gendun adibidez zeuzkagun ijitano familia bat, Leitzakoak zianak, Etxarrira etorrita, eta amak pilo bat zekixen euskera, orduan euskeran eguna ospatzen genuenian, ba saiatzen ginan haiei e zeozer ematen ez? Ba etortzia txarra bat ematea, beaiei e parte sentitzea, gainera bat jantokiko laguntzaile bezela zeuan. Hortaz balioak izan ginen, euskeran eunen sartzen ginen sartzen, eunerokotasunen sartzen.
- **G4:** Nik ustet formakuntza zerbait jasotzekotan, nik ez dut jaso, baino eskolako irakasle batek jasoko zion, hizkuntzarekin lotutakok. Etortzen ziren eskola euskalduna da, hizkuntza beikularra eta nagusia euskara da, eta etortzen ziren beste hizkuntz batekin. Orduan hor bai poliki poliki egokitu behar izan zuen eskola hizkuntza eskakizun hoietara, ba poliki poliki bai eskola eta gizartea bera ere jundala egokitzen, bestela bera formakuntzarik ez.
- **E5:** Hauei adibidez plan individual bat egiten zitzaien euskara lantzeko. Baino bestela integratuta gela, bai ta tutoretzan baldin bazeuan horrelako gai bat ateratzen genuen o lantzen genuen.
- **I: Eta harrerai dagokionez, etortzen bada ikasle etorri bat edo guraso atzerritarrak ditun haur bat etortzen bada zer nolako harre egin diezue, o eskola mailan zer nolako harrera egin zaio?**
- **G4:** E, harrerak berak harrera plan bat dauka, harrera plan bat diseinatuta dauka. Orduan nik ustet zea berezirik eztaukala, etortzen danen eskola erakutsiko zaio, eraikuntza erakutsiko zaio, ze gela egongo dan, zein izango dan bere tutore ta irakasleak, zeintzuk bere taldekideak, e eskolako zerbitzuak agertzen zaizkio. Harrera hori izaten da, gero ia tutoreak bere aldetik ba gela ongi etorri antzeko bat

- **E5:** Ongi etorri bat itxen diou eta arduraduna jartze zaio, gelan bertan kide arduradun bat, adibidez aste honetan bueno ba zurekin jeitsiko da patiora, integrauiotzu, erakutsi komunea jun behar bada nun zeuan gogoratu, hola ba egoten da laguntzeko prest darenak, eta horrela joaten da lagunekin integratzen.
- **G4:** Dinamikan sartzen. Gero herri txikie da, eta badakizu lauetatik aurrea eta eskolatik kanpo harremanak izateko aukera badaukate, lasaia da.
- **E5:** Eta tutoreak galdetzen diogu, edo egunero zemoduz? Zer moduz zaude? Gogoratu behar zea hori esatez, eta ume ondo daola ikusten badezu ba bueno landu ein behar da tutoretzan.
- **G4:** Eskola txikie da, egie esan asko ez die etortzen, karo noski etortzen dia baino ez asko. Eta eskola honek arreta zuzena emateko aukera ematen do.
- **I: Baliabide aldetik uste dezue ondo daola?**
- **G4, E5:** Bai bai.
- **E5:** Bai eta etortzen die, harrera plana, euskararen laguntza, laguntza gehio.
- **G4:** Herri mailan ere zerbitzu bat dao euskera suspertzeko ikasle hauekin
- **E5:** Bai bereala jartzen gea, eta poz pozik.
- **G4:** Bai (Izen 1) egoten da
- **I: (Izen 1) eta (Izen 2) bai.**
- **G4:** Bai hori da, eta guk bideratzen diogu hautza.
- **E5:** Eta txikia danez herria errez integratzen dia, talde txikia danez.
- **I: Eta zuek, adibidez aurreikuspenei dagokionez, aurreiritzi dagokionez, asko aldatzen die zuen aurreiritzik atzerritik etorri berri dan edo hementxe Zegamarra dan ume aurren, aurreikuspenak asko aldatzen die? Edo zuen jarrera?**
- **G4:** Nik ustet irakasle bezela berdin hartzen ditugula, azkenean irakaskuntzan lan egiten dugu, eta irakaskuntzan lan egiteak suposatzen do gure ikaslekin berdintasun osoz hartzen ditugula haurrak. Nik esango nuke ez daula ezberdintasunik. *De hecho* egokitze hori nahiko arin egiten dutela kanpotik etortzen diren hauek, eskolako egokitzapena, gero ez dakit herri mailako egokitzapena galdetuko digun, baino eskolako egokitzapena oso ondo egiten dute. Guaintxe momentun ainaiz ikusten, pentsatzen ainaiz azkenak etorri direnak, eta bueno poliki poliki ai dia sartzen, behintzat eskolara etortzen direnean atean lasai sartzen dia. Eta ume bat eskolara sartzen bada ondo seinale ona da, bestela ez du sartzen nahi izaten.
- **E5:** Ni be berdin. Nik behintzat denei igual, eske azkenen pertsonak dia nahiz ta kanpotarrak izan, nik denai berdin berdin.
- **G4:** Egie da, hizkuntzagaratik *pues igual* normala danez lan gehixio ematen do.
- **E5:** Baino horretarako gaude, eta horretarako dauzkeu laguntza hoiek.

- **I: Adibidez, bai dala karga bat baino laguntza aldetik, eta irakaslen aldetik, eskolan aldetik babesa sentitzen dezue ume horrekin aurrea jarraitzeko? Koordinaketa bat sentitzen dezue eskola mailan?**
- **G4:** Bai, bai. Dauden baliabideak, hortarako dauden baliabideak aldan estrategikonak erabiltzen saiatzen gea, eta bereziki eskola hauek izaten duten laguntza alde hortatik izaten dute, eta bueno betiko gauza, irakasle gehiago gustora hartuko genituzke irakasle gehiago, arreta hobeagoa izan zedin...
- **E5:** Indibidualago, zuzenagoa.
- **G4:** Beti daukezu faltan ezta?
- **E5:** Baina daukagunarekin ere berehala jartzen dugu martxan.
- **G4:** Hori ez dago gure esku gainera, ordun guk irakasleok kopuru bat daukagu eta horren arabera banaketa eiten da.
- **E5:** Berehala jartzen gara martxan.
- **I: Eta guain bai, ez dakit identitate plurala, identitate plurala da adibidez ume bat euskaldune da eta euskaldune da. Baino posible da umea hemen jaio izana baino gurasok marrokiarrak izatea, ordun bi identitate ditu. Zuen ustez identitate pluralakin, ze ume asko galduta sentitzen die ez dielako ez hangok ez hemengok. Zuen ustez, eskolan identitate plurala lantzen da edo emate zaio lekue, presentzie bere identitatei egunerokotasun edo aipatzeakon edo?**
- **G4:** *Hombre pues igual* batzutan ahaztu iten gea bi kulturai presentzia eitez. Figura batzutan pentsatzen ainaiz, hemen jaio direnak eta gu ia euskalduntzat hartzen ditugunez, hemen jaio direnez, beste eozein ikasle bezela tratatzen diteu.
- **E5:** Tratatzen ditugu bestiak bezela, ta ahaztu ite gea askotan daukiela beste kultura bat.
- **G4:** Egia esan, nik uste det eskolak landu beharko luke hori? Beraiek beaien kontuan lantzen dute, esan nahi det marrokiarrak beren ohiturak, erlijioa lantzen dute. Beste herri batzutatik etortzen dienak ere, eskolatik kanpo, baino lantzen dute normala danez, beaien kultura landu eta eutsi behar zaio ez. Guk geuk? Ez det uste arreta berezirik ematen diogunik horri.
- **E5:** Gaiak eta lantzen dienen, Ingurunen bai kontutan hartzen da, adibidez Erdi Aroan musulmanak etorri zianian eta eztakit zer, ba badauzkagu marrokiarrak aber eta zuen gurasok, atxon amonak hangoak ziala, badakizue nun daon? Parte hartuarazi itxen dieu, orduen bai aipatzen dezula, holako gauzak bai, Ramadana eon darian ere tutoretzetan landu izan dugu, neska batzuk zapia ekartzen hasten darian, tutoretzan, eta zergatik? Eta hemengo komunioak, zergatik, edo painueloa zergatik. Bai saiatzen zeala ba holakoetan aprobetxatzen, zuek daukazutela familia hangoa, adibidez, gero egin dugu kontinenten gai bat, kontinente ezberdinak hartu dituzte, ta batzuk zeuketen

Asia, hor Hinduk, marrokiarrak eta. Daukagun ikasle bati, ba mozarrotu ein behar ginen, ordun esan genion eta zuk ekarri dezakezu zure amak eukiko ditu hango erropak seguro, koloretzu-koloretzuk, ta eskatu ein genien bai bai ekarriko dut, pozik ekartzen dute. Bai segun ze gaietan saiatzen zeala, euren, guain Aro modernoa errege katolikoa gora, errege katolokoa behera, ba hor adibidez zuen erlijioa musulmana, eta zuek zeini jarraitzen diozue ez? Ba pixka bat bai saiatzen geala sartzen, aldanetan konparazioak egiteko, gainera beraiek esaten dute, baina nik hori ez dut jarraitzen, beaiek ere ateratzen dute. Holakoetan bai lantzen ditugulako.

- **G4:** Arlo diferenteak hartuta, eta arloak ematen badu aukera ba bai. Nei *por ejemplo*, nik gorputz hezkuntza emate det, edo robotika edo informatika hor ez diot bilatzen ez? Baina E5 beak esan don bezela, gizarte gaia edo naturak asko ematen do aukerea hori lantzeko, nik ustet oso ondo esplikatu dula ze puntu ikutzen dien.
- **E5:** Adibidez LGTBI komentatu zan, emakumen egunean ere, hemen ere aldatzen ari garela, baina badaudela hainbat lurraldetan ezetz, eta beraiek ere konturatzen dia musulmanetan, ba gurean ikusten deu... Tutoretzetan bai ematen dotzulako holako gauzetaz hitzeiteko.
- **I: Eta guain bai segregazio eskolan, hiriburu askotan segregazioa ematen da, ba igual hemen ez da ematen, baino Gasteizen oso presente daon kasu bat da, zuen ustez hor gakoa nun dao, hemengo familik kakotsa tartem ihes eiten duelako? Arrazoa nun ikusten dezue gehien bat?**
- **G4:** Puntu inportantea da, *de hecho* Eusko Jaurlaritzak orain atera berria daukan Hezkuntza legeak hori sahiestu nahi du, segregazio hori, ez dakit lortuko dan edo ez. Baina nun dagon gakoa, guk suertez gure eskolan, eskolan behintzat barrun ez dugu hori bizi izan, eta hori oso inportantea da, nun daon gakoa? Bueno gakoa ta segregazioak bidea hartzen du nire ustez herri koxkor batean, herri koxkor bat esaten det ikastetxe bat baino gehiago daon herrian. Ikastetxe bat baino gehiago daon herria bidea dago segregazioa emateko, ikastetxe bakarra daon herrietan ez, zeatio garbi dagoena da, nahiz gizartean badaudela *poder adquisitivan* arabera mailak egiten dira. Estadistikak etab. Eta galdeketak egiten direnean gizarteari, esaten dute integrazioa, prest gaudelako integratzeko, baino gero nik ustet estadistika hoiek ez diela gizartean gauzatzen, zeren gauzatuko balia, segregazio hori ez litzeke gertatuko, eta gertatzen da. Orduan, nik ez dakit zer pentsatuko duten guraso hoiek baino guraso hoiek ziurrenik kanpotarrak komilla artean, euren semeak kanpotar hoiekin elkartzearekin asoziatuko dute, delikuentzia, droga horrelako gauzak. Ordun azkenean eskola batzuk bihurtzen dia eskola elitista ta beste batzuk ba beste guztia, ez? Zergatik? Ba nik ustet gizarteak zer ikasi handia daukagula integrazio aldetik, motiboa segregazioarena? Nik ez det nahi nahastea nire seme-alaba beste batzuekin, baino, aldiz, nik nahi det nire

seme-alaba nahastea nire maila soziala dutenekin. Horrek ez dizu garantizatzen hezkuntza ona edo txarra jasoko duenik.

- **E5:** Bai eta hemenguekin elkartzea, ze baztertuta eongo da, ze besteak ez dia hainbeste integratzen, hemengo lagunak egin nahi ditugu, euskararen maila baxuagoa izangoa.
- **G4:** Azkenen maila sozio-ekonomikok diktatzen do, maila ekonomikok, dirua daukanak pues gauza batzuk lor ditzazke, eta jotzen do alde horta. Gero kaletik pasatzen digutenean galdetegi bat, *super correctok* gea, gero gauzatzen dena diferentea da. Aber lege honek lortzen duen holako zerbait, batez ere herri haundietan. Ze eskola bakarra dagoen lekuetan dagoena dago, ez badezu zure seme alaba beste herri batera eramaten, hemen danak berdin tratatzen dira. Eta hezkuntza berdina ematen zaie denei, gero lauetatik aurrea beste kontu bat da.
- **E5:** Eta integrazioa askoz hobeto, ikusten da gehio bi eskoletan
- **G4:** Nik ez det ikusten argi nahasketa hori nola eingo dan, portzentaiak banatze hori zaile izango da, ideia ona da baino zaile izango da.
- **I: Zuek ikasleei ikusi diezuen jarrera arrazistak eta, eta nundik etorri dien? Azkenen umea ez da jaio arrazista, nun ikusten dezue jatorrie?**
- **G4:** Beida, jarrera arrazistak nik garbi dauket ikaslek eskolan konportamentu jarrera bat daukatela, beraiek badaki zein dan jarrera korrekto hori, pena da jarrera korrekto hori, eta nik ustet eskolatik kanpo momentu batzutan ez dala aurrera ematen. Aurten ez det entzun, baino iaz bai entzun nitun, eta oso gogorra egin zitzaian, moro zahar hori, eta ez moro bakarrik, marikoia hitzare aurten ez det entzun, baino entzunda dauket. Karo hori da guk entzuten deguna, irakasle bezela, gero momentu asko dare eskolan bertan irakasleak kontrolatzen ez dituenak, bi hiru ume hitzeitan ari direnean, Gogorra egin zitzaian baina batzuk entzun ditut eskolan, nundik datorren hori? Hombre eskolan, irakaslengandik ez dute entzute, hori entzuten dute gizartean, behar bada beraien gurasongandik, behar bada ez dakit kalean sortzen dien komentario horietatik
- **E5:** Gaur egun dituzten bideojokuekin ere, *vamos a matar al negro, no se que*, pues asko baita hortik.
- **G4:** E5ek ikutu do puntu bat oso oso oso oso arriskutsue. *Vamos a matar al negro, vamos a cargarnos al negro...* Horrek asko zeatzen du. Eta umek die esponja bat bezela, dena txupatzen dute, dena hartzen dute eta askotan ba filtratzen ere ez dakite. Bai zure aurrean badakite nola konportatu, baina ez det uste eskola hontan hori denik tonica generala
- **E5:** Ez dago arrazismo kontu handirik hemen.
- **G4:** Ez, ez ez. Bai, esan dizkizuten hitz hoiak bai, ta ostras, beaien arten hasarratzen dienen, moro zahar hoi.

- **E5:** Hasarratzen dianian bai, nik entzunda daukat.
- **G4:** Nei ez dakit galdera hoi eingo dezun, baino nei gehixio preokupatzen ditena da hemen eskolatik kanpo ateratzen geanean, ia ez dakit ba hor badaude talde txikiak eginda. Eta nik falta botatzen detena da hor integrazio hori, baino hori dala gizarteak berak pendiente daukan zerbait, eta ez dakit lortuko dugun, gizarteak berak. Klaro nik jende askokin hitzein det horri buruz eta beti besteari botatzen diozu kulpa, eske elkartzen die plazan eta ez die gukin integratzen. Baino beste bertsioa entzuten dezu eta esaten due esker elkartzen die plazan eta ez die gukin integratzen, edo ez digute esaten, eta gu ez gara atrebitzen. Beste batzuk esango due behin esan genien etortzeko eta ez genien esan. Hor dao gauza bat gurasok, umeek errexago ibiltzen die. Gurasok ikusten badituzue ai die ia zatiketa hoiek sortzen, nun dao horren gakoia? Jo ba ez dakit, jakingo bano...
- **E5:** Eta ez da bakarrik hauek e, hemengo umeek, hemengok esan det baino bueno, ari dira ia taldekatzen. Nire garaian, txikia nintzala, denak elkarrekin ibiltzen ginen, neska eta mutil berdin jakun danak jeisten ginen zeuanarekin eoten ginen, orain ez, hemengoak ere ez badago nerekin ibiltzen dan hori ni ez naiz irtetzen, eta hori kinta berekok, gelan berdin, osea gu juntatzen ginen edozein, kinta ezberdinetakoak. Orduan horiek zailagoa daude integratzeko, ze ia daude *grupitoak* eginda, eta integratzen badia integratuko dia igual ere bereiztuta dauden horiekin
- **G4:** Zu konturatzen bazea, eta lauetan ateratzen zeanean, eta txikien bila etortzen dien gurasoak ikusten badituzu, argi eta garbi ikusten dia taldekatzeak, hemen momentu hontan hiru multzo haundi ikus daitezke, zegamarrak Zegaman jaiotakoak, beste multzo bat hegoamerikarrak, beste multzo bat dao errumaniarrak, bulgaroak eta beste multzo bat dao marrokiarrak. Eta garbi ikusten da e, garbi ikusten da. Umeak hartzen dituzte danak elkarrekin, baino geo umeak hartu eta leku diferenteta juten dia. Eta hori da, ez dugu lortu hori eta dauket iruipena, gizarteak garai batean horrelako ekintzak elkartzeko, orain momentu hontan iruitze zat naturaltasunez hartu deula hori, eta ia elkarbizita Zegaman momentu hontan elkarbizitza ona daukagu, baina zati hoiek hortxe daude, fijo fijo fijo gainera.
- **E5:** Eta lehen gurasoak, gutxiago, ez dakit, etortzen zitzaidan ama eztaikit zenbar urterarte, geo ia bokailon bila bakarrik jute nintzan ta denboa guztian kalia. Oain gurasoak denboa guztian gainean daude, orduan lehen e denak batea ateatze zian, guain ia beraien kuadrila eramaten dute, kuadrila hemen kuadrila da, zure umea kuadrilatxo ematen dezu eta ia.
- **G4:** Ez da Zegama bereziki, Zegama herri bezela oso herri ona da, baino badaude hor gauza batzuk, batekin hitzein badezu igual bere kulpa, bere hobetu beharrak kontutan hartu gabe esaten du bestek zer hobetu behar duen. Ba maratoiko

bolondresak ez dau iñor, esaten due, eta egie da. Baino zergatik ez dao iñor? Ba hori bezela beste ekintza batzutan. Jo ba gure tradizioan ez dute parte hartzen, erlijioa dala, bestea dala, hura dala, eta egie da, baino zergatik? Ta guk beaien gauzatan parte hartzen du? Nik ustet gizarteak hartu duela “*pues ya esáa*”, guazen elkarbizitza on bat izatea, baino listo. Igual hala behar du, ez dakit, mundu globalizatu hontan igual horrela behar da ez? Nik ustet, askoz ere hobeagoa iruituko litzaidake bai batzuk bestekin integratzea, ta bestek bestetik integratzea, denak denakin integratzea, herri osoa elkarrekin, hori izango litzateke *el top, el 10*. Baino igual utopia bat dan o ez dan, baino zaile da.

- **E5:** Eta Zegama herri txikie dala.
- **G4:** Ba ordun iritsi gea elkarbizitza normal bat eukitzea eta guazen, igual hori da, errespetoa, elkarren arteko errespetoa.
- **E5:** Eta gu konturau gea herri txiki bat dalako, baino hiri handitan ez die jabetuko gu hoin jabetuko geanetaz, ze igual han hola izan da, *más impersonal*, eta holako herri txikietan gehio konturatzen zea.
- **G4:** Eskolako irteretan, lehenengo bigarren mailatan gurasok etortzen dienen kontuatzen zea.
- **I: Bueno eta azkeneko, aholkun bat, gehitzeko zer esango zenukete?**
- **G4:** Ez bakarrik arrazakerie, nik bai ikusten detena da ba xenofobia, emakumeen bortxaketa, asko lantzen ari gara, eskola ia kontzientzia handie hartu do, LGTBI kasu hontan, hor kulturartekotasuna ia ai die beste gai batzuk elkartzen, ta eskola lantzen ari dana azkeneko, ez bakarrik kanpotik etorri direnen.
- **E5:** Aldatzen ai da pilo, geroz eta gauza, ikusten dire gauza batzuk.
- **G4:** Eta gustauko litzaiguke ikuspegi zabalago bat izatea hainbat gaietan. Eta hori ustet landu beharko dugu, eta herri txikitan igual pues LGTBI kasu hontan, sexuak, igual herri txikitan guaindio zailagoa da, erlijioa, dana errotutago dago, igual landu beharko deu gehio, eskolatik aigea lantzen baino ustet hurrengo erronka, erronka inportante bat. Bai, kanpotik etorkinak izango ditugu, baina bueno badaukagu esperientzi bat nola jaso, zer egin, baino beste hortan guaindio ikuspegi zabal bat behar dugu.
- **E5:** Bai ikuspegi zabalago, antolatu jai ezberdinak, zabaldu beharra dago, jun ikusten bakoitzaren kulturak, egin behar dugu ikuspegia zabaldu.
- **G4:** Gizarteko tema guzti hauek bai heltzen diogu gaiari eta danak ilusio haundikin, gorantz joaten da, gero iristen da momentu bat topea iristen dana eta gainea ustet momentu hontan tope hortan garela, guazen gure arten errespetatzea eta bale. Baino integrazioa errespetotik haratago dijo, errespetatu bai baino integrazioa beste gauza bat da.
- **E5:** Eta hori gizartea asko aldau da.

- **G4:** Gizarteak beti dauzka erronkak, eta gaur egun erronkak sortzen dia egun batetik bestea, gizarteak doan abiaduran, erronkak beti daude, sare sozialak, etorkinak, LGTBI, mila erronka dauzkezu, inteligentzia artifiziala, beste erronka bat. Eskola lantzen saiatuko da.
- **I: Bueno ba eskerrik asko.**
- **E5, G4:** Ez horregatik. Plazer bat izan da.